

**JASANGARRITASUN
TXOSTENA**

2023



visesa

2020-2022 aldia



AURKIBIDEA: 2023ko JASANGARRITASUN TXOSTENA

1. KAPITULUA: SARRERA

- 1.1. Arduradun gorenaren adierazpena
- 1.2. Jasangarritasunari buruzko bosgarren txostena

2. KAPITULUA: ERAKUNDEAREN PROFILA

- 2.1. Visesaren aurkezpena
- 2.2. Visesari buruzko datu orokorrak
- 2.3. Gobernu-egitura eta organigrama
- 2.4. Xedea, ikuspegia eta balioak
- 2.5. Visesa zenbakitan

3. KAPITULUA: ERAKUNDEAREN GIZARTE-ERANTZUKIZUNAREN IKUSPEGIA

- 3.1. EGE estrategia. Erakundearen gizarte-erantzukizuna Visesan
- 3.2. Gobernu ona eta gardentasuna
 - 3.2.1. Arriskuen kudeaketa, Gobernu arduratsuaaren gida eta Barne kontrolaren eskuliburua
 - 3.2.2. Kapitalen zuriketaren prebentzioa
 - 3.2.3. Delituen prebentzioa
 - 3.2.4. Gobernu korporatiboaren sistema
 - 3.2.5. Dokumentuak artxibatzea eta kudeatzea
 - 3.2.6. EMAS Europako Erregelamendua eta UNE-EN ISO 9001 arauak
 - 3.2.7. EMAS ingurumen-adierazpena
 - 3.2.8. Datuak babesteko Europako erregelamendua
 - 3.2.9. Energia-iraunkortasunaren dekretua
- 3.3. Erronkak eta helburu estrategikoak
- 3.4. Kudeaketa bikainerako tresnak

4. KAPITULUA: INTERES-TALDEEKIKO KONPROMISOA

- 4.1. Jabeekiko harremana
 - 4.1.1. Jarduera-datuak
 - 4.1.2. Emaiza ekonomikoak
 - 4.1.3. Zeharkako eragin ekonomikoa

- 4.2. Bezeroekiko harremana
 - 4.2.1. Visesako bezero nagusiak
 - 4.2.2. Gogobetetasuna
 - 4.2.3. Kudeaketa aurreratua
 - 4.2.4. Produktuaren politika
 - 4.2.5. Produktuaren egokitzapena bezeroen arabera
 - 4.2.6. Kexen, erreklamazioen eta iradokizunen kudeaketa (KEI)
 - 4.2.7. Pribatutasuna
 - 4.2.8. Komunikazioa
 - 4.2.9. Euskararen sustapena herritarrekiko harremanetan
- 4.3. Enpresa hornitzaileak
 - 4.3.1. Kontrataziorako politika
 - 4.3.2. Enpresa hornitzaileekiko harremanaren kudeaketa
 - 4.3.3. Enpresa hornitzaileei egindako ordainketari buruzko informazioa
- 4.4. Taldea
 - 4.4.1. Visesako pertsonak
 - 4.4.2. Hautaketarako eta barne-igoerarako prozesuak
 - 4.4.3. Pertsonen prestakuntza eta garapena
 - 4.4.4. Berdintasuna, uztarketa eta onura sozialak
 - 4.4.5. Laneko segurtasuna eta osasuna
 - 4.4.6. Komunikazioa eta laneko harremanak
- 4.5. Enpresa laguntzaile eta aliatuak
 - 4.5.1. Sozietate lerrotatuak
 - 4.5.2. Laguntzaileak eta aliatuak
- 4.6. Ingurumenaren babesa
 - 4.6.1. Ingurumeneko estrategia eta kudeaketarako sistemak
 - 4.6.2. Ingurumeneko inbertsioak eta gastuak
 - 4.6.3. Ingurumeneko prestakuntza eta sentsibilizazioa
 - 4.6.4. Ingurumeneko barne-emaizak
 - 4.6.5. Ingurumeneko kanpo-emaizak
- 4.7. Sozietatearen garapenerako lankidetzak
 - 4.7.1. Gizarte-ekintzako politika
 - 4.7.2. Tokiko erkidegoan egindako inbertsioak

I. ERANSKINA: GRI BETEKIZUNEN AURKIBIDEA

1. SARRERA

1.1. ARDURADUN GORENAREN ADIERAZPENA

Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A. - Euskadiko Etxebizitza eta Lurra EAK (aurrerantzean, **Visesa**) **Jasangarritasunari buruzko V. Memoria** jarri du Sozietatearen esku, eta horrek berretsi egiten du bere sektoreko eta jarduerako erakunde aitzindarietako bat dela ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-jarduna komunikatzeko konpromisoari dagokionez.

Visesak gardentasunarekiko duen konpromisoa agerian utzi nahi du, Bi urteko Memoria honetan (2020-2022) azken hiru ekitaldietan lortutako lorpenak eta ezarritako helburuak jakinaraziz.

Etxebizitza duina eta egokia eskuratzea oinarrizko eskubidea da, eta, eskubide hori bete ondoren, beste eskubide batzuen katalizatzaile bihurtzen da, eta, oro har, herritarren bizi-kalitatea bultzatzeko funtsezko faktore.

Hori da Visesaren helburua, are gehiago nazioarteko testuinguru batean, Ukrainaren inbasioak eta pandemiaren osteko inflazioak sortutako ziurgabetasunak baldintzatuta. Erakundeen eta familien egunerokotasunean eragina duen esparru bat da, eta agerian uzten du, are gehiago, etxebizitza-politika publikoen bidez herritarren beharrei arrazoizko etxebizitza batekin erantzuteko garrantzia. Eta hori kalitatezko parke publiko baten bidez ahalbidetzeko.

2021. urtea ere garrantzitsua izan da Visesarentzat; izan ere, abian jarri nahi diren helburu nagusien kudeaketarekin batera, Etxebizitza Sailaren ekintza politikoko ekimen nabarmenak egin dira.

2021ean hasi ziren 2022an amaitzeko lanak, Visesak bat egin du Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak sustatutako **2022-2036 aldirako Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialarekin**, sozietate publiko horren barruan baitago. Ituna 90 erakunde inguruk sinatu dute, eta laguntza ematen die sektorean eragina duten eragile ugari Euskadin etxebizitzaren arloko helburuak azkartzeko orduan, batez ere etxebizitza izateko eskubidea benetako eskubide bihurtzeko orduan.

Horretarako, akordio zabalak etxebizitza-politika adostu baten garrantzia finkatzen du, koherentea eta epe luzerako ikuspegiarekin, etxebizitza Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-ongizatearen ereduaren zutabeetako bat izango dena, osasunaz eta hezkuntzaz gain. Arrazoizko alokairurako parke publikoa handitzea, lehendik dagoen parke publikoa eta pribatua birgaitzea eta merkatu libreko eraikuntza bermatzen jarraitzea dira bere lehentasunak.

Euskadiko etxebizitza-politika publikoek, gainera, balio handiko tresna bat dute egunerokoan: **2021-2023 Etxebizitza Gida Plana**, 2021aren amaieran onartua. Errenta apalak dituzten familiek arrazoizko alokairuak izatea bultzatzen duten jarduera guztien gida da, eta eraikinen eta etxebizitzaren bizigarritasuna hobetzearen alde egiten du, birgaitzearen bidez. Helburu zehatzen eta Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala osatzen duen epe laburreko ikuspegiaren bidez egiten du.

Alokairuko babes publikoko etxebizitzaren eskaintza handitzea eskatzen duen ekosistema honetan, Visesa funtsezko elementuetako bat da, alokairuko etxebizitza babestuak sustatzeaz arduratzen den Eusko Jaurlaritzaren sozietate publikoa den aldetik.

Azken urteotan, garrantzi handiko esparruetan proiektuak lantzen jarraitzen dugu, hala nola, **Boluetan** eta **Sestao Vega Galindon**. Era berean, Espainiako Gobernuak Eraldaketa eta Erresilientzia Mekanismoarekin eta Eusko Jaurlaritzak bideratutako Next Generation EU funtsen bidez, Visesa alokairu sozialerako 1.140 etxebizitza babesturen sustapena finantzatzen ari da. 2022ko lehen sei hilabeteetan soilik jaso genituen Euskadi osoko 1.912 etxetan eragin positiboa izango duten laguntza-eskaerak.

2021. eta 2022. urteak ere aurrerapen urteak izan dira gure proiektu handientzat eta berrikuntzaren arloan dugun jarduerarentzat. Ofizialki itxi dugu Gasteizko Koroatze auzoa birgaitzeko Europako **SmartEnCity** proiektua, ekainean euskal hiriburuan egin zen azken konferentziarekin. Ekitaldi horretan, Visesak **Prize** saria jaso zuen Quality Innovation Awards-QIAren nazioarteko fasean.

Berrikuntzaren arloan, Visesa aurrera doa etxebizitza babestuak eraikitzeko modu berriak bilatzen, ekoizpena hobetzeko eta etxebizitzetarako kalitate handiagoa lortzeko. Zentzu horretan, industrializazioa iraultza teknologiko eta digital oso baten barruan kokatzen da, eta Visesa iraultza horrekin bat egiten ari da. Horregatik, **lehiako elkarrizketa** bat abiarazi dugu Sopelan prozesu eta **istema industrializatuekin** alokairuko babes ofizialeko 33 etxebizitza sustatzeko proiektua idazteko, zuzendaritza fakultatiboa osatzeko eta obrak egiteko.

2021-2022 urteak erronka handiko urteak izan dira, ez datozen urteetako baino txikiagoa, eta ESG (Ingurumenekoak, Sozialak eta Gobernanzakoak) irizpideekin lan egiten jarraituko dugu, euskal herritarrek gero eta kalitate handiagoko etxebizitza-parke publiko bat eskura izan dezaten, nazioarteko estandarrei jarraituz.

1.2. JASANGARRITASUNARI BURUZKO BOSGARREN TXOSTENA

2023ko memoria hau, GRI 3.1 Gidak (Global Reporting Initiative) proposatutako gomendioei jarraitu zaie, bai iraunkortasun-memoriak egiteko eta bai eraikuntzaren eta higiezinaren sektorearen eranskinerako, adierazle zentral eta gehigarri buruzko informazioa barne, beharrezko justifikazioarekin informaziorik ez dagoen edo erakundearen izaeratik hura aplikagarria ez den kasuetan.

Global Reporting Initiative (GRI) irabazi-asmorik gabeko erakundea da, zeinak orientazioa ematen duen iraunkortasun-txostenak egiteko. Aldian behin “*Iraunkortasun-txostenak egiteko gida*” argitaratzen du, eta hori da mundu osoko erakundeek erabiltzen duten erreferentzia nagusietako bat memoria horiek egiteko.

Visesak egindako **jasangarritasunari buruzko bosgarren memoria** honetan, 2023aren aurreko bi ekitaldietako datuak eta informazioa gehitu dira, 2014, 2016, 2018 eta 2021eko memorietako datuekin batera, enpresaren ibilbidea eta emaitzen joera hobeto ulertzen lagun dezaten.

Visesaren jardunari buruzko informazio nabari guztia eskaintzen duen zentzuzko agiri orekatua egin nahian, GRI Gidan zehaztutako printzipio guztiak kontuan hartu dira txosten hau idazteko orduan:

- **Materialtasuna.** Txosten honetan emandako informazioak G3.1 gidan eta eraikuntzako nahiz higiezinatako gehigarri sektorialean azaldutako adierazle guztiak estaltzen ditu. Materialtasuna zehazteko, sozietatearen jardura, interes-taldeentzako garrantzia eta ingurunearekiko elkarreagina aztertu dira, ekonomia, gizarte eta ingurumen arloko eragin adierazgarrienak islatzeko.
- **Interes-taldearen partaidetza.** Txosten honen bidez, Visesak antzemandako interes-talde guztien informazio-premiei eman nahi die erantzuna. Erakundeak berak, hain zuzen ere, etengabeko harremana dauka haiekin, euren aurreikuspenak eta interesak zein diren jakiteko.
- **Iraunkortasunaren testuingurua.** Txosten honek Visesaren jarduna iraunkortasunaren hiru dimentsioetan islatzea dauka helburu: ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa, sektorean eta eskualdean arlo horretan dagoen egoera kontuan hartuta.
- **Zehaztasuna.** Argitalpenak behar besteko adierazle eta faktore materialak estaltzen ditu zehaztasunez, gizarte, ekonomia eta ingurumen arloko eraginak islatzeko eta interes-taldeek Visesak 2011tik 2022ra garatutako jarduna ebaluatzeko.
- **Oreka.** Txostenean, erakundearen jardunaren alde onak eta txarrak azaltzen dira, jardun orokorraren zentzuzko balioespena egin ahal izateko.
- **Erkagarritasuna.** Zabalduetako informazio nolako formatuan aurkezten den kontuan hartuta, badago Visesak urteen joan-etorrian izandako bilakaera erkatzerik eta aztertzerik. Epealdien arteko aldaketa esanguratsuak azpimarratu eta azaltzen dira.
- **Estaldura.** Honako hauxe sartu da txostenaren estalduran: alokatutako instalazioak, azpikontratutako jarduerak eta txostenaren erkagarritasunean eragina izan dezaketen beste erakunde batzuk.
- **Xehetasuna eta argitasuna.** Berton eskaintako informazioa zehatza bezain xehea da, interes-taldeek Visesaren jarduna balioesteko aukera izan dezaten.
- **Fidagarritasuna.** Memoria hau ez dute kanpoan egiaztatu. Soilik 4.1.3. atalean jasotako datuak egiaztatu dira; izan ere, urteko kontu ikuskatuen txostenetatik datoz.
- **Datuen informazio-iturria.** Iraunkortasun Txosten honetan azaldutako taula guztietan agertzen da zein den adierazleen jatorria edo iturria. Beraz, ez da datuetan antzematen ezin den zenbatespenik eta kalkulurik agertzen.

Txosten honen ezarpen-mailak erabilitako oinarrizko edukien atalekin eta kopuruarekin dauka zerikusia. Iraunkortasun Txostenak egiteko GRI Gidaren arabera, txosten honen ezarpen-maila A da, erakundearen profilari buruzko informazio ugari eta adierazle askori buruzko informazioa eskaintzen dituelako eta nola neurtu eta kudeatzen diren azaltzen duelako.

Gure lehen txostenan, ezarpen-maila hori kanpoko erakunde batek erkatu du, baina egiaztatu gabe. Txosten honek erakundearen bertan azken urteotan iraunkortasunaren arloan emandako aurrerapausoei buruzko informazioa eskaintzea du helburu nagusi. Hala ere, hurrengo memorietan erakundearen gizarte-erantzukizunean are gehiago sakontzeko konpromisoa hartu denez, ez da txosten honetan egiaztatu.

A. taula. Ezarpen-mailen taula.

	Txostenaren aplikazio-maila	C	C+	B	B+	A	A+
Oinarrizko edukiak	Profilari buruzko informazioa G3ren arabera (Produktua)	Hauei buruzko informazioa: 1.1 2.1 – 2.10 3.1 -3.8, 3.10 – 3.12 4.1 – 4.4., 4.14 – 4.15	Txostenaren kanpo-egiaztapena	C mailan zerrendaturiko irizpide guztiei buruzko informazioa, bai eta hauei buruzkoa ere: 1.2 3.9, 3.13 4.5 – 4.13, 4.16 – 4.17	Txostenaren kanpo-egiaztapena	B mailarako eskatzen diren berberak	Txostenaren kanpo-egiaztapena
	Kudeaketaren Ikuspuntuari buruzko informazioa G3ren arabera (Produktua)	Ez da beharrezkoa		Kudeaketaren Ikuspuntuari buruzko informazioa adierazle-kategoria bakoitzerako			
	Jarduera-adierazleak G3ren arabera & Sektore-gehigarrietako Jarduera-adierazleak (Produktua)	Gutxienez 10 Jarduera-adierazleri buruzko informazioa, eta gutxienez dimentsio bakoitzetik bati buruz: Ekonomikoa, Soziala eta Ingurumen-dimentsioa.		Gutxienez 20 Jarduera-adierazleri buruzko informazioa, eta gutxienez dimentsio bakoitzetik bati buruz: Ekonomikoa, Soziala, Ingurumen-dimentsioa, Giza Eskubideak, Lan-praktikak, Sozietatea, Produktuen gaineko Erantzukizuna.		Adierazle bakoitzari buruzko eta Sektore-gehigarrietako adierazleei buruzko informazioa, materialtasun-printzipioaren ildotik, edo a) adierazleri buruzko informazioa emanez, edo b) ez agertzeko arrazoia emanez.	

Iturria: Iraunkortasun Txostenak egiteko Gida. GRIko ezarpen-mailak. 3.1. bertsioa.

Memoriaren irismenari dagokionez, jasotako datuak azken hiru ekitaldiei dagozkie. Datuek Visasaren jarduera osoa biltzen dute, bulegoetako administrazio-jardueratik etxebizitzak sustatzeko jardueraraino. Hala ere, enpresa hornitzaileen datuak ez dira kontuan hartu, azpikontratutako eraikuntza-proiektuetatik eta -obretatik eratorritako ingurumen-informazioa izan ezik, kasu askotan ez da bideragarria hori lortzea. Memorian jasotako datu gehienak Visasarenak dira, eta, datu autonomikoen kasuan, iturria Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila izan da.

Visesak honelako txostena bi urtean behin egiteko konpromisoa hartu du. Horretarako, gure interes-taldeentzat interesgarria den informazioa eskainiko dugu, gizarteak gure kudeaketa eta berarekin dugun konpromisoa balioesteko aukera eduki dezan.

Eskuragarri egongo da Visasaren webgunean (www.visesa.euskadi.eus), “Gardentasun Ataria” atalaren barruan (<https://www.visesa.euskadi.eus/gardentasun-ataria/>).

2. ERAKUNDEAREN PROFILA


2.1. VISESAREN AURKEZPENA

Visesa Eusko Jaurlaritzaren sozietate publiko instrumentala da, eta **Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren** menpe dago. Beste erakunde batzuekin batera, gobernu autonomikoaren ahaleginekin bat egiten du etxebizitza eta lurzoruaren arloko eskualde-politika garatzeko, baita hiriak eraberritzeko ere.

1990ean sortua, 1992an jarduera hasi zenetik 2022ko eta abenduaren 31ra arte 16.244 etxebizitza amaitu dira EAEn.. Gaur egun, azterketa, proiektu eta eraikuntzen xede diren etxebizitzekin, Visesa erreferentziako sustatzailea da Euskadiko etxebizitza-arloan.

Visesak balantze saneatua aurkezten du, zeinak aukera ematen dion etxebizitza babestuen politikaren elementu eragile gisa jokatzeko. Baina, zifren garrantziaz harago, Visesarentzat pertsonak eta euren etxebizitza-beharrek duten garrantzia azpimarratu behar da.

Visesaren kapital soziala, 2022ko abenduaren 31n, 37,2 milioi eurokoa zen, eta honelaxe banatzen da titularitatea:



Hona hemen Visesaren zenbait mugarri eta aitorten nabarmen, herritarrentzako zerbitzua hobetzeko etengabeko bilakaeran:

B. taula. Visesaren bilakaerako mugarriak.

2020.

- Zorrotzaurreko (Bilbo) San Ignacioko lehen zubia amaitu zuen Visesak.
- Salmentako etxebizitzaren azken sustapenen kalifikazioa.
- Europako Batzordearen Berrikuntza Radarrak SmartEnCity proiektuko bi ekintza hautatu zituen berrikuntza bikain gisa: Eraikinen eraberritzea sustatzeko zerbitzu berritzailea eta herritarren parte-hartzerako tresnen sorta.
- Gobernu Korporatiboaren Sistema eta Delituak Prebenitzeko Protokoloa onestea.
- Pandemiaren zehar, zerbitzua eta jarduerari eutsi ahal izan zaie, ia etenik gabe.
- Eusko Jaurlaritzaren % 100 energia berriztagarrien kontratuan atxikitzea bulego guztietan.
- Boluetako (Bilbo) salmentarako babes publikoko 190 etxebizitzak entregatzea, eta lehen dorreko 108 BOEekin eta 63 ESrekin batera, bultzada ematen diote eremuari.

2021.

- Babes publikoko 16.019 etxebizitza amaitu genituen EAEn.
- EMAS ingurumen-erregistroa berritzea.
- Jasangarritasunari buruzko memoria berri bat argitaratzea.
- Office 365 tresna sendotzea, komunikazio eta koordinazio operatibo hobea ahalbidetuz.
- "Akatsak 0" izeneko proiektuko ekintzak sendotzea, etxebizitzaren beharrari erantzuteko helburuak finkatzea, etxebizitzaren kalitatea hobetzea eta eraikuntzako eta erabilerako patologiak saihestea ahalbidetuko duten hobekuntzak identifikatu eta ezartzeko.
- BIM metodologiako pilotuan aurrera egitea, Barakaldoko sustapen batekin, bai eta Visasaren estandarraren definizioan ere, etorkizuneko lizitazioetarako.
- Industrializazioa - 1. fasea: Merkatuaren egoeraren eta sistema industrializatuen bilakaeraren azterketa estrategikoa.

2022.

- Bilboko Zorrotzaurreko DB-3 partzela besterentzea, etxebizitza librea sustatzeko.
- Sopelako (ASU) alokairuko babes ofizialeko 33 etxebizitza (33 aBOE) eraikitzeko lehiatzeko elkarriketa abiaraztea, prozesu eta sistema industrializatuak ikertzeko, proiektua idatzeko, zuzendaritza fakultatiboa osatzeko eta obrak egiteko.
- Visesak, beste 88 erakunderekin batera, 2022-2036 aldirako Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala sinatu du; Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak sustatutako akordioa da, Euskadik etxebizitzaren arloan dituen erronkei aurre egiteko.
- ISO 9001 ziurtagiria berritzea, emaitza bikainarekin, auditoretza-taldeak ez baitu behaketarik edo desadostasunik ikusi.
- EMAS ingurumen-erregistroa berritzea, eremu horren zeharkako kudeaketa hobetuko duen ingurumen-batzorde bat abian jarrita.

Iturria: Visesa

Hurrengo bi tauletan, Visesak jasotako sari eta errekonozimenduak ageri dira, baita Visesak parte-hartze handia izan dueneko biltzarren eta argitalpenen multzoa ere.

C. taula. Visasaren sariak eta aintzatespenak.

2020.

- Europako Batzordearen Berrikuntza Radarrak Visesak SmartEnCity proiektuaren esparruan gidatutako bi ekintza aukeratu zituen berrikuntza bikain gisa:
 - 1- Visasaren zerbitzu berritzailea eraikinen eraberritzea sustatzeko. Europako Batzordearen aintzatespenak berrikuntza-lana nabarmentzen du auzo heterogeneo baten testuinguruan, non eraikinak eta etxejabeen elkarteak oso desberdinak diren eta ez dagoen etxebizitzaren jabeen elkarte bakarra bitartekari gisa, Europa erdialde eta iparraldean gertatzen den moduan (Housing Associations).
 - 2- Herritarren parte-hartzerako tresnen sorta. Pertsonengan, eraikinen energia-efizientzia hobetzean eta herritarren parte- eta esku-hartzean zentratutako proiektu ororen moduan, azken 5 urte hauetan proiektuaren hurbiltze eta hedatze integralean oinarritu da, hainbat mailatan: hiri-eskalan, auzo-eskalan, eraikin-eskalan eta azkenik pertsona bakoitzaren eskalan.

2021.

- Etxebizitza eta Lurzoru Kudeatzaile Publikoen Espainiako Elkarrekin hiru sari eman dizkio Visesari:
 - a.- "SmartEnCity Vitoria-Gasteiz. Koroatze auzoa" proiektuari saria, hiri-birgaitzearen eta -biziberritzearen kategorian.
 - b.- 1. Accesita "Babes publikoko etxebizitzetako auzokideen komunitateentzako zerbitzu energetikoak emategatik", zerbitzu publikoen kudeaketa instrumental onenaren kategorian.
 - c.- Accesita "Muliatego (Hondarribia) 65 BOEri", ingurumen-kudeaketa egokiena egin duen enpresaren kategorian.
- Euskalitek emandako Quality Innovation Award (QIA). Visesa izan da Euskadiko irabazlea sektore publikoaren kategorian. Administrazioaren zeregin berritzailea aitortzen da "sustatzaile delegatu" gisa SmartEnCity-Koroatze proiektuan, birgaitzeari bultzada emateko, birgaitze-lanen diseinu eta gauzatzeko egokia izapidetuz, kontratatuz, gainbegiratzuz eta kudeatuz, bai eta onuradunen izenean finantzatzea ere, "giltza eskuan" azken produktu bat emanez. Visesak Euskadi ordezkatzeko du nazioarteko fasean.
- Osalanek Jardunbide Egokien Aitorpena eman digu Visesak nazioarteko modalitatean.

2022.

- QIA Quality Innovation Award:
 - a.- Euskadi irabazlea (2021) SmartEncity-Koroatzea: Sustatzaile delegatua eta giltza eskuan.
 - b.- Prize aitorpena nazioarteko fasean.
- Advanced Architecture Awards – Rebuild: "Jasangarritasunen, deskarbonizazioaren eta eraikinaren energiaren autosorkuntza handiagoaren Aldes sariaren" finalista, alokairuko etxebizitza sozialen parke berriaren elektrifikazio berriztagarriaren proiektuagatik.

Iturria: Visesa

D. taula. Visesaren kongresuak eta argitalpenak.

2020.

- 2020ko ekaina. Parte hartzea "Atelier – lighthouse euskal hiriak eta followers" ekitaldian.
- 2020ko uztaila. "Basque urban regeneration - engage the community" (Interreg-Intensify proiektuak antolatuta). Visesak etxebizitzaren energia-birgaitzearen izandako esperientzia azaldu zuen, baita herritarrek SmartEnCity Koroatze proiektuan (Gasteiz) izandako parte-hartzea ere.
- 2020ko iraila. Visesaren hitzaldia "Karbonoan neutroak diren hiri adimendunei" buruzko prestakuntza-programaren nazioarteko web-mintegian, Gasteizen kasua azalduz ezarpenaren eredu gisa.
- 2020ko urria. Visesak zuzendari nagusiaren hitzaldia EHUren Etxebizitza Publikoaren masterrean.
- 2020ko urria. Visesak zuzendari teknikoaren hitzaldia EHUren Etxebizitza Publikoaren masterrean.
- 2020ko urria. Visesak AZEB proiektuaren emaitzen aurkezpena.
- 2020ko apirila. Eraikune buletinean argitaratutako AZEB metodologia.
- 2020ko ekaina. Koroatze proiektua DPA aldizkarian.
- 2020ko ekaina. AZEB - "EECN egoki baterako gida".
- 2020ko azaroa. ECCN - artikulua hauetan parte hartzea: "Instalazio termikoen jokabide errealaren ezaugarritzea. Santurtziko 32 ESEN azterketa-kasua" eta "Zubi teknikoaren eta lotutako patologien azterlana etxebizitzaren energia-birgaitzearen prozesuetan", ECCN kongresuaren artikulua eta hitzaldien liburua.

2021.

- 2021eko Martxo/Apirila: SmartEnCity proiektuari buruzko artikulua. Portugalgo “Edificios e Energía” aldizkarian argitaratua. <https://edificioseenergia.pt/>
- 2021eko iraila: Zuzendari nagusiaren parte-hartzea Rebuild Biltzarreko “El modelo residencial vasco” mahai-inguruan, eraikuntza eraldatuz.
- 2021eko iraila: Sonderborg Climate Conference, Vitoria-Gasteizko SmartEnCity proiektuaren hedapenaren emaitza aurkezteko.
- 2021eko azaroa: Etxebizitza Sozialaren Berrikuntza eta Jasangarritasunari buruzko I. Kongresua, Vitoria-Gasteizko SmartEnCity proiektuaren hedapenaren emaitza aurkezteko.
- 2021eko abendua: EiTren “Teknopolis” saioan agertzea:

2022.

- 2022ko urtarrila: Euskal Herriko Unibertsitateko Etxebizitza Masterrean parte hartzea.
- 2022ko otsaila: Aldabeko Auzogunea. Koroatze-SmartEnCity proiektuari buruzko komunikazio saioa Aldabe auzoko (Vitoria-Gasteiz) bizilagunentzat.
- 2022ko otsaila: Berrikuntzako, Jasangarritasuneko eta Energia Zerbitzuetako teknikariaren eta zuzendari teknikariaren esku-hartzeak Cadena Ser, Radio Vitoria eta Radio Euskadin, Aldabe auzoko (Vitoria-Gasteiz) bizilagunentzako Koroatze-SmartEnCity proiektuari buruzko komunikazio saioa dela eta.
- 2022ko martxo: Elkarrizketa Viseko zuzendari nagusiari, Brainsre aldizkarian.
- 2022ko apirila: Zuzendariaren parte-hartzea “Una máquina para vivir- la casa del futuro” atikuluan, Nafarroako Unibertsitateak editatutako “Nuestro Tiempo - Habitar el 2050” aldizkarian.
- 2022ko maiatza: Hitzaldia Corken (Irlanda) egindako Intensify proiektuaren tailerrean: “Visesa as “Delegated Promoter” in Coronación (Vitoria Gasteiz) One stop shop experience”.
- 2022ko maiatza: Hitzaldia Intensify proiektuaren tokiko tailerrean “Rehabilitación y regeneración urbana del barrio de Coronación de Vitoria Gasteiz”.
- 2022ko ekaina: Europako SmartEnCity proiektuaren azken hitzaldia Vitoria-Gasteizko Europa Jauregian.
- 2022ko ekaina: Hitzaldia Scalable Cities jardunaldian “De las soluciones al cambio de sistema”, IRIS Smart Cities proiektuak antolatua Utrecht (Herbehereak).
- 2022ko ekaina: Visaren parte-hartzea Workshopean: “Encuentro Digital Consejo Unidad Tecnalia”.
- 2022ko uztaila: Hitzaldia Creativity World Forum: Innovative Solutions for Smart & Sustainable Cities jardunaldian. Online.
- 2022ko uztaila: Hitzaldia “El rol de Visesa como agente rehabilitador” UPV/EHUren “Euskal Herriko eraikinen eta etxebizitzak birgaitzearen aldeko apustua” uda ikastaroan (Bilbo).
- 2022ko uztaila: BIM GTO Eraikune Batzordeari laguntzea.

2.2. VISESARI BURUZKO DATU OROKORRAK
E. taula. Visesaren oinarrizko datuak.

Sozietatearen izena:	Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A. – Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A. (Visesa)		
Forma juridikoa:	Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailean atxikitako sozietate publikoa		
Produktu/zerbitzu nagusia:	Azterlanak egitea; lurrak erostea, kudeatzea eta urbanizatzea. Babes publikoko etxebizitza sustatzea eta etxebizitzak birgaitzea. Elementu libreak merkaturatzea (lokalak, garajeak eta trastelekuak). Hirigintzako eta antolaketako laguntza teknikoa. Bere sustapenetan energia-eraginkortasuna mantentzeko eta kontrolatzeko laguntza teknikoa.		
Bulego nagusiaren helbidea:	Gamarrako atea 1A, 2. solairua (El Boulevard eraikina) - Vitoria-Gasteiz		
Telefonoa:	945 21 40 50	Faxa:	945 06 84 40
e-posta:	visesa@visesa.eus	Web orria:	www.visesa.euskadi.eus

Iturria: Visesa

Visesak EAren esparruan ematen ditu bere zerbitzuak, eta 3 bulego ditu, bezeroei banakako eta in situ arreta eskaintzeko. Bulegoetan, harrera-zerbitzua dagoenez, informazioa ematen die bezeroei, eta, aldi berean, Visesako langileenganantz bideratzen ditu bisitaldiak.

Herritarrei Arreta emateko Bulegoak:			Bulego nagusia:	Saldu osteko arreta:
Arabako BAB Tel.: 945 214 038 gasteiz@visesa.eus	Bizkaiko BAB Tel.: 946 612 620 bilbao@visesa.eus	Gipuzkoako BAB Tel.: 943 326 340 donostia@visesa.eus	Tel.: 945 214 050 visesa@visesa.eus	Tel.: 900 212 123 sap@visesa.eus

Iturria: Visesa
Herritarrei Arreta emateko Bizkaiko bulegoa

Trenbideko Etorbidea, 38, beheko solairua. 48012. Bilbo.

Herritarrei Arreta emateko Gipuzkoako bulegoa

Errotaburu pasealekua, 1-7. 20018. Donostia.

Herritarrei Arreta emateko Arabako bulegoa

Gamarrako atea, 1A. behe (El Boulevard eraikina). 01013. Gasteiz.

Vitoria-Gasteiz, Bulego Nagusia, Araba/Álava

Gamarrako atea, 1A. 2. Solairua (El Boulevard eraikina). 01013. Gasteiz.



Txosten honetan azaldutako informazioa argitzeko edo osatzeko, visesa@visesa.eus posta-elektronikoan Prozesu, Kanpo komunikazio eta Sistemetako Zuzendaritzarekin harremanetan jarri besterik ez dago.

2.3. GOBERNU-EGITURA ETA ORGANIGRAMA

Administrazio Kontseilua Visesa kudeatu, zuzendu, administratu eta ordezkatu egiten duen organoa da. Gutxienez, hiru hilean behin batzartzen da, baita enpresaren interesaren arabera beharrezkoa den guztietan ere. Horretarako, presidentek bere ekimenaz edo kontseiluko kideen zati adierazgarriak eskatuta egiten du deialdia.

2022.12.31n Administrazio Kontseiluan akziodun guztiak daude ordezkaturik: Eusko Jaurlaritza (presidentea, presidenteordea eta 4 bokal); Kutxabank (2 bokal) eta Laboral Kutxa S. Coop de Crédito (1 bokal). Visesako zuzendari nagusiak ere parte hartzen du, ahotsarekin eta boto gabe, baita Visesako zuzendari juridikoak ere, Kontseiluko idazkari gisa (ez da kontseiluko kidea). Administrazio Kontseiluko karguei ez zaie ordaintzen.

Sozietatearen Estatutuetan, honako arlo hauetako gai guztiak azaltzen dira: osaketa, izendapena eta amaiera; iraupena; bilerak; asistentzia; eta Administrazio Kontseiluaren deliberazioak. Horrez gain, Estatutueta 26. artikuluan, Administrazio Kontseiluaren eskumenak zein diren ere azaltzen da, eta, labur-labur zein aipamen moduan, honako hauek dira:

- Batzar nagusietarako deiak egitea eta haren erabakiak betearaztea.
- Sozietatea erabat ordezkatzeko.
- Zuzendaria izan ezik, sozietateko era guztietako langileak izendatzea, kontratatzea eta banatzea eta haien eskubideak, betebeharrak zein ordainsariak zehaztea.
- Sozietatearen jarduna antolatzea, zuzentzea eta ikuskatzea.
- Sozietatearen helburua betetzeko beharrezkoak edo egokiak diren egintzak eta kontratuak egitea.
- Sozietatearentzat egokiak izan daitezkeen kreditu eta mailegu eragiketak hitzartzea.
- Sozietateko aurrekontuak eta programak egitea.
- Sozietateak era guztietako bulegoen aurrean dituen eskubideen edo ekintzen erabilerari buruzko erabaki egokiak hartzea.
- Aurretiaz zehaztutako edozein modalitatepeko zuzenbide pribatuko arbitrajea, sozietatearen gaiez arduratzea.
- Zenbait laguni ahalak ematea.

2020ko martxoaren 9an, Administrazio Kontseiluak gobernu korporatiboaren sistema onetsi zuen. Sistema hori lege- eta estatutu-araudia garatu eta osatzen duten arau eta prozedurek osatzen dute, eta Eusko Jaurlaritzaren gobernu arduratsuko gidan oinarritzen da. Haren helburua da gardentasun eta kontrol handiagoa lortzea gobernu korporatiboaren organoen funtzioetan.

Sistema honako hauek osatzen dute: gobernu korporatiboaren sistema (oinarri orokorrak), Kontseiluaren araudia, Kontseiluko kideen estatutua, Kontseiluko kideen kode etikoa eta eranskinak.

Zuzendari nagusia erakundeko organo betearazle gorena izango denez, enpresaren kudeaketa zuzenduko du. Visesako zuzendari nagusiaren ahalmenak Administrazio Kontseiluak esleitzen dituenez, edozein unetan ezeztatu edo aldatu ahal izango ditu. Hona hemen Estatutueta 29. artikuluan zehaztutako eskumenen laburpena:

- Zerbitzugintza hobetzeko egokiak edo beharrezkoak diren zabalkuntzak, eraldaketak eta berrikuntzak aztertzea eta proposatzea.
- Enpresako arlo ekonomikoa modu arrunt eta egokian ustiatzeko jarduerak kudeatzea, aztertzea eta proposatzea.
- Kontseiluak eta presidentek aztertu, ezagutu, landu eta onartu beharreko gai eta agiri guztiak prestatzea, biltzea eta antolatzea.
- Presidentearen goi-zuzendaritzapean, kontseiluak hartutako erabakiak zein ebazpenak prestatzea, bideratzea eta betearazi egiten direla bermatzea.

- Ekitaldi bakoitzaren amaieran, kontseiluari bere kudeaketaren garapenari buruzko txostena bidaltzea eta kontseiluak Batzar Nagusiari bidali beharrekoa egitea.
- Beharrezkoa denean, gutunak eta agiriak bere sinaduraz baimentzea.

Haren funtzioa aurrera eramateko, Zuzendaritza Nagusiak **Visesaren Zuzendaritza Batzordearen** laguntza eta aholkularitza jasotzen ditu, eta Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailean atxikitako sozietateekin koordinatzen da, Etxebizitza Sailburuordetza buru dela.

Zuzendari nagusia eta arloko zuzendaritzetako zuzendariak Visesako Zuzendaritza Lantaldeko kideak izango dira. Gainera, jorratu beharreko gaien arabera zuzendari nagusiak deitutakoek parte hartuko dute Zuzendaritza Lantaldearen bileretan.

Visesako Zuzendaritza Lantaldeak arloko prozesuak eta zuzendaritzak behar bezala koordinatuta daudela ziurtatzea du helburu. Horretarako, kontsultarako zein aholkularitzarako eginkizunak garatzen ditu Zuzendaritza Nagusiarentzat, eta zuzendaritzetako planak, proiektuak, programak zein helburuak aztertzen ditu.

Visesako organigrama funtzionalean txertatuta ez dagoenez eta izaera estatutariorik ez daukanez, hautazkoa izango da, Zuzendaritza Nagusiaren irizpidea kontuan hartuta.

Hona hemen Zuzendaritza Lantaldean jorratutako zenbait gai:

- Ekimenak zein proposamenak zehaztea, Zuzendaritza Nagusiak Administrazio Kontseiluari bidali diezazkion eta bertan onartu ditzaten edo informazio moduan jakinarazi ditzan; esate baterako, Plan Estrategikoa; Kudeaketa Plana (hobekuntzarako proiektuen lehenespena); urteko kontuak; kontratuen esleipenak (zerbitzuak, obrak, hornikuntzak); aginte-taulak Administrazio Kontseiluari emandako informazioa; langile-taldeko lanpostu berrien sorrera, aldaketa edo desagertzea; barruko berrantolaketa; lanpostuen balioespena...
- Plan Estrategikoaren (urtekoa) eta Kudeaketa Planaren (seihilekoa) aurrerapen-mailaren jarraipena egitea; Kudeaketa Sistema Berrikusteko Txostena (urtekoa) eta EFQM autoebaluazioak aztertzea; eta Zuzendaritza Lantaldeko Aginte Taula Integralaren adierazlearen jarraipena egitea (hilekoa).
- Enpresarekin lotura zuzena duten kontuak, Zuzendaritza Nagusiak laguntza eskatu badu irizpideak finkatzeko, eta zuzendari bakoitzak laguntza hori ematen du rol bakoitzetik. Kontu horiek lotura izan dezakete jarduerarekin (lurzoruak erostearen komenigarritasuna, finantzaketak, lizitazioak, enpresa hornitzaileekiko desadostasunak edo obraren egikaritzea, salmenten prozesua, bezeroekiko harremanak eta saldu osteko zerbizua, etab.); pertsonen arloan (hautaketa-prozesuak, prestakuntza, etab.); prozesuak, kanpo-komunikazioa eta sistemak (prozedurak, tresna teknologikoak, komunikabideen arreta.); parte hartzen duten enpresekiko edo Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailean menpeko enpresekiko koordinazioa eta harremanak; eta Zuzendaritza Nagusiaren iritziz garrantzitsua den beste edozein kontu.

Visesaren taldea 89 pertsonak osatzen dute 2022ko abenduaren 31n (77 pertsona kontratu mugagabearekin eta 12 pertsona aldi baterako kontratuarekin), honako organigrama funtzional honen arabera banatuta:

1. Grafikoa. Visesaren organigrama funtzionala



2.4. XEDEA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK

Visesaren xedeak, ikuspegiak eta balioek bere helburua, asmoak eta kudeaketa-lehentasanak zehazten dituzte, baita interes-taldeekin harremanetan egoteko eta erabakitze modua ere.

MISIOA. Gure Izateko Arrazoia

Babes publikoko etxebizitzak alokairu babestuko erregimenean sustatzea eta birgaitzeko eta berritzeko ekintzak egitea, 2021-2023 Etxebizitza Gida Planean deskribatutako beharrak asetzeko, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailarekin eta beste eragile publiko edo pribatu batzuekin koordinatuta, bizigarritasun- eta jasangarritasun-irizpideekin jardunez.

IKUSPEGIA. Gure helburua

Funtsezko eragilea izatea EAEn etxebizitza-politika publikoa garatzeko, obra berria, hiri-birgaitzea eta -berrikuntza sustatuz, 2021-2023 Etxebizitza Gida Plana eta 2021-2036 Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala betetzen lagunduz, eta, horretarako, zerbitzu publikoa ematen dien kolektiboen beharretara egokitutako zerbitzu-zorroa izatea, bizigarritasun- eta jasangarritasun-irizpideekin jardunez.

BALIOAK. Gure Egiteko Modua**Pertsonak:**

- Pertsonak erreferente estrategiko gisa.
- Alokairuaren kultura eta euskal gizartearen bizimodu berriak.
- Aniztasuna eta tolerantzia.
- Gizarte-kohesioa.
- Energia-pobreziaren aurka borrokatzea.
- Finantzaketa nahikoa.
- Fiskalitate progresiboa.
- Ingurumen-kontzientziarazioa.

Parke eraikia:

- Birgaitze integralaren kultura.
- Kalitatea, berrikuntza eta jasangarritasuna (energia-efizientzia, ekonomia zirkularra eta karbono-aztarna).
- Irigarritasun unibertsala eta bizigarritasuna (barnekoa eta kanpoko).
- Industrializazioa eta sektoreko digitalizazioa.
- Enpleguaren kalitatea eta lanbide-kualifikazioa.

Gobernantza:

- Etxebizitza babestuetan inbertitzea, herrialdeko azpiegitura estrategiko gisa.
- Zerbitzu publikoa eta lidergoa.
- Sinplifikazio eta arintasun administratiboa.
- Gardentasuna, parte-hartzea eta etengabeko ebaluazioa.
- Lankidetzaren publiko-pribatua.
- Genero-ikuspegia.

PORTAERA BEHAGARRIAK. Pertsonen portaera desiragarriak.

- Pertsonak erreferente gisa.
- Enpatia.
- Lankidetzaren.
- Inplikazioa.
- Zorroztasuna.
- Egokitzeko gaitasuna.

2.5. VISESA ZENBAKITAN

Hona hemen Visesaren zenbait dimentsio nabari, ikuspegi estrategiko orokorrak kontuan hartuta:

1. taula. Visesa zenbakitan.

Sozietatearen ikuspegia	2020	2021	2022	Ald. %
Abian dauden etxebizitzak - proiektuaren lizitaziotik behin betiko kalifikaziora (kopurua)	2.120	2.268	2.180	-3,9
Eraikitzen ari diren etxebizitzak - zuinketa-aktatik obraren harrerara (kopurua)	674	677	1.330	96,5
Partikularrekin erosteko aukera ematen duen alokairuaren kontratua duten etxebizitzak (kopurua)	158	122	101	-17,2
Kontratua sinatu duten etxebizitzak guztira (kopurua)	385	631	519	-17,7
Eskritura egiten duten etxebizitzak guztira (kopurua)	357	262	301	14,9
Ikuspegi finantzarioa	2020	2021	2022	Ald. %
Sustapenak saltzeagatiko diru-sarrerak (milaka €)	34.527,5	35.029,2	43.691,9	24,7
Ekitaldiko emaitza - BDI (€)	461.951	9.285.955	960.724	-89,7
Marjina gordinaren araberako errentagarritasuna (%)	%25,1	%41,5	%22,2	-46,4
Funts propioen errentagarritasuna (%)	%0,58	%11,64	%1,08	-90,7
Bezeroen ikuspegia	2020	2021	2022	Ald. %
Bezeroen gogobetetasun-indize orokorra inkestako atributuen arabera haztatutakoa (E 0:100)	63,0	70,9	70,0	-1,3
Eskrituratu ondoren lehenengo urtean jasotako eta Visesak onartutako gorabehera teknikoaren batez besteko kopurua (kop.)	3,9	2,8	6,8	139,9
Barruko prozesuen ikuspegia	2020	2021	2022	Ald. %
Estandarraren gaineko %40tik gorako aurrezki energetikoaz urteko sailkatutako etxebizitzak - A edo B sailkapena (%)	%100	%100	%100	0,0
Pertsonen ikuspegia	2020	2021	2022	Ald. %
Langile-taldeko pertsonak urtean (kop.)	85	86	89	3,5

Iturria: Visesa

3. ERAKUNDEAREN GIZARTE-ERANTZUKIZUNAREN IKUSPEGIA

3.1. ESK ESTRATEGIA. ERANTZUKIZUN SOZIAL KORPORATIBOA VISESAN

Visesak Enpresen Gizarte Erantzukizunarekin eta Jasangarritasunarekin duen konpromisoa erakundearen misioan, ikuspegian eta balioetan bertan adierazten da, eta 2021-2024 Plan Estrategikoan zehaztutako ardatz eta helburu estrategiko eta operatiboetan islatzen da.

Enpresaren izateko arrazoia (misioa) eta estrategia (ikuspegia) nora bideratu zehazteko, beharrezkoa da Visesak intereseko taldeak eta kolektiboak identifikatzea eta haien itxaropenak eta beharrak sistematikoki ezagutzea.

Ildo horretan, Plan Estrategikoa egiteko, kontuan hartu dira identifikatutako interes-talde guztien eskakizunen azterketaren ondorioak, Visesak interes-taldeetatik edo haiekiko elkarreraginaren ondorioz duen informaziotik lortutako informazioan oinarrituta.

Hauek dira **identifikatutako interes-taldeak**:

- Sustapeneko bezeroak.
- Eusko Jaurlaritza.
- Akziodunak/Administrazio Kontseilua.
- Lurzorua hornitzen duten enpresak.
- Pertsonak.
- Obra, zerbitzu eta horniduren enpresa hornitzaileak.
- Gizartea, oro har.
- Erakunde publikoak.
- Hiri-birgaitze eta -berrikuntzako bezeroak.
- Elkargo profesionalak, talde profesionalak, eraikuntza-sektoreko elkarteak.
- Erakunde aliatuak.
- Beste eragile sustatzaile batzuk.
- Komunikabideak.

Visesaren ustez, bere interes-talde guztiekiko komunikazioa estrategikoa da, haiekiko harremanari esker ingurunea ezagutzen duelako eta alderdi guztientzat onuragarriak bezain bateratuak diren helburuetarantz bideratzen duelako erakundearen kudeaketa.

Horretarako, hainbat iturri, bitarteko eta kanal erabiltzen ditu alde interesdunekin harreman zuzena izateko, eta Visesari buruz duten iritzia eta erakundeak emandako zerbitzuari buruz dituzten beharrak eta itxaropenak zuzenean ezagutzeko aukera ematen du. Aldizkakotasuna barnetik ezarrita dago, eta definitutakoa baino maizago egin daiteke.

F. Taula. Iturriak, Baliabideak eta Komunikabideak.

Interes-taldeak	Iturriak, Baliabideak eta Komunikabideak
Sustapeneko bezeroak	Zuzendaritza Batzordea, jarraipen-bilerak, plan estrategikoak, kudeaketa-planak, Herritarrei Arreta emateko Bulegoak (aurrez aurrekoa), salmenta osteko arreta-zerbitzua, Call-Center, webgunea, gogobetetze-inkestak, Focus-Group eta beste tresna batzuk, telefonoa, faxa eta herritarrei arreta emateko posta elektronikoa, gizarte-entzutea, QRS zerbitzua (kexak, erreklamazioak eta iradokizunak).

Interes-taldeak	Iturriak, Baliabideak eta Komunikabideak
Eusko Jaurlaritza	Eusko Jaurlaritzako Saileko arduradunen (KEB, Etxebide edo ordezkariak) eta Visesak arduradunen arteko bilerak, informazio-trukea eta adierazleen reportinga, koordinazio-bilerak, bilera espezifikoak, ohiko kontaktuak.
Akziodunak/Administrazio Kontseilua	Batzar Nagusiak, Administrazio Kontseilua, Etxebizitza Saileko arduradunen, Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuen edo finantza-erakundeen eta Visesak arduradunen arteko ordezkariak, Administrazio Kontseiluari eta Sailburuordetzari egindako txostenak, aldizkako txostenak (gobernu arduratsuen gida), ohiko kontaktuak.
Lurzorua hornitzen duten enpresak	Zuzendaritza Batzordea, Eskaintzak (kontratatzailearen profila), bisitak, foroak eta kontaktuak, aldizkako bilerak, webgunea eta gardentasun-ataria.
Pertsonak	Zuzendaritza Batzordea, Berezi-Bilerak Zuzendaritzarekin eta arduradun eta kolaboratzaileen artean, bilerak langile guztiarekin, Bilerak Visesak pertsonekin eta haien artean (prozesua, proiektuak edo kudeaketa-taldeak), ohiko harremanak, Intranet, lan-giroari buruzko inkestak, inkesta psikosozialak, ad-hoc inkestak (PRL, mugikortasuna edo informazio-sistemak), Enpresa Batzordea eta Segurtasun eta Osasun Batzordea, Berdintasun Batzordea, Euskara Batzordea, etengabeko hobekuntzarako tresnak (SIG, ISO edo EMAS).
Obra, zerbitzu eta horniduren enpresa hornitzaileak	Zuzendaritza Batzordea, Eskaintzak (kontratatzailearen profila), bisitak, foroak eta kontaktuak, Produktu Batzordea, aldizkako bilerak, webgunea eta gardentasun-ataria, partekatutako proiektuetan parte hartzea, memoriak argitaratzea (kontuak, kudeaketa edo jasangarritasuna).
Gizartea, oro har	Etxebizitza Gida Plana, Plan Estrategikoa, Kudeaketa Plana, SIG Berrikustea (kalitatea eta ingurumena), Ingurumen Batzordea, webgunea eta gardentasun-ataria, partekatutako proiektuetan parte hartzea, memoriak argitaratzea (kontuak, kudeaketa edo jasangarritasuna), foro eta ekitaldi sozialetan agertzea, jardunaldiak antolatzea (kalitatearen Europako astea), bilerak auzo-elkarteekin eta beste kolektibo batzuekin, gizarte-babesletzak (Bolivia, Haiti edo Kongo), Herritarrei Arreta emateko Bulegoak.
Erakunde publikoak	Zuzendaritza Batzordea, Erakundeetako arduradunen (Udalak edo Aldundiak) eta Visesak arduradunen arteko bilerak, koordinazio-bilera espezifikoak, ohiko kontaktuak eta informazio-trukea.
Hiri-birgaitze eta -berrikuntzako bezeroak	Zuzendaritza Batzordea, jarraipen-bilerak, plan estrategikoak, plan operatiboak, bezeroari arreta emateko bulegoak (aurrez aurrekoak), salmenta osteko arreta-zerbitzua, Call-Center, webgunea, telefonoa, faxa eta herritarrei arreta emateko posta elektronikoa, gizarte-entzutea, QRS zerbitzua (kexak, erreklamazioak eta iradokizunak).
Elkargo profesionalak, talde profesionalak, eraikuntza-sektoreko elkarteak	Zuzendaritza Batzordea, goi-mailako ordezkariak AVS, Eraikune edo Acliman, bilerak elkargo profesionalekin.
Erakunde aliatuak	Zuzendaritza Batzordea, azoka sektorialak, irakasle eta hizlari gisa parte hartzea, partekatutako proiektuetan parte hartzea (Eraikal, UPV-EHU, Tecnalia edo lhobe), elkarteetan parte hartzea (AVS edo Q. epea), Europako lankidetzaproiektuetan parte hartzea.
Beste eragile sustatzaile batzuk	Zuzendaritza Batzordea, Zaintza teknologikoko sistemak.
Komunikabideak	Zuzendaritza Batzordea, Elkarrizketak, irratia eta prentsa-oharrak, Sareetako komunikazioak (Irekia), obra- eta publizitate-kartelak, bilera espezifikoak.

3.2. GOBERNU ONA ETA GARDENTASUNA

3.2.1. Arriskuen Kudeaketa, Gobernu Arduratsuaren Gida eta Barne Kontrolaren Eskuliburua

2009az geroztik, Visesak Eusko Jaurlaritzaren "Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko Erakunde, Sozietate eta Fundazioetako Gobernu Arduratsurako Gidarekin" egin du lan, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak (KEB) gidatuta. Ekonomiaren, ingurumenaren eta gizartearen kudeaketa modu eraginkorrean egin nahi du, Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA) ezartzen dituen gardentasun- eta gobernu onaren printzipioak betez.

Era berean, "EAEko sektore publikoko erakunde, sozietate eta fundazioetan barne-kontrolaren funtzioa ezartzeko eta garatzeko eskuliburua" jarri zen abian, arriskuak kudeatzeko eta barne-kontrolerako sistema bat ezarriz.

Visesak ekimen horiekiko konpromisoari eusten dio, hiru hilean behin Eusko Jaurlaritzako Kontrol Ekonomikoko Bulegoari ezarpen-mailaren berri emanez.

Azken urteetan, bi urtean behin egiten diren autoebaluazioen ondoriozko ekintza-planak egin dira, giden % 100 betetzera hurbiltzeko beharrezkoak diren ekintzak eta hobekuntza-proiektuak identifikatuz. Horrela, adibidez, Gobernu Korporatiboaren Sistema bat onesteak edo 2020an Barneko Jokabide Kode bat egiteak aurrerapen nabarmena ekarri dute Gobernu Arduratsuaren Gidan jasotzen diren neurrietan.

Urte hauetan, Visesak gidekin duen konpromisoari eutsi zaio, eta hiru hilean behin Eusko Jaurlaritzako Kontrol Ekonomikoko Bulegoari ezarpen-mailaren berri ematen jarraitu du.

Visesaren arriskuen kudeaketa

Arriskuen kudeaketako eta barne-kontrolerako sistematikaren arabera, Visesak arriskuen eta aukeren mapa bat du, eta honako arlo hauek lehenesten ditu: prozesuak, estrategia, compliance, informazioaren segurtasuna, datuen babesa eta ingurumena.

Lehenespen horretarako kontuan hartu diren irizpideak hauek izan dira: gertatzeko probabilitatea, horren gaineko kontrola, prozesuan eragin handiagoa izatea eta interes-taldeetan izandako eragina.

Lehenetsi ondoren, erakundearen prozesuekin lotutako arriskuen mapa bat dago. Hori egiteko arrisku bakoitzeko fitxa bat definitu da. Arrisku-fitxa horren barruan, arriskuak minimizatzeko beharrezkoak diren urte anitzeko ekintza-planak ezartzen dira.

2021ean, arriskuen eta aukeren azterketa orokorretik abiatuta, urte hasieran arrisku eta aukera horien azterketa egin zen, aurreko kudeaketa-plana eta ingurumen-programa itxi ondoren, eta arriskueta aldaketa bat egitea (arriskuren bat lehenestea aldatu zen) eta aukera berriren bat sartzea erabaki zen; izan ere, horiek tratatzeko proposatutako ekintzak modu eraginkorrean egin ziren arren, trantsizio-urte horretan Visesak oraindik jarduteko tarte zuela pentsatu zen, arriskuak minimizatzeko eta aukerak aprobetxatzeko.

2022an, 2021-2024 aldirako Arriskuen Mapa identifikatu da. Mapa hori AMIAN jasotako Mehatxuen eta Ahulezien azterketarekin lotutako diagnostiko-fasean identifikatutako arriskuen kualifikaziotik; interes-taldeekin lotutako arriskuetaetik eta aurreko ziklo estrategikoan identifikatu ziren arriskuetaetik abiatuta definitu da. Horretarako, Arrisku Estrategikoen Mapara eraman dira onartezintzat jotzen diren arriskuak.

Arriskuen Mapa identifikatu ondoren, Visesaren Kudeaketa Sistema Integratuan jasotako Arriskuak Kudeatzeko prozedura aplikatzen da, eta, horrela, ekintzen eta kontrolen fitxa bat sortzen da, jarraipena egiteko. Prozedura hori bat dator ISO 9001:2015 arauan, EMAS erregelamenduan eta Eusko Jaurlaritzaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren barne-kontrola ezartzeko eta garatzeko eskuliburuan adierazitako baldintzekin.

3.2.2. Kapitalen zuriketaren prebentzioa

Kapitala zuritzea eta terrorismoaren finantzazioaren prebentzioaren inguruko apirilaren 28ko 10/2010 Legea betez, Visesak aurrera eramaten duen jarduerari erantzuten dioten neurri eta prozedurak ezarri dira.

Barne Kontrol eta Komunikazio Organoa (OCIC) Administrazio Kontseiluak sortu zuen 2006ko maiatzaren 2an, eta haren funtzioak araudian jasotzen dira.

Urtero, Barne Kontroleko Organoak (OCI) kapitalen zuriketaren eta terrorismoaren finantzaketaren aurreko arriskuaren autoebaluazio-txostenaren berrikuspena egiten du, erakundearen eragiketetan edo bezeroen tipologia egon daitezkeen aldaketak hautemateko. Txosten berri eta eguneratu bat idazten da, eta arrisku errealearen balioa aztertutako azken aldiaren garatutako eragiketetara egokitzen da. Visesak esleitutako arriskuan oinarrituta, ezarritako arriskuarekin bat datozen neurriak hartu eta ezarri behar dira.

2021ean eta 2022an, Barne Kontroleko Organoaren (BKO) aldizkako bilerekin jarraitu da. Halaber, kapital zuritzearen prebentzioaren arloko prestakuntzarekin jarraitu da Visesako langile guztientzat.

3.2.3. Delituen prebentzioa

2016an, Administrazio Kontseiluak eskatuta, Delituak Prebenitzeko Eredu bat egin zen, baita diagnostiko bat eta ekintza-plan bat ere.

Administrazio Kontseiluak Gobernu Korporatiboaren Sistema onetsi zuen 2020an, gobernu-organoen zereginetan gardentasun eta kontrol handiagoa lortzeko helburuarekin. Sistema hori lege- eta estatutu-araudia garatzen eta osatzen duten arauak eta prozedurak osatzen dute, eta Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Arduratsua gidatzen da. Zehazki, honako hauek osatzen dute: oinarri orokorrak, Kontseiluaren erregelamendua, sailburuen estatutua, sailburuen kode etikoa eta eranskinak.

Urte horretan bertan, Administrazio Kontseiluak Delituak Prebenitzeko Protokoloa onartu zuen. Protokolo horren helburua da garatutako jardueraren deskribatzea eta ezarritako kontrolak identifikatzea, legetik kanpoko jardueraren arriskua prebenitzeko edo arintzeko. 2021erako ezarritako eta indarrean zegoen.

2021ean eta 2022an, Salaketan Kanala eta Postontzi Etikoa jarri dira martxan, hainbat kanalen bidez.

3.2.4. Gardentasun Ataria

Zerbitzurako ikuspegi bikoitzarekin sortu zen: balio publikoa sortzea eta gardentasunaren kultura-ereduaren alde egitea baliabide publikoak erabiltzerakoan.

Visesak benetan uste du jarduerari eta gobernu onari buruzko informazio periodiko eta eguneratua argitaratzeak (publizitate aktiboa) eta herritarren esku egoteak euren informazio-eskaerei erantzuteko (informazio publikorako sarbide-eskubidearen eskaerak) Visesarekiko konfiantza hedatu eta indartzen duela. Horrez gain, herritarren parte-hartzerako kultura arduratsua sortzea errazten du.

Eremu horretan Q-eparekin (kudeaketa aurreratuaren aldeko Euskadiko erakunde publikoak) aritzen da lankidetzan, publikitate aktiboaren ebaluazio-eredu bat zehaztu, mantendu eta hobetzen. Ebaluazio horretan, Visesak emaitza bikainak lortu ditu.

Azken urteetan, nabarmen aurreratu dugu argitalpenean informazioa ere euskaraz argitaratzeko, baita atariko edukiak eguneratuta izateko ere.

3.2.5. Dokumentuak artxibatzea eta kudeatzea

2021ean eta 2022an, Visesaren jarduera digitalizatzeko plana hedatzen jarraitu da. Testuinguru horretan, Visesaren artxibo digitala jarri da abian, Eusko Jaurlaritzaren DOKUSI dokumentu-kudeaketako sistemari integratua, sistema horren eta Visesaren kudeaketa integrareko tresna informatikoaren arteko komunikazioa gaituz. Horrela, digitalizatutako dokumentuak aplikazio informatikoan txertatzen dira, espedienteen fitxen barruan.

Funtzionaltasun hori, hasiera batean, abalei buruzko informaziorako pilotu gisa ezarri da, eta, berehala, eskritoretarako, hitzarmenentarako, bezeroei arreta emateko espedienteentarako eta sustapenentarako hedapen orokorarekin jarraitu da.

Plan horren esparruan, Visesak dokumentazio-erregistro berria ezartzea lizitatu eta adjudikatu du, haren webgunearen bidez erregistro elektronikoa eta telematikoa ahalbidetuko duena.

Era berean, Visesaren sailkapen-taula eta dokumentuak garbitzeko egutegia EAEko Administrazio Publikoaren Dokumentazioaren Baloraziorako, Aukeraketarako eta Dokumentaziora Jotzeko Batzordeari (COVASAD) aurkeztu zaizkio, eta batzorde horrek onetsi egin du, eta EHAAn jasota dago. COVASADek onetsitako ISAD fitxak egiten eta hobetzen jarraitzen da, dokumentazio digitalaren kudeaketan hobeto aplikatzeko.

Aurreko urteetan bezala, Visesaren instalazioetan kontserbatzeko epea bete duen dokumentazio guztiaren urteroko transferentzia egin da Visesaren bitarteko artxibotik Euskadiko Artxibo Gordailura, eta liburutegiak mantentzen eta artxibo instituzionala material berriekin zabaltzen jarraitzen da, Visesaren jarduera soziala testuinguruan jarritz.

3.2.6. EMAS Europako Erregelamendua eta UNE-EN ISO 9001 Arauak

Visesak kudeaketa-sistema integratua du, eta horren auditoretza egiten du urtero; horrez gain, ziurtagiria du UNE-EN ISO 9001:2015 eta Europako EMAS 1221/2009 Araudira egokitu du, Europako (EB) 1505/2017 eta (EB) 2026/2018 araudiarekin aldatuta. Sistema hori ezartzeak kalitate- eta ingurumen-baldintzak betetzea eta prozedura eta irizpideen sistematizazioa ziurtatzen du, eta etengabeko hobekuntzaren konpromisoa egikaritzen du ingurumena babesteko eta jarduerarekin lotutako eraginak ahalik eta gehien murrizteko.

Visesa EMASen erregistratutako enpresa da. EMAS araudiak aukera ematen die erakundeei euren ingurumen-jokabidea neurtu, ebaluatu, jakinarazi eta hobetzeko. Ziklo hori urtero betetzen da EMAS ingurumen-adierazpenaren bidez, zeina interes-taldeek esku jartzen den Gardentasun Atariaren bitartez. (<https://www.visesa.euskadi.eus/gardentasun-ataria/>).

2021ean eta 2022an zehar, EMAS erregistroaren jarraipenaren lehen eta bigarren kanpo-auditoretza egin dugu, bai eta UNE-EN ISO 9001 Arauaren arabeko kalitatearen kudeaketa-sistemaren birertifikazioa eta jarraipenaren lehen auditoretza ere. Horietako bakar batean ere ez da desadostasunik egon.

Kanpo-auditoretza honako hauek aipatu dira indargune gisa; ingurumen-alderdiak identifikatzeko eta ebaluatzeko garapen-maila, proiektuetako ingurumen-kontsiderazioak (ekodiseinua, energia-efizientzia, etab.) eta kontratatutako eraikuntza-enpresa guztiak ISO 14001n ziurtatuta egotea.

3.2.7. EMAS ingurumen-adierazpena

Ingurumen-adierazpenaren helburua da jendeari eta interesa duten beste alde batzuei informazioa ematea. Visasaren ingurumen-eraginari eta -portaerari buruz, eta arlo horretako jarduna etengabe hobetzea. Informazio egiazkoa eta gardena modu argi eta koherentean azaldu behar da, baita alde interesdunen itxaropen eta beharretara egokituta ere. Beste baliabiderik ez duten pertsonen informazioa eskuratu ahal izango dutela bermatzeko, idatziz aurkezten da.

2022ko irailean eta 2021ean, EMAS ingurumen-adierazpena baliozkotu da (Bureau Veritas enpresa balidatzailearen zuzendaritza teknikoak eta lhobek berrikusia).

3.2.8. Datuak babesteko Europako erregelamendua

2021ean, datu pertsonalak babesteko auditoria bat egin zen, prozedurak, klausulak, kontratuak eta bestelako tresnak behar bezala ezarri zirela egiaztatzeko, eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikora egokitu zirela egiaztatzeko, eta emaitza ona izan zen.

2022an, datu pertsonalen babesa erabat berrikusi da laneko aplikazioetan (web edo intranet), prozedurak, klausulak, kontratuak eta beste tresna batzuk behar bezala ezarri direla egiaztatzeko, eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikora egokitzen direla egiaztatzeko, eta emaitza ona izan da. Era berean, Visasaren inprimakietan sartutako klausulak eta artikulak berrikusi dira, lege berriak argitaratzean oinarrituta. Eguneratze horiek webgunearen hainbat ataletan islatzen dira, eta, batez ere, Gardentasunaren Atarian eskuragarri dagoen RATean.

Datuak babesteko taldeak 33 kontsultari erantzun die Visasaren barne-eremu guztietan, interes-taldeen datu pertsonalen babesa bermatzeko. Era berean, bezeroen datuak babesteko beharrezko tresnak ezarrita daude proiektu berrietan, hala nola Next funtsen laguntzen kudeaketa.

3.2.9. Energia-iraunkortasunaren dekretua

EAEko sektore publikoaren jasangarritasun energetikoari buruzko irailaren 22ko 254/2020 Dekretuari erantzunez, Visesak Neurrien Plan bat du datozen urteetarako, EEEK egindako auditoretza energetikoaren ondorioz, eta energia-aurrezpen eta -efizientzia handiago du helburu.

Planaren ekintzetako bat ibilgailuen parkea berritzera bideratuta dago; 2022an, Visesak dagoeneko baditu 2 ibilgailu elektriko, 0 kalifikazioa duten 10 hibrido entxufagarri (2021ean baino 6 gehiago) eta PGL 1, bai eta Vitoria-Gasteiz barruko joan-etorrietarako erositako 2 bizikleta elektriko ere. Era berean, ibilgailu elektrikoetarako 11 kargagailu jarri dira bulego nagusietako aparkalekuetan, flota elektrikoari karga-zerbitzua emateko, eta aurretik instalatutakoei gehitzen zaizkie (3 bitoma 6 plazarako Zentrlean eta 3 bitoma 6 plazarako Bizkaian).

Neurri horiekin, Visasaren helburua da "in labore" lekualdaketetan mineral fosilen kontsumoa murriztea, eta, gainera, Alokabiderekin eta Urarekin batera garatutako mugikortasun-plan bat abiaraztea. Plan horrek gure lekualdatzeen ohiturak "in itinere" aztertuko ditu, eta CO₂ kontsumoak eta emisioak murrizteko neurriak proposatuko ditu.

Beste ekintza bat bulegoetako argiteria LED formatuan berritzea da, kontsumo elektrikoan aurrezten laguntzeko. 2021ean instalazioaren % 20 berritu zen eta 2022an beste % 40 berritu da (gainerako % 40a 2023rako aurreikusita dago).

Gainera, kontsumoen arloan erabakiak hartzeko, beharrezkoa da datu zehatzak izatea. Elektrizitate-kontsumoak kudeatzeko sistema bat ezartzeko lehen urratsak ematen ari dira (kontsumoei buruzko datuak eremuaren arabera, instalazio motaren arabera: argia, airea, inprimagailuak eta bulegoak). Halaber, 2022an inprimagailuak konfiguratu dira kontsumoei buruzko datuak lortu ahal izateko eta paperaren eta beste kontsumigarri batzuen kontsumoa murrizteko erabakiak hartzeko.

3.3. ERRONKAK ETA HELBURU ESTRATEGIKOAK

Visesako jarduerak berak eragin sozial esanguratsua dauka, Eusko Jaurlaritzak etxebizitza publikoaren sustapenaren alde eta herritar guztientzako etxebizitza duinaren lorpenaren helburu sozialaren bultzadaren alde egin duen apustuaren barruan dagoelako kokatuta.

Bestetik, Visesak sozietate publikoen betebeharra hartzen du bere gain baliabide publikoak arduraz kudeatzeko orduan. Horretarako, egokitasunaren, eraginkortasunaren eta gobernu arduratsuaren irizpideak ezartzen ditu.

G. Taula. 2021-2023 Etxebizitza Gida Planaren ardatzak eta estrategiak.

1. ARDATZA. Euskadin **arrazoizko alokairua** sustatzea.

Estrategiak	1.1. Babes publikoko etxebizitzaren parkea handitzea, ekimen publikoan alokairuaren aldeko apustu eskusiboa eginez.
	1.2. Arrazoizko etxebizitza eskuratzen dela bermatzeko baliabideen eta prestazioen sistema garatzea.
	1.3. Hutsik dauden etxebizitzak mobilizatzea.

2. ARDATZA. **Bizitegirako eraikin**-parkearen gaineko ekintzak.

Estrategiak	2.1. Eraikin- eta etxebizitza-parkea birgaitzea.
	2.2. Eraikuntzan eta birgaitzean kalitatea, berrikuntza eta jasangarritasuna sustatzea.
	2.3. Eraikuntzaren sektorea eta enpleguaren kalitatea indartzea.
	2.4. Hiria Birgaitzeko Hirigintza Sozietateekin, udalekin eta etxebizitzako sozietate publikoekin koordinatzea, herritarrak hobeto artatzeko eta eragile birgaitzailearen eta birgaitze integralaren figura sustatzeko.

3. ARDATZA. Erakundeen **governantza**- eta **koordinazio**-sistemak.

Estrategiak	3.1. Governantza- eta jarraipen-sistema.
	3.2. Zerga- eta finantza-politika babes publikoko bizitegi-sistema garatzeko.
	3.3. Etxebizitza-politiketan koordinazio sistemak.

Iturria: Etxebizitzaren Euskal Behatokia. 2021-2023 EGP

Hausnarketa estrategikoko prozesua egin ondoren, Visesaren esparru estrategiko berria proposatu zen 2021-2024 bitarteko aldirako, eta haren egitura estrategikoa 3 ardatz estrategikotan, 5 estrategiatan eta 12 jarduera-ildotan oinarritzen da. Estrategia neurtzeko, urteko proiektuak eta aginte-taula osatzen duten adierazleak (jarraipena eta neurketa egiteko) erabil daitezke.

H. Taula. 2021-2024rako Visesaren ardatz estrategikoak, estrategiak eta ildoak.

1. ARDATZA. Euskadin arrazoizko alokairua sustatzea.

1.1. Estrategia. Babes publikoko etxebizitzak alokairuan soilik sustatzea, etxebizitzaren legea betez, 2021-2023 EGPn jasotakoaren arabera, parke publikoa handitzeko.

1.1.1. ildo. Lurzorua edo hegalak erakartzeko lanak egitea, alokairu babestuko etxebizitzak sustatzeko premiei erantzuteko.

1.1.2. ildo. Alokairuko babes publikoko etxebizitzak sustatzea, taldearen eta lurraldearen arabera eskariaren ezaugarrietara egokituta, 2021-2023 EGPn zehaztutakoari jarraiki.

1.1.3. ildo. Alokairuko babes publikoko etxebizitza Alokabideren eta haren maizter/eskatzaileen beharretara egokitzea.

2. ARDATZA. Bizitegi-eraikin parkearen eta hiri-berrikuntzako eremuen gaineko ekintzak.

2.1. Estrategia. Eraikuntzan eta birgaitzean kalitatea, berrikuntza eta jasangarrtasuna sustatzea, eraikuntzaren sektorea eta enpleguaren kalitatea indartuz.

2.1.1. ildo. Etxebizitza publikoak sustatzeko arkitektura-zerbitzuak lizitzatzeko eta kontratatzeko baldintzak etengabe hobetzen jarraitzea.

2.1.2. ildo. Energia-efizientziako irizpideak aplikatzen jarraitzea, ingurumen-eragina murriztea Visesaren esku-hartzeetan, eta irisgarritasuna, ekonomia zirkularra, jasangarrtasuna, bizigarritasuna eta etxebizitza-diseinurako ikuspegi berriak sustatzea, Bizigarritasunari buruzko Dekretuarekin bat etorrituz.

2.1.3. ildo. Eraikuntzako eta birgaitzeko eraikuntza-prozesuen industrializazioa sustatzea.

2.2. Estrategia. Etxebizitza-parkea birgaitzea, beste eragile batzuekin koordinatuta.

2.2.1. ildo. Sailari laguntzea etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko laguntzak kudeatzen, birgaitze-bulego eta erakunde laguntzaile gisa (L1, L2 eta L3 Sailaren laguntzak + Next Generation funtsen laguntzak).

2.3. Estrategia. Hiri-berrikuntzako proiektu estrategikoekin jarraitzea.

2.3.1. ildo. Hiria berritzeko proiektu estrategikoetan parte hartzea, beste erakunde-eragile batzuekin koordinatuta.

3. ARDATZA. Gobernantza- eta koordinazio-sistemak.

3.1. Estrategia. Erakundeen eta barneko gobernantza- eta koordinazio-sistemetan parte hartzea eta horiek garatzea.

3.1.1. ildo. Etxebizitza Sailarekin eta Alokabiderekkin estuki lankidetzan aritzea.

3.1.2. ildo. Visesa garatzea, finantza aldetik eraginkorra, berritzailea, lehiakorra eta jasangarria den sozietate publiko gisa, araudia betetzen dela bermatuz.

3.1.3. ildo. Visesak gizarteari egiten dion ekarpena baloratzea.

3.1.4. ildo. Gaitutako eta Visesarekin konprometituta dauden pertsonak izatea.

Iturria: 2021-2024 Visesaren Plan Estrategikoa

Visesaren ustez, estrategiak dinamikoa izan behar du, eta etengabe egokitu behar da egingo diren aldaketen eskatzen dituzten beharretara, bai barnean eta bai ingurunean. Horretarako, urtero plan estrategikoarren helburuen betetze-mailaren jarraipena egiten da, zehaztutako adierazleak datuen analisiaren bidez.

2.1. taula. Plan estrategikoa betetzea.

Plan Estrategikoa	2021	2022	2023	2024	Legedia betetzea
1. ARDATZA betetzea (%)		%81			
2. ARDATZA betetzea (%)		%75			
3. ARDATZA betetzea (%)		%100			
Urteko plan estrategikoa betetzea (%)	%82	%89,3			

Iturria: Visesa

Urteko kudeaketa-plan bakoitzaren proiektuen jarraipenak, urte anitzeko plan estrategikoaren helburu operatiboekin lerrotatuta, aukera ematen du egindako jarduera eta proiektuen arteko kausa-ondorio harremanak eta zehaztutako estrategia lortzeko aurrerapenak aztertzeko. Beraz, Visesak etengabeko hobekuntzaren zikloaren metodologia aplikatzen du (PDCA) plangintza estrategikoan.

2.2. taula. Kudeaketa-plana betetzea.

Kudeaketa Plana	2020	2021	2022	Ald. %
Urteko kudeaketa-plana betetzea (%)	%86,1	%82,0	%87,0	6,1
Urteko kudeaketa-planaren hobekuntza-proiektuak (kopurua)	121	102	115	12,7

Iturria: Visesa

3.4. KUDEAKETA BIKAINERAKO TRESNAK

Kudeaketaren esparruan, Visesak honako tresna hauek ezarri ditu erakundearen kudeaketa hobetzeko:

- **2021-2024 Esparru Estrategikoa**, Visesaren lan-ildoak ezartzen dituena, Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialetik eta 2021-2023 Etxebizitza Gida Planetik eratorritakoak, 2021-2024 plan estrategikoaren eta urteko kudeaketa-planen definizioan gauzatzen dena.
- **Eusko Jaurlaritzako Kudeaketa Aurreratuaren Eredua eta Kalitatea Kudeatzeko Sistema ISO 9001 arauaren arabera**. Bikaintasunaren funtsezko kontzeptuak dituzte helburua, eta, euren artean, honako hauexek nabarmentzen dira: etorkizun iraunkorra sortzea, pertsonen talentuaren bidez arrakasta lortzea eta, urteen joan-etorrian, emaitza bikainei eustea berrikuntzaren nahiz etengabeko ikaskuntzaren bitartez.
- **Ingurumena Kudeatzeko Sistema**, EMAS Europako Ingurumen Erregelamenduarekin erregistratua, ISO 14001 Arauaren baldintzak jasotzen dituena, Visesan garatutako jardueretan ingurumen-jarduna hobetzeko.
- **Gobernu Arduratsurako Eredua**, “Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakunde, sozietate eta fundazioen gobernu arduratsurako gida” eskakizunen betearazpenaren adierazgarri. Kontrol Ekonomikoko Eusko Jaurlaritzaren Bulegoak segimendua egiten du.
- **Arriskuen Kudeaketarako eta Barruko Kontrolerako Eredua**, antzemandako arrisku nagusiak eta honako honexekin lotutako faktoreak jorrazteko: estrategia zein plangintza, erakundeko gobernu, eragiketak nahiz azpiegiturak, epeen betearazpena, erabakiak hartzeko informazioaren igorpena, etab. Hori guztia “Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoari dagozkion erakunde, sozietate eta fundazioetan barneko kontrolaren funtzioa ezarri eta garatzeko eskuliburuan” ageri da, eta haren jarraipena Eusko Jaurlaritzaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egiten du.

- **Gobernu korporatiboaren sistema**, gardentasun eta kontrol handiagoa lortzeko gobernu korporatiboaren organoen funtzioetan. Ereduak barne jartzen ditu gobernu korporatiboaren sistemaren oinarri orokorrak, Kontseiluaren araudia, Kontseiluko kideen estatutua, Kontseiluko kideen kode etikoa eta eranskinak.
- **Gardentasun Ataria**, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu egokiari buruzko abenduaren 9ko 19/203 Legea.
- **Kapitalen Zuriketaren Prebentziorako Eredua**, Kapitalen Zuriketaren Prebentzioari buruzko apirilaren 28ko 10/2010 Legearen betearazpenaren adierazgarri. Era berean, terrorismoaren edo delituzko beste jarduera batzuen finantziazioan ez erabiltzea ere badu helburu.
- **Delituen prebentziorako eredia**, Administrazio Kontseiluaren 2016ko martxoko aginduari erantzunez, zeinaren bidez “Zuzendaritza Nagusiari eskatu zitzaion beharrezko jarduketak egiteko ahalik eta denbora-epe laburrenean indarreko legedi penalak eskatutako prebentzio- eta kontrol-programa egokiak prestatzeko”, delituen prebentziorako eredu bat egin da, baita diagnostiko bat eta ekintza-plan bat ere.
- **Datuak babesteko Europako erregelamenduaren kudeaketa-eredua** (3/2018 Legea), herritarren oinarrizko eskubideak babestu eta bermatzeko neurri, jarduketa-arau, inprimaki, klausula eta prozedurak ezartzen dituen.
- **Kudeaketa dokumental fisiko eta digitalaren sistema**, informazio antolatu eta efizientea bermatzeko, Visesen produktibitatearen alde egingo duena.
- **Laneko Osasuna eta Segurtasuna Kudeatzeko Sistema**, OHSAS 18.001 arauaren arabera (ziurtagiririk gabe), laneko arriskuen prebentziorako jarduna hobetzeko.
- **Energia-iraunkortasunaren dekretua garatzea**, 2020an irailaren 22ko 254/2020 Dekretua betez, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa, zeinaren helburua den energia-eredu berri baterako trantsizioa sustatzea, energia-aurrezpenean, energia berriztagarrien sustapenean eta energia-efizizentzian oinarrituta.
- **2030 Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programa**, Eusko Jaurlaritzak onetsia. Programa horrek beharrezko jardura-esparrua ezartzen du atxikitako erakundeek 2030ean Euskadiren jasangarritasun ekonomiko, sozial eta ingurumenerantz aurrera egiteko konpromisoa sustatzeko.
- **Hizkuntza Politika – Euskara**, Eusko Jaurlaritzak onartutako VI. Euskara Planarekin lerrokatuta, Visenan euskara planean (2018-2022) jasotako ekimenak garatzen jarraitzen dugu, erakundean erabilera sustatzeko.
- **Visesaren 2022-2025 Berdintasun Plana**, araudiak arautzen duen bezala, Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioaren Hitzarmenen, Akordio Kolektiboen eta Berdintasun Planen Erregistroan inskribatuta dagoena.

Visesak aldi aldi kontrolak egiten ditu, kudeaketarako sistema horietako eskakizunak bete egiten direla bermatzeko:

- Eusko Jaurlaritzako Kudeaketa Aurreratuaren Ereduaren arabera autoebaluazioak.
- Urteko ingurumen-adierazpena, Visesen ingurumen-eraginari eta -portaerari buruzko informazioarekin eta arlo horretan egiten dugun lanaren etengabeko hobekuntzarekin.
- Kalitatea, Ingurumena eta Laneko Segurtasuna zein Osasuna Kudeatzeko Sistemetak barruko zein kanpoko auditoriak.

- Kontrol Ekonomikoko Bulegoari “Gobernu Arduratsuaren Gida” eta “Barne kontrolerako eskuliburua” betetzen diren jakinaraztea.
- Kapitalen zuriketaren prebentzioari buruzko barruko auditoriak, 10/2010 Legean xedatutakoa eta arlo horretako indarreko prozedurak zein jarraibideak betetzen direla egiaztatzeko.
- Norberaren datuen babesari buruzko (DBLO) barruko (urtero) eta kanpoko (bi urtean behin) auditoriak, DBLOAko VIII. tituluan xedatutakoa eta datuen segurtasunaren arloko prozedurak zein jarraibideak betetzen direla egiaztatzeko.
- Dokumentuak kudeatzeko sistemari buruzko barneko auditoriak (urtekoak), ezarritako sistemaren eraginkortasuna egiaztatzeko.
- Honako hauxe kontuan hartzen duten urteko auditoria finantzarioak: indarreko urteko abenduaren 31ko egoeraren balantzea, galeren eta irabazien kontua, ondare garbiko aldaketen egoera, efektiboko fluxuen egoera eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiko txostena.
- Auditoretzak Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatuta.
- Euskadiko sektore publikoko zerbitzu-kontratuen ikuskapenak.
- Erosketa eta kontratazio berdearen programaren Visesakoa aurrerapenaren reportinga.
- Larrialdi-simulakroak.

4. INTERES-TALDEEKIKO KONPROMISOA
4.1. JABEEKIKO HARREMANA
4.1.1. Jarduera-datuak

Jarraian laburpen-koadro bat aurkezten da Visesaren jardueraren datu globalekin, erakundearen babes ofizialeko etxebizitzari begira dauden modalitateekin. **Salmentan**, aintzat hartzen dira salmentako babes publikoko etxebizitzaren salerosketa (SE), etxebizitza tasatua (EPT) eta erosteko aukera ematen duen errentamendua (AROC); **eta alokairuan**, aintzat hartzen da etxebizitza soziala (ES) eta alokairuko babes publiko ofizialeko etxebizitza (BOEa).

3.1. taula. Jarduerari buruzko datu orokorrak.

Jarduerari buruzko datu orokorrak (etxe. kop.)	2020	2021	2022	Ald. %
Kontratu sinatu duten etxebizitzak guztira (kopurua)	385	631	519	-17,7
Partikularrekin salerosketa-kontratu (SE) duten etxebizitzak	110	157	99	-36,9
Partikularrekin erosteko aukera ematen duen errentamenduaren kontratu duten etxebizitzak (BOEa)	48	20	14	-30,0
Erakundeekin sinatutako kontratu duten etxebizitzak (ES+BOEa)	227	454	406	-10,6
Partikularrekin erosteko aukera ematen duen errentamenduaren indarreko kontratu duten etxebizitzak urtean (AROC)	158	122	101	-17,2
Eskritura egiten duten etxebizitzak guztira	357	262	301	14,9
Partikularrekin eskritura egindako etxebizitzak (BOE+BOEa)	241	242	196	-19,0
Erakundeekin eskritura egindako etxebizitzak, alokairurako (ES+BOEa)	116	20	105	425,0

Iturria: Visesa

BOE: Babes ofizialeko etxebizitza salgai – **BOEa:** Babes ofizialeko etxebizitza alokairuan - **ES:** Etxebizitza soziala.

Honako laburpen-koadro honek Visesaren jardueraren datu globalak aurkezten ditu urtean **hasitako eta amaitutako etxebizitzet**zi dagokienez, babes publikoko etxebizitzaren modalitate guztiak barne.


3.2. taula. Jarduerari buruzko datu orokorrak.

Jarduerari buruzko datu orokorrak (etxe. kop.)	2020	2021	2022	Ald. %
Visesak hasitako etxebizitzak guztira (kopurua)	695	453	502	10,8
Babes ofizialeko etxebizitzak (BOE)	462	334	502	50,3
Etxebizitza sozialak (ES)	116	119	0	-100,0
Etxebizitza tasatu autonomikoak (PTE)	117	0	0	0,0
Visesak amaitutako etxebizitzak guztira (kopurua)	84	265	225	-15,1
Babes ofizialeko etxebizitzak (BOE)	0	235	16	-93,2
Etxebizitza sozialak (ES)	84	0	105	100,0
Etxebizitza tasatu autonomikoak (PTE)	0	30	104	246,7


Iturria: Etxebizitzaren Euskal Behatokia.

BOE: Babes ofizialeko etxebizitza – **ES:** Etxebizitza soziala – **PTE:** Prezio Tasatuko Etxebizitza salgai

2. grafikoa. 2020 eta 2022 artean kontratua sinatu duten etxebizitzien kopuru totala EAEko lurralde historikoko.



3. grafikoa. 2020 eta 2022 artean eskritura egin duten etxebizitzien kopuru totala EAEko lurralde historikoko.



Urteotan hasitako eta amaitutako etxebizitziei buruzko datuak kontuan hartuta, oraindik ere Visesa funtsezko eragilea da EAEko babes publikoko etxebizitzak sustatzeko orduan. Beraz, bere xedea betetzen du urterik urte.


Horrela, 2022an, babes publikoko 1.873 **etxebizitza** (BOE+ES+PTE) **hasi** ziren EAEn, administrazioaren kalifikazioa behar zutenak; eta Visesak Erkidego osoan hasitako etxebizitza guztien % 26,8 eman ditu.

4. taula. Hasitako etxebizitzien merkatu-kuota.

Hasitako merkatu-kuota - %	2020	2021	2022	Ald. %
Visesak hasitako babes publikoko etxebizitzien kuota (BOE)	%51	%41	%29	-30,0
Visesak hasitako etxebizitza sozialen kuota (ES)	%83	%44	%0	-100,0
Visesak hasitako etxebizitza tasatuen kuota (ET)	%81	%0	%0	0,0
Visesak hasitako babes publikoko etxebizitzien kuota guztira (BOE+ES+ET)	%58,3	%33,7	%26,8	-20,4

Iturria: Etxebizitzaren Euskal Behatokia

4. grafikoa. Visesaren merkatu-kuota hasitako etxebizitzetan.




2022an, babes publikoko 1.198 **etxebizitza** (BOE+ES+PTE) **amaitu** ziren EAEn, administrazioaren kalifikazioa behar zutenak; eta Visesak Erkidego osoan amaitutako etxebizitza guztien % 18,89 eman ditu.

5. taula. Amaitutako etxebizitzaren merkatu-kuota.

Amaitutakoen merkatu-kuota - %	2020	2021	2022	Ald. %
Visesak amaitutako babes publikoko etxebizitzaren kuota (BOE)	%0	%38	%2	-95,4
Visesak amaitutako etxebizitza sozialen kuota (ES)	%100	%0	%100	100,0
Visesak amaitutako etxebizitza tasatuen kuota (ET)	%0	%11	%58	436,5
Visesak amaitutako babes publikoko etxebizitzaren kuota guztira (BOE+ES+ET)	%14,9	%25,7	%18,8	-26,9

Iturria: Etxebizitzaren Euskal Behatokia

5. grafikoa. Visesaren merkatu-kuota amaitutako etxebizitzetan.



Etxebizitzak entregatzeko batez besteko atzerapenaren emaitzei dagokienez, 2021. urtean salbuespen bat ikusi da etxebizitzak entregatzeko batez besteko atzerapenari dagokionez, aurreko urteetako zero hilabeteko atzerapen-joera hautsiz.

2021ean gertatutako egoera hori bi faktorek eragin dute nagusiki: aurreko urteko pandemiaren eragina eta hasiera batean obra esleitu zitzaion eraikuntza-enpresarekin kontratua deuseztatu ondoren sustapen batek jasan zuen obra-esleipen berriaren prozesuak.. Hala ere, pandemiaren ondoren, Visesak proiektuak eta obrak epe barruan amaitzeko helburua berriro betetzea lortu du, etxebizitzaren erabiltzaileen gogobetetzea hobetuz.

6. taula. Esleipenaren batez besteko atzerapena.

Berandu esleitutako etxebizitzak - Hilabeteak	2020	2021	2022	Ald. %
Batez besteko atzerapen-hilabeteak	0	6,88	0	-100,0

Iturria: Visesa

7. taula. Berandu esleitutako etxebizitzak.

Berandu esleitutako etxebizitzak - %	2020	2021	2022	Ald. %
Emitza	%0	%71	%0	-100,0

Iturria: Visesa

Babes publikoko etxebizitza bati lotuta ez dauden elementuen salmenta, normalean lokal komertzialak eta garaje zein trasteleku askeak, garrantzitsua da sustapenen finantza-gastuak orekatzeko, euren iraunkortasun ekonomikoa bermatze aldera. Salmenta-prozesu hori independentea da babes publikoko etxebizitzaren eta haiei lotutako garaje zein trastelekuen komertzializazioan zehar egindako izapide orokorreko.


8. taula. Lotuta ez dauden elementuen salmenta.

Lotuta ez dauden elementuen salmenta * - milaka €	2020	2021	2022	Ald. %
Emitza	854,82	2.058,60	2.900,65	40,9

* Lotuta ez dauden elementuak: sustapenean etxebizitzarekin lotuta ez dauden elementu guztiak (lokal komertzialak eta garaje zein trasteleku askeak). Iturria: Visesa

2015etik, elementu libreak erosteko aukera ematen duen errentamendu-sistema hasi zenetik, salmentak moteldu egin daitezke zenbait urtetan, elementu libre horiek alokairuan daudelako (AROC).

6. grafikoa. Lotuta ez dauden elementuen urteko salmenta



Lantzen den beste jarduera bat **energia-zerbitzuak ematea** da Visesak sustatutako eraikinetako etxejabeen elkarteei.

Visesak energia-zerbitzuak ematen dizkie A-027 (242 etxebizitza Gasteizko Salburuan) eta A-030 (203 etxebizitza Laudion) sustapenetako etxejabeen elkarteei. Visesak sustatutako sustapen horiek A energia-kalifikazioa dute, eta efizientzia handiko mikro-kogenerazio sistema bat dute (beroa eta elektrizitatea aldi berean ekoiztea), errendimendua optimizatzeko xedearekin.

Horretarako, Visesak kogenerazio-ekipamenduen titulartasunaren mantendu du, eta galdaren gelaren eragiketak eta mantentze-lanak kudeatzen ditu, baita bizilagunen berokuntzaren eta ur beroaren hornidura zuzena ere. Gaur egun, guztira 445 etxebizitzari eragiten dieten kontratuak ari dira kudeatzen.

Azken urtean, eta adibide gisa, kogenerazio-ekipo horiek 140.464 kWh elektrizitate ekoizti dute, hau da, atmosferara 67.555 kg CO₂ gutxiago isuri dira.

4.1.2. Emaidza ekonomikoak

Jarraian erakundearen jardun ekonomikoaren adierazle nagusiak jasotzen dira, kanpoko enpresa independenteek Visesari egindako urteko kontuetatik aterata.

9.taula. Emaidzen kontua.

Kudeaketako emaitzen kontua - €	2020	2021	2022	Ald. %
Diru-sarrerak				
Salmentak / Negozio-kopuruaren zenbateko garbia	39.504.417	72.035.486	47.973.180	-33,4
Diru-sarrera osagarriak	3.790.636	7.073.655	4.935.336	-30,2
Ustiapenerako diru-laguntzak	0	0	0	0,0
Beste batzuk	14.899.498	5.861.586	11.068.203	88,8
(+) Diru-sarrerak guztira (1)	58.194.551	84.970.727	63.976.719	-24,7
Gastuak				
Hornikuntzak	-54.296.960	-70.317.641	-34.664.613	-50,7
Langile-gastuak	-5.544.512	-5.702.219	-6.080.117	6,6
Soldata eta ordainsariak	-4.225.256	-4.381.311	-4.671.416	6,6
Pentsio-sistema osagarrietarako ekarpenak	-1.319.256	-1.320.908	-1.408.701	6,6
Beste gastu sozial batzuk	-1.477.522	-1.592.999	-1.833.893	15,1
Kanpoko zerbitzuak	-150.630	-12.056	-66.394	450,7
Zergak	7.819.566	409.793	-2.866.880	-799,6
Galerak, narriadurak eta horniduren aldaketa	-1.606.716	-1.448.838	-1.405.510	-3,0
Ibilgetuaren amortizazioa	-2.027.542	5.643.495	-15.582.457	-376,1
Izakinen aldaketa	-57.284.316	-73.020.465	-62.499.864	-14,4
Ustiapeneko emaitza (1+2)	910.235	11.950.262	1.476.855	-87,6
Emaidza finantzarioa	-296.566	-78.649	-259.184	229,5
Zergen aurretiko emaitza	613.669	11.871.613	1.217.671	-89,7
Ekitaldiko emaitza	461.950	9.285.955	960.724	-89,7

Iturria: Urteko kontuen auditoriari buruzko txostenak

Visesa etxebizitzaren eta beste elementu osagarri batzuen salmentari esker finantzatzaren da nagusiki; horrela, eraikintza-proiektuen kostu garbia estaltzen du, baita kudeatzeko beharrezko egiturarena ere.

Dirulaguntza-tipologia bat diru-sarrereren atalean dago jasota, eta lotuta dago errentamendu sozialera bideratutako etxebizitzak garatzen dituzten sustatzaileek Eusko Jaurlaritzaren eskutik jasotzen duten dirulaguntzarekin.

Hauak dira Visesan garrantzitsuak diren eta jarraipena egiteko balio duten beste adierazle ekonomiko espezifikoko batzuk:

10. taula. Cash flowa.

Cash flowa - €	2020	2021	2022	Ald. %
Emitza	8.088.715	23.535.046	6.747.757	-71,3


Iturria: Visesa

11. taula. Funts propioen errentagarritasuna.

Funts propioen errentagarritasuna - %	2020	2021	2022	Ald. %
Emitza	%0,58	%11,64	%1,08	-90,7%

Iturria: Visesa

7. grafikoa. Funts propioen errentagarritasuna



12. taula. Maniobra-fondoa.

Maniobra-fondoa. Kaudimena -%	2020	2021	2022	Ald. %
Emitza	%139,8	%150,6	%142,3	-5,5

Iturria: Visesa

13. taula. Pertsonako egitura-gastuak.

Pertsonako egitura-gastuak - €	2020	2021	2022	Ald. %
Emitza	86.140	91.269	91.941	0,7


Iturria: Visesa

14. taula. Zorpeketa.

Zorpeketa - %	2020	2021	2022	Ald. %
Emitza	%67,0	%63,7	%68,0	6,8

Iturria: Visesa

8.grafikoa. Zorpeketa



4.1.3. Zeharkako eragin ekonomikoa

Visesak, etxebizitza babestuen sustatzaile gisa, egunero egiten du lan erreferentea izateko, ez soilik etxebizitzak sortu eta eraikitzen, baizik eta baita ikuspuntu berritzaile eta iraunkorretik, ingurumena eta bereziki pertsonak zaintzeko edozein ikuspuntutik.

Gainera, Visesa funtsezko eragilea da EAEko sektore publikoaren jarduera ekonomikoan, eragile publiko nahiz pribatuen mobilizazio ekonomikoari ekarpenak egiten baitizkio, azken hiru urteetan gastu-kontzeptuan egindako ordainketen taula honetan zehazten den moduan.


15. taula. Jardueraren sortzaileak.

EAEko JARDUERAREN SORTZAILEAK - milaka €	2020ko ZENBATE KOA	2021eko ZENBATE KOA	2022ko ZENBATE KOA	Ald. %
Obrako ziurtagiriak	30.289	30.648	31.775	3,7
Interes eta gastu finantzarioak	999	510	300	-41,2
Lurzoruak (erosketak + urbanizazioa)	15.377	8.284	5.263	-36,5
Ordainsari teknikoak	1.374	1.853	1.758	-5,1
Udal-zergak	616	2.187	860	-60,7
Laguntza teknikoak (saiakerak, kontrol teknikoak eta saldu osteko zerbitzua)	1.005	696	867	24,5
Aseguruak	416	249	72	-71,0
Gremioetako konponketak	721	1.784	-325	-118,2
Sukaldeak	276	943	330	-65,0
Notarioak eta erregistroa	98	147	119	-19,0
Sustapenen zaintza	255	253	170	-32,6
Alokairuak	178	201	202	0,7
Kontsultoretzak eta auditoriak	459	324	557	71,9
GUZTIRA	52.064	48.081	41.949	-12,8

Iturria: Visesa

2022ko zerga-eragina 3.578.933 €-koa izan da.

9. grafikoa. EAEko jardueraren sortzaileak



4.2. BEZEROEKIKO HARREMANA

Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren datuen arabera, hiru lurralde historikoetan etxebizitza-eskatzaileen kopuruaren azken urteetako bilakaera hau izan da:

16. taula. Etxebizitza-eskatzaileen bilakaera EAEn.

Etxebizitza-eskatzaileen bilakaera - kop.	2020	2021	2022	Ald. %
Alokairuan	59.792	59.656	54.737	-8,2
Salgai	16.848	17.371	16.717	3,8
EAEko eskatzaileak, guztira	76.640	77.027	74.454	-3,3

Iturria: Etxebizitzaren Euskal Behatokia

4.2.1. Visasaren bezero nagusiak

Visesak bezerotzat jotzen ditu hauek:

1. Eusko Jaurlaritza, Alokabide (alokairuan gizarte-etxebizitzaren hartzaile modura), Udalak edo Aldundiak.
2. Lurzoruaren erakunde erosleak.
3. Babes publikoko etxebizitza erosteko nahiz erosteko aukera ematen duen alokairuan erosteko gai den edozein pertsona (Visasaren bezero potentzialen tipologia indarrean dagoen legediak ezartzen du, hark bete behar dituen betekizunei eta baldintzei buruz).
4. Elementu libreen erosleak edo elementu libreak erosteko aukera duten errentariak (lokalak, garajeak eta trastelekuak)
5. Jabeen erkidegoak eta saldu osteko arreta-zerbitzua eskatzen duten pertsonak.

4.2.2. Gogobetetasuna

Visasan, bezeroen gogobetetasuna ebaluatzen da urtero, haien aurreikuspenen zein premien inguruan lan egin ahal izateko eta ahalik eta gogobetetasun-maila handiena lortu ahal izateko.

Informazioa biltzeko metodologia telefono bidezko inkestaren bidez egiten da. Sistematika horren bidez, produktua bezeroari emateko eta/edo zerbitzua emateko unearekin doitzen da informazioaren bilketa. Horrela, galdetegiaren tamaina murrizten da eta lortutako datuen fidagarritasuna hobetzen da. Sistematika horrek emaitzen % 95eko konfiantza-maila ematen du.

Jarraian, salmenta-modalitateko etxebizitza-bezeroen gogobetetze-emaitzak aurkezten dira, zerbitzu-arloen arabera antolatuta, baita lortutako gogobetetze orokorra ere:

17. taula. Bezeroen gogobetetasuna Visasaren zerbitzuarekin.

Zerbitzu-arloak	2020	2021	2022	Ald. %
Etxebizitzaren kalitatea eta akabera	57,58	65,34	65,75	0,6
Etxebizitzaren eta eranskinen diseinua, kokapena eta dimentsioak	74,17	77,26	77,56	0,4
Prezioa	67,26	76,16	73,32	-3,7
Esleitu arteko zerbitzua	58,21	73,23	64,75	-11,6
Saldu osteko zerbitzua	54,00	60,05	61,45	2,3
Bezeroen asebetetze globalaren indizea (ezaugarri edo zerbitzu-arloen arabera haztatuta)	62,97	70,90	69,96	-1,3

*Eskala: 0-100. Iturria: Bezeroen gogobetetasunari buruzko azterketa

2021ean, Visisaren zerbitzuaren indarguneak osatzen dituzten faktoreak Etxebizitzaren eta Eranskinen Diseinua, Kokapena eta Dimentsioak, Prezioa eta Entregatu aurreko Zerbitzua arloetan nagusitzen dira bereziki.

2021ean bezala, 2022an, Visisaren zerbitzuaren "indarguneak" nagusi dira bereziki etxebizitzaren eta eranskinen diseinu-, kokapen- eta dimentsio-arloetan, baina beste faktore "indartsu" batzuk honako hauek dira:

- Erosotasun akustikoa (isolamendu akustikoa) eta erosotasun termikoa (isolamendu termikoa)
- Etxebizitzaren logela kopurua eta etxebizitzaren tamaina (espazio erabilgarria)
- Trastelekuaren neurriak eta trastelekuaren kokapena eraikinean (teilatuepean, beheko solairuan edo sotoan)
- Etxebizitzaren kokapena eraikinean, altuera eta orientazioa
- Etxebizitzaren diseinua eta banaketa, eta atariaren eta eskaileren diseinua eta neurriak
- Etxebizitzaren azken prezioa
- Teknikariaren tratua eta adeitasuna (entregatu aurretik) eta Call Center-en tratua eta adeitasuna (saldu osteko zerbitzua)

Visisaren 5 zerbitzuguneetan aztertutako 39 faktoreetatik 12k gaitu dute jarduera optimoaren langa (75 puntu). Kontrako aldean, 5 faktorek ez dute 60 puntuko muga gaituztea lortu, eta zerbitzuaren ahuleziak izan dira:

- Gorabeherak konpontzeko eraginkortasuna (entregatu arteko zerbitzua)
- Gertutasuna, VISESAko bulegoen hurbiltasuna
- Entrega-epeak betetzea
- Gorabeherak konpontzeko eraginkortasuna (saldu osteko zerbitzua)
- Gorabeherak konpontzeko bizkortasuna (saldu osteko zerbitzua)

18. taula. Bezeroen gogobetetasuna Visisarekiko harremanarekin.

Harremana	2020	2021	2022	Ald. %
Ezagunei gomendatuko lieke etxebizitzak Visisaren bidez erosi edo alokatzea	55,36	70,87	68,91	-2,8
Visisaren irudi orokorraren inguruko balorazioa	52,38	65,14	60,43	-7,2
Visisaren balorazioa beste sustatzaile batzuekin alderatuta	51,19	61,95	58,64	-5,3
Gogobetetasun orokorra Visisarekin	48,81	65,57	61,85	-5,7

*Eskala: 0-100. Iturria: Bezeroen gogobetetasunari buruzko azterketa

Visisaren irudia aldekoa da aztertutako sustapenetako bezeroen artean, baina hobetzeko tarte handia du. Loturaren muga hori beste etxebizitza-sustatzaile batzuekiko alderaketan ere ikusten da, eta baldintza berberetan.

19. taula. Bezeroen gogobetetasuna Visisaren irudi instituzionalarekin.

ARLOAK	2020	2021	2022	Ald. %
Gizarteari ekarpenak egiten dizkio babes ofizialeko etxebizitzak sustatuz	63,10	77,57	71,33	-8,0
Ingurumena errespetatzen du	63,69	74,38	70,17	-5,7
Gardena da bere jardueretan	49,40	65,93	58,59	-11,1
Kalitatezko zerbitzuak eskaintzen ditu	50,00	64,93	62,03	-4,5
Visisaren komunikazioa	57,14	68,50	66,42	-3,0

*Eskala: 0-100. Iturria: Bezeroen gogobetetasunari buruzko azterketa

2022an lortutako datuen arabera, Visisaren irudia, bere alderdirik instituzionalenean, oso positiboa da ingurumenarekiko errespetuan eta gizarteari egindako ekarpenean.

20. taula. Bezeroen gogobetetasuna Visisaren webgunearekin.

ARLOAK	2020	2021	2022	Ald. %
Webgunearen irudia eta estetika	64,58	70,18	64,72	-8,0
Informazio eguneratua	61,46	72,07	63,93	-5,7
Informazioaren kalitatea eta kopurua (behar dudan guztia dago)	57,29	71,33	67,54	-11,1
Nabigatzeko erraztasuna (erraza da bilatzen ari naizena topatzea)	55,21	72,37	70,78	-4,5
Alorren batezbestekoa	60,58	71,22	66,39	-3,0

*Eskala: 0-100. Iturria: Bezeroen gogobetetasunari buruzko azterketa

4.2.3. Kudeaketa aurreratua

Lehiakortasunaren eta bezeroen gogobetetasunaren estrategiaren barruan, Visesak beti egin du kudeaketaren bikaintasunaren aldeko apustua; izan ere, 2002an prozesuen araberrako kudeaketa ezarri zen, sistema bikaintasunaren EFQM eredura egokitzeko ikuspuntu gisa.

Urte hauetan, Visisako Zuzendaritzak etengabe lerrokatu du bere estrategia bikaintasunaren funtsezko kontzeptuekin eta gaur egun Euskaliten Kudeaketa Aurreratuaren Ereduan sartutako erakundearen lehiakortasunaren eta jasangarritasunaren eragina duten esparruekin, hori guztia etengabeko hobekuntzaren PDCA zikloari jarraikiz, zeinak sistema behartzen duen prozesuak berrikustera eta etengabe egokitzera.

2005eko ekainean, Visesak Kudeaketari buruzko Txostena aurkeztu zuen, Euskalit - Kalitatearen Sustapenerako Euskal Fundazioak kanpoko ebaluazioa egin zezan. Zilarrezko Q lortu genuenez, erakunde aurreratua gara berrikuntzan nahiz kudeaketaren hobekuntzan. Horrez gain, Euskadin sari hori lortu duen lehenengo etxebizitza-sustatzailea izan gara.

Gaur egun Visesak Kudeaketa Sistema Integratua du, Kudeaketa Aurreratuaren Ereduarekin bat doana, enpresaren eremu eta jarduera guztiak barne hartzen dituena, eta erakundearen ikuspegiari islatutako helburuak gauzatzeko laguntzen duena.

Gainera Visesak 2004tik, ekimenetan parte hartu du kudeaketaren bikaintasunaren sustapen eta hedapenarekin lotutako ekimenetan, hala nola, kudeaketa aurreratuaren europar astea, urtero Europar Batasun osoan ospatzen dena. Topaketa puntu hauetan kudeaketa aurreratuaren, bikaintasunerako, berrikuntzarako, gizarte konpromisorako, jasangarritasunerako eta lehiakortasunerako arreta eta sentsibilizazio eduki eta ponentziak aurkezten dira kolektibo profesional ezberdinetarako.

4.2.4. Produktuaren politika

Produktu Batzordearen asmoa sustapenen "irizpideak" definitzea da (alokairu sozialera bideratutako etxebizitza-erakundearen estandarra), Alokabideren, bezeroen eta, oro har, gizartearen beharretara egokitu, zerbitzu publiko ekonomikoki eraginkorra eta jasangarria bermatuz, kalitatezko produktua delako: indarrean dagoen legeriarekin bat, kostuak murriztuta (egikaritzeko eta mantentzeko kostuagatik, erabiltzailearentzat gutxienezkoa) eta akatsak murriztuta, "zero akatsak" izateraino.

Produktu Batzordea lan-taldea da, uneko bezeroen baldintzatzaileak eta beharrak biltzen dituena eta, etorkizunerako joerari aurrea hartu nahian, bere sustapenen oinarriak diseinatzen ditu, haiek ase ditzaten. 2003an sortu zuen Zuzendaritza Batzordeak, eta harrezkero, Produktu Politika zehazteko, gauzatzeko eta

garatzeko ardura izan du, indarreko helburu estrategikoetara egokituta, baita bezeroen eta gainerako interes-taldeen beharretara eta igurikapenetara ere.

Hauek dira konpromisoak:

1. Kalitatezko etxebizitza babestuen sustapena bultzatzea, kostu egokituarekin eta lehiakortasunarekin merkatuan, produktuaren kanpoko irudia indartuz eta efizientzia handiena bilatuz bezeroen eta inplikaturako interes-taldeen behar eta aurreikuspenen arabera. Hau jotzen da kalitatekotzat:
Kalitatetzat jotzen da: akatsik eta patologiarik gabea, elementu iraunkorrak eta erraz birjartzeko modukoak, mantentze-kostu txikikoak edo nuluak, eragiketa-kostu txikikoak (energia-efizientzia, kontsumo txikia...) eta jasangarritasun-plusa eskaintzen dutena.
2. Gizartearen eskariari erantzuten dioten etxebizitza dibertsifikatuak eskaintzea, prezioei eta ezaugarriei dagokienez, EAEko udalerrietan etxebizitza kopuru eta azalera desberdineko jarduketaren bidez. Etxebizitzak eta zerbitzuak kolektibo berrietara eta errealitate sozialera egokitzea.
3. Visesaren etxebizitzaren erabilzaileak gizartean integratzea sustatzea, bereziki gizarte-egoera ahulean daudenenak.
4. Produkzio estandarra eskaintzea diseinuaren erantzunari, funtzionaltasunari, eraikuntzari, mantentzeari eta kalitateari dagokienez.
5. Sektorearen barruan ereduia izatea, erantzun sozial egokiagatik jarduketa guztietan, sentikortasun arkitektoniko (hiri-integrazioa, erantzun soziala, kalitate arkitektonikoa...) eta teknologikoagatik eta ingurumenarekin lotutakoagatik, eta, azken finean, berrikuntzaren eragile izateagatik.
6. Industrializazioa sustatzea etxebizitzaren sustapenean, kalitatearen, kostuen eta epeen helburuak lortzeko tresna gisa.

Horrekin guztiarekin, bezeroen etxebizitza-arloko beharrianak eta igurikimenak asetzea bilatzen da, erabilzaileei, horiek posible egiten dituen gizarte osoari eta Visesa kalitatezko etxebizitza-marka baten sustatzaile gisa harrotuko dituzten jarduerak eginez.

Konpromiso horien ondorioz, **Diseinu eta Eraikuntza Irizpideak** berrikusiko dira etorkizunean (10. berr.), azken urteetan egindako lanari esker.

4.2.5. Produktuaren egokitzapena bezeroen arabera

Visesak bezeroen beharrak kontuan hartuta egokitzen ditu eraikitako etxebizitzak. Horretarako, bere proiektuetan diseinu- eta eraikuntza-irizpide espezifikokoak kontuan hartzea eskatzen du, mugikortasun urriko pertsonentzat eta familia ugariarentzat izan daitezkeen etxebizitzentzat. Eraikitako etxebizitzaren xedearan arabera, haien azalera handitu ahal izango dira indarrean dagoen araudian aurreikusitako maximoetaraino, eta Eraikitako etxebizitzaren xedearan arabera, haien azalera handitu ahal izango dira indarrean dagoen araudian aurreikusitako.

Azken urteotako egoera ekonomikoak eraikuntzaren sektorean izan duen eragin zuzena lagungarria izan da Visesak, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailarekin lerrokatuta, metodo eta alternatiba posible berriak aztertu eta ezartzeko, produktua bezeroengana irits dadin eta, horrela, etxebizitzetako bat eskuratu nahi duten pertsonen zenbait gorabehera minimizatu ahal izateko. Hauek dira ereduak:

- **Erosteko aukera ematen duen alokairua (AROC) babes publikoko etxebizitzetan (BPE)**

2013tik hasita, erosteko aukera ematen duen alokairua (AROC) modalitatea ezarri da. Erosteko modalitate horri esker, alokairuko babes publikoko etxebizitza (BPE) aloka daiteke 5 urtean, erosteko aukerarekin.

21. taula. BPE-en kontratu eta eskriturak AROC modalitatean.

Erosteko aukera ematen duen errentamendu-modalitateko etxebizitzak (AROC) – kopurua	2020	2021	2022	Ald. %
AROC modalitatean sinatutako etxebizitza berrien kontratuak	48	20	14	-30,0
AROC modalitatean indarrean dauden etxebizitzen kontratuak	158	122	101	-17,2
AROC modalitatean egindako etxebizitza-eskriturak	61	36	17	-52,8

Iturria: Visesa

Modalitate horren ezarpenaren emaitza gisa, 2015ean erosteko aukera ematen duen errentamenduaren eskriturak egiten hasi ziren. Orain arte modalitate hori eskaini da hainbat udalerritan, besteak beste hauetan: Gasteiz, Iruña Oka, Audio, Eskoriatza, Beasain, Azkoitia, Zarautz, Ugao, Leioa, Sestao, Basauri, Durango, Bilbao, Gernika edo Barakaldo. Azken urteetan, modalitate horretako etxebizitzen kopurua murriztu da, erosteko aukerak erabili baitira.

- **Erosteko aukera ematen duen alokairua (AROC) elementu libreetan**

2015eko martxoan, erosteko aukera ematen duen alokairua (AROC) eta errentamendua hasi ziren Visesak jabetzako Lokal Komertzialetan Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hainbat udaletan. AROC errentamendu honek merkataritza-jarduera bat abian jartzea bultzatzen duten neurri berritzaileak darama:

- ✓ Hobariak (deskontuak errentan) lanpostuak sortzeagatik.
- ✓ Gabezia errentan 6-9 hileetan lokala egokitzeagatik.

22. taula. Elementu librean kontratu eta eskriturak AROC modalitatean.

Elementu libreak (lokalak, garajeak eta trastelekuak) erosteko aukera ematen duen errentamenduaren modalitatean (AROC) – kopurua	2020	2021	2022	Ald. %
AROC modalitatean sinatutako elementu libre berrien kontratuak	107	171	99	-42,1
AROC modalitatean indarrean dauden elementu libre berrien kontratuak	456	480	421	-12,3
AROC modalitatean egindako elementu librean eskriturak	25	47	43	-8,5

Iturria: Visesa

Modalitate horren ezarpenaren emaitza gisa, 2015ean erosteko aukera ematen duen errentamenduaren eskriturak egiten hasi ziren. 2020ra bitartean, modalitate hori eskaini da hainbat udalerritan, besteak beste hauetan: Gasteiz, Audio, Amurrio, Etxebarri, Sopela, Basauri, Gernika, Ugao-Miraballes, Bermeo, Bilbo, Durango, Donostia, Mutriku, Hernani, Elgoibar, Errenteria, Arrasate, Eskoriatza, Pasaia edo Beasain.

- **Babesturiko etxebizitzak zuzenean esleitzea (zozketarik gabe).**

Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio sailburuaren aginduekin bat, 2013az geroztik Visesak BPEak (babes publikoko etxebizitzak) zuzenean esleitzeko prozedura abiarazi du amaitutako hainbat sustapen hutsetan. Modalitate horretan (zozketarik gabe eta Etxebiden izena eman beharrik gabe) nahikoa da dagokion araudian ezarritako baldintzak betetzearekin etxebizitza babestu bat eskuratzeko.

2022ko martxoan, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren Agindua eman zen, Bilboko Basurto-Krungen sustapeneko babes ofizialeko 78 etxebizitza (BOE) salmentan zuzeneko adjudikazioa eta zozketarik gabe hasteko. Sustapen hori adjudikazio zuzena indarrean dute sustapenei gehitzen zaie. Horietan baldintzak betetzen dituen edonork etxebizitza bat eskuratu dezake modalitate horretan Iruña Okan, Salburuan eta Zabalganen (Vitoria-Gasteiz), Ugao-Miraballesen, Boluetan eta Zorrotzaurren (Bilbo), Basurto-Krungen (Bilbo), Gernikan, Durangon, Leioan, Basaurin, Barakaldon, Eskoriatzan, Arrasaten eta Beasainen.

- **Babesturiko etxebizitzak erosketaren erregimenean esleitzeko zozketak**

Etxebizitza sailburuaren aginduak indarrean sartu ondoren hasiera eman zitzaien esleipen-prozedurei, eta Visesak erosketaren erregimeneko esleipenen zozketak egin zituen Etxebiden izena eman zuten eta borondatez Visetaren sustapenen zozketetan inskribatu ziren eskatzaileen artean. 2021ean Santurtziko sustapeneko 32 BOE esleitzeko zozketa egin da, eta 2022an ez da Visesak sustatutako etxebizitza babestuen esleipen-zozketarik egin.

4.2.6. Kexen, erreklamazioen eta iradokizunen kudeaketa (KEI)

Visesan bulegoen, *call-center* zerbitzuaren eta beste komunikazio-kanal batzuen bidez (webgunea, posta elektronikoa eta faxa) erantzuna ematen zaie sustapen baten bizi-zikloan zehar agertu daitezkeen gorabehera guztiei. Gorabeherak zuzenean Visetari aurkeztu ahal zaizkio norbere kabuz edo Arartekoa, Zuzenean edo ordezkariak bezalako erakunde ofizialen bitartez. Printzipioz, bi gorabehera mota zehazten dira:

a.- Gorabehera orokorrak. partikular batek egindako erreklamazioak dira (salmenta osteko produktuen gorabehera teknikoak izan ezik), eta Visesak emandako zerbitzuarekin lotutako edozein alderdiri buruzkoak (bezeroentzako arreta, adjudikazio-prozesua edo jasotako informazioa) edo beste alderdi orokor bati buruzkoak.

23.1. Taula. Gorabehera orokorrak.

Gorabehera orokorrak – kop	2020	2021	2022	Ald. %
Aurkeztutako gorabehera orokorren kopurua	1	0	3	100

Iturria: Visesa

b.- Gorabehera teknikoak. jabe batek egindako gorabeherak dira, Visesak emandako etxebizitza edo elementu aske baten eraikuntza-itxura, akabera edo funtzionamenduari buruzkoak. Horrelako gorabeherak atentzarako, **Saldu Osteko Zerbitzua** dago abian, eta gorabeheron konponbidea bermatzea eta berriro ez gertatzeko ekintzak ezartzea du helburu.

23.2. Taula. Gorabehera teknikoak.

Gorabehera teknikoak - kop	2020	2021	2022	Ald. %
Eskritura egin ondorengo lehen urtean jasotako gorabehera teknikoen batez besteko kopurua	3,9	2,8	6,8	139,9

Iturria: Visesa


Onartutako gorabeheretan, Visesak konpondu edo zaharberitu egiten ditu, ageri-agerikoa delako ekoizpeneko edo instalazioko akatsa dela. Urtean zehar Saldu Osteko Arreta Zerbitzuan jasotako gorabeheren % 79,74 onartu egin ditu Visesak, eta horietatik % 96,5 amaitu egin dira.

24. taula. Gorabehera teknikoei erantzuteko batez besteko denbora.

Sustapenetako gorabehera teknikoei erantzuteko batez besteko denbora - Egunak	2020	2021	2022	Ald. %
Eraitza	99	171	103	-39,8

Iturria: Visesa

10. grafikoa. Gorabehera teknikoerantzuteko batez besteko denbora



Bezeroei etxebizitza eman baino lehen, Saldu Osteko Zerbitzuak etxebizitzak ondo daudela ikuskatzen du. “Saldu aurretiko” ikuskapen horretan, gure teknikariek kudeatutako gorabehera gehienak sarbide bateratuetan, etxebizitzetan, trastelekuetan eta garajeetan sortutako akats estetiko txikiak dira. Lehen ikuskapen horretan Visesak kalitate-estandar handia eskatzen duenez, ondo baino hobeto bermatzen da gure bezeroek jasoko dituzten etxebizitzak ondo daudela.

25. Taula. “Erosi aurreko” berrikuspena

“Erosi aurreko” berrikuspenaren datuak – zk.	2021	2022	% bar.
Berrikusitako sustapenak, guztira	4	2	-50,0
Berrikusitako etxebizitzak, guztira	284	230	-19,0
Kudeatutako gorabeherak, guztira	10.532	7.332	-30,4

Iturria: Visesa

Visesak zuzenean kudeatutako gorabehera tekniko eta orokorrez gain, bezeroek gorabeherak aurkeztu ditzakete erakunde ofizialen aurrean: Arartekoa, udalak, Kontsumo Bulegoa, Etxebizitzako ordezkariak eta Zuzenean. Erakunde ofizialetatik datozen gorabehera horiek Visesan kudeatzen dira espediente-zenbakiaren bidez, eta horiek jorrazteko prozedura espezifiko bat dago. Urte hauetan ez da kudeatu diruarekin lotutako espedienterik.

c.- Kontsultak dira bulegoetan web bidez edo posta elektronikoko bidez jasotzen ditugun eta Herritarrei Arretarako Sailak kudeatzen dituen eskaerak edo proposamenak.

26. taula. Jasotako kontsultak.

Jasotako kontsultak: webgunea – posta elektronikoa (BAB) - Zuzenean	2020	2021	2022	Ald. %
Araba	272	327	265	-19,0
Bizkaia	727	1.555	1.422	-8,6
Gipuzkoa	185	1.063	1.074	1,0
Egoitza	48	72	89	23,6
GUZTIRA	1.232	3.017	2.850	-5,5

Iturria: Visesa

4.2.7. Pribatutasuna

Visesak zenbait neurri, esleitzeko arau, formulario, klausula eta prozedura sortu eta abiarazi zitu, Datuak Babesteari buruzko Erregelamendu Orokorrak herritarren funtsezko eskubideak babesteko ezarritako berme guztiak bete ahal izateko.

27. taula. Visasaren datuak babesteko taldeak erantzundako barne-eskaerak eta -kontsultak.

Barne-arloei erantzundako eskaerak eta kontsultak – kop.	2020	2021	2022	% Var.
Herritarrentzako arreta	12	9	10	11,1
Zuzendaritza Nagusia	2	4	0	-100,0
Juridikoa	9	4	3	-25,0
Pertsonak	16	12	9	-25,0
Prozesuak, kanpo-komunikazioa eta sistemak	7	8	7	-12,5
Teknikaria	15	1	4	300,0
Ekonomia- eta finantza-arloa	5	4	0	-100,0
GUZTIRA	66	42	33	-21,4

Iturria: Visesa

Nahiz eta arlo hori 2008an abiarazi zen, Visesak datuak babesteko araudia betetzera bideraturiko politikak garatzen eta ezartzen jarraitzen du. Politika horiek bilakatuz eta izan diren barne aldaketetara egokituz joan dira. Visesak araudia betetzean garatu izan dituen ekintzen artean, honako hauek nabarmendu daitezke:

- DPOren, DPOren laguntzailearen, segurtasuneko arduradunaren eta fitxategien barneko arduradunen izendapenak onetsi dira.
- Kanpoko enpresa baten kontratazioa, datuak babesteko araudia betetzeko aholkularitza juridikoaz eta aholkularitzaz arduratzeko.
- Zerbitzu bat ezarri da Intraneten, DPOk Visesak pertsonalaren kontsultei erantzuteko (datu pertsonalei buruzkoak dira), eta posta elektronikoko kontu bat sortu da (dpo@visesa.eus) Visesak bezeroek eta bestelako interesatuek DPOekin harremanetan jartzeko modua izan dezaten.
- Trataerako Jardueren Erregistroa eta Segurtasun Dokumentua eguneratzeari eutsi zaio.
- Bi urterik behingo auditoriak egin izan dira, datuak babesteko araudia betetzen dela egiaztatzeko. Kanpoko enpresei agintzen zaizkie auditoriak, baina hala egitea ez da nahitaezkoa legez.
- Datuak babesteko politikei buruzko dokumentazio osoa (segurtasunari buruzko dokumentua, prozedurak, datuak babesteko barneko eskuliburua pertsonalarentzat, informazio-klausulak, prestakuntza ikastaroen aurkezpenak, etab.) aldian-aldian eguneratzen dira eta pertsona guztien eskura daude Intraneteko kolaboraziorako gune batean
- Trataerarako jarduera guztiekiko informazio-klausulak eguneratu eta abiaraziko dira, hain zuzen ere Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorreko 30. artikuluan galdaturiko informazioa eman beharra behar bezala betetzeko. Hala, informazio-klausulen atal bat sartu da, garrantzizkoa den dokumentazioa sartzeko, dokumentazio motaren, bezeroaren eta barneko sailaren arabera. Visesak kideen beharren eta eskabideen arabera handituz doa honako atal hau.
- Datuak tratatzeko kontratuak (datuak eskuratzea) sinatzen dira zerbitzuak ematen dituzten kanpoko enpresekin, beharrezkoa den kasu guztietan.
- Visesak kide guztiek izenpetu dituzte datu pertsonalak babesteari buruzko araudian galdaturiko isilekotasan eta sekretu beharra betetzeko eta errespetatzeko konpromisoko klausulak.

- Barruko auditoriak egin dira, datuak babesteari buruzko araudia betetzeko artxiboaren eta paperezko dokumentuen kudeaketaren aldetik.
- Datu pertsonalak babesteari buruzko araudia betetzen dela jarraitzeko eta mantentzeko asteko bilerak, Visesako sailetan jarduera egiten agertzen diren gai guztiak aztertzeko eta ebazteko asmoz.

Azken finean, datu pertsonalen babesaren arloko barruko politikak jarraitzeko eta kontrolatzeko etengabeko lana egiten ari da, eta horri esker, kanpoko auditoreek onartu egin dute aipaturiko araudian galdaturiko betebeharren betetze-maila handia dagoela eginkizun horretan.

Datu pertsonalen babesaren arloa betetzeko eta hobetzeko konpromisoa du Visesak, eta horretarako, baliabide handiak erabiltzen dira prestakuntzaren, informazioaren eta erakundean DBLOren betetze-maila hobetzeko eta horretaz jabearazteko beharrezko sentsibilizazioaren bidez.

28. taula. DBLOko prestakuntzari buruzko datuak.

DBLOko prestakuntza	2020		2021		2022	
Egindako ikastaroak (kop.)	1		2		1	
Orduak guztira (orduak)	118,5		141,5		168,0	
Bertaratutakoak guztira (kop.)	79		71		84	
	Ema.	Giz.	Ema.	Giz.	Ema.	Giz.
	50	29	45	50	29	45
Orduen batez besteko kopurua bertaratu bakoitzeko (kopurua)	1,5		2,0		2,0	

Iturria: Visesa

Azken urteetan, honako gorabehera edo hutsune hauek gertatu izan dira segurtasunaren aldetik:

29. taula. Segurtasun gorabeherak.

Datuen babesa betetzearekin loturiko gorabeherak – kop.	2020	2021	2022	Ald. %
Arriskuak	4	4	1	-75,0
Segurtasunaren urraketak	0	0	1	100,0

Iturria: Visesa

Azken urteotan Visesak hartutako neurri guztiek argi eta garbi adierazten dute interes-taldeen pribatutasunarekin lotutako gorabeherak oso gutxi izan direla eta azkar kudeatu eta ebatzi direla.

Hemen aurkeztutako gorabeherak ez datoz egoki oinarritutako kanpo erreklamazioetatik, interes-taldeen pribatutasunari eta datuen ihesarekin lotuta, baizik eta enpresak berak datuen babeserako legea egoki betetzeko egiten duen jarraipen eta barne ikuskarizatik sortuak dira, eta ez dute inolako nahasmendu edo arriskurik sortu enpresaren ardura diren datuen segurtasunean.

4.2.8. Komunikazioa

Visesak sustapenarekin lotutako guztiaren berri eman nahi die etorkizuneko jabeei. Hori dela eta, igorritako informazioari, informazio horren kalitateari eta komunikaziorako zein informaziorako sistemei ematen die lehentasuna. Sistema horietan, gainera, zenbait faktore zehazten dira; esate baterako, obraren bilakaera, Visesak sustapenetako eraikuntza-elementu bereizgarriak, izapide komertzialak...

Inkesten, focus grupen, herritarren partaidetzarako proiektuen, higiezinetak azoketako partaidetzaren edo ohiko harreman zuzenen edo zeharkakoen bidez aztertu eta ikuskatu ondoren, bezeroekiko komunikazioen mapa zehaztu da Visesan (zeri buruzko informazioa eman, nola eta noiz). Gaur egun, honako hauxe agertzen da mapa horretan:

I. taula. Bezeroekiko komunikazioaren eta informazioaren mapa.

Deskribapena		komunikazio-/informazio-ekintzak
Bezeroa	Etxebizitzen zozketa	- Data, Tokia, modua eta esleipenaren zozketa (zenbakia)
Barrukoa	Esleipendunen harrera Visesan	- BDD zozketa ERP-Navisión
Barrukoa	Kontua, abala eta baimena	
Bezeroa	Esleipenaren jakinarazpena (salerosketa-SA eta Erostea aukera eskaintzen duen alokairu-kontratu-EAA)	- ongi-etorrirako gutuna - etxebizitzaren esleipenaren jakinarazpena - kalitateen txostena - etxebizitzaren planoa - sustapenaren kokapenaren planoa - kontratu-zirriborroa
Bezeroa	Etxebizitzaren onarpena SA edo EAA	- onarpen-gutuna
Bezeroa	Kontratuen gauzapena SA edo EAA	- esleitutako etxebizitza salerosteko kontratuaren sinadura
Barrukoa	Kontratuen oniritzia ordezkartzara bidaltzea	
Bezeroa	AROC kontratua eskritura publikora aurkeztu	- BOE AROC kontratuaren eskritura publikoko notaritza dataren jakinarazpena eta giltzak ematea
Bezeroa	Obren hasieraren 1.go jakinarazpena	- obren esleitzearen eta birplanteatze akta sinatzearen jakinarazpena
Bezeroa	2. aurrerapena ingresatzeko SMSa	- 2. aurrerapena ingresatzeko jakinarazpena
Bezeroa	Sustapenaren garapenari buruzko 2. komunikazioa	- sustapenari buruzko unean uneko komunikazioak (obraren egoera, etxebizitza emateko daten aldaketak...) - web orriko eta e-postako informazio-buletineko informazioa indartzea
Bezeroa	Etxebizitza eredugarria	- etxebizitza eredugarria ikusteko datari, lekuari... buruzko informazioa
Bezeroa	Pisu pilotua gogorarazteko SMSa	- SMSak Bidaltzea
Bezeroa	Elementu libreen merkaturatze hasiera (garaieak-lokalak)	- esleipendunei jakinaraztea
Bezeroa	Sustapenaren garapenari buruzko 3. komunikazioa	- sustapenari buruzko unean uneko komunikazioak (obraren egoera, etxebizitza emateko daten aldaketak...) - web orriko eta e-postako informazio-buletineko informazioa indartzea

Deskribapena		komunikazio-/informazio-ekintzak
Bezeroa	Etxebizitza bisitatzeko hitzorduak	- dei-guneko deia, Visesak Saldu Osteko teknikariarekin egin beharreko bisitaldirako hitzordua emateko
Bezeroa	Etxebizitzarako bisitaldia gogoratzeko SMS	- SMSen bidalketa
Bezeroa	Egoera zibilaren eta finantziazioaren inprimakien aurkezpena	- subrogazio-inprimakiaren bidalketa
Bezeroa	Eskriturak SA	- etxebizitza emateko data - esleitutako notarioa - eguneratutako datuak - etxebizitzaren eskriturak
Bezeroa	Jabeen erkidegoaren eraketa SA	- jabeen erkidegoa eratzeko egunari, lekuari... buruzko informazioa
Bezeroa	Zerbitzu energetikoak zenbait jabeen erkideri ematea	- hileko fakturazioa bidaltzea eta bezeroei ordainagiriak postontzian sartzea - kudeaketako emaitzei buruzko urteko txostenak eta mozkinen banaketa
Bezeroa	BOE erosleen garaje libreen kontratuen bisa eskaria	- erreserba dokumentuak-bezeroen kontratuak
Bezeroa	Lokalen CV kontratuaren bisa eskaria	Bezeroaren bisa lokalaren CV kontratua
Bezeroa	Tokiko eta BOE AROC kontratuaren izen-emate eskaria hiru lursailak alokatzeko kontratuen erregistroa	- Bezeroaren AROC kontratua alokairu kontratuen Bizilagun erregistro eskaria
Bezeroa	AROC gastuen fakturazioa (tasak, zergak)	- VisesaK bere gain hartzen dituen gastuei - tasak, OHZ...- dagozkien ordainagirien hurrengo sorreraren bidalketa
Bezeroa	AROC ez ordainketen jakinarazpena	- errentak ez ordaintzeagatik jakinarazpenen bidalketa
Bezeroa	Urteko AROC errenten ordainketa dokumentua	- AROC errentak ordaintzeko PFEZ laburpena
Bezeroa	AROC errenten eguneratzea - alokairua	- Errentaren eguneratze jakinarazpena bidaltzea (urtekoa)

Iturria: Visesa

Etxebizitzen esleipenaren gardentasuna ezinbesteko baldintza da Visesarentzat. Horregatik, etxebizitzen sustapenen zozketak zuzenean eta Irekiaren webgunearen bidez ematen dira.

Etxebizitzen esleipendunei jakinaraztea aldagai garrantzitsua da etxebizitzak entregatzeko; izan ere, zenbat eta lehenago egin, orduan eta lehenago okupatu ahal izango dituzte etxebizitzak. Jakinarazpena funtsezko lana izan da, azken urteetan handia izan baita babes publikoko etxebizitza baten esleipenari uko egin diotenen ehunekoa. Kasu batzuetan, beharrezkoa izan da batez bestean 3 esleipen-jakinarazpen egitea esleipen erreal bat egikaritzeko. Azken urteetan behera egin du jakinarazpenen kopuruak; izan ere, erosteko etxebizitzen eskaintza murriztu egin da aurreko urteekin alderatuta. Horrez gain, orain jakinarazpen gutxiago behar dira etxebizitza bat esleitzeko.

Visesaren bezeroek baloratzen duten kontuetako bat etxetxak elkarrekin osatzeko kudeaketa integratuz eskaintzen zaien laguntza da; izan ere, batzuek ez dute ezagutzen ez prozesua eta ez elkarrekin kudeaketa egokiak izan dezakeen irismena. Urtero, Visesak hainbat jabe-erkidego eratzeko laguntza ematen du. Azkenekoak, 2021ean eta 2022an, hauek dira: G-070 Zarautz (50 etxebizitza), B-086 Barakaldo (72 etxebizitza), B-090 Basurtu-Krug-Bilbo (78 etxebizitza), B-097 Basauri (65 etxebizitza), G-071 Azkoitia (16 etxebizitza) eta B-058 Zorrotzaurre-Bilbo (104 etxebizitza).


2019an, Visesak webgune berri bat diseinatu eta herritarren esku jarri zuen: www.visesa.euskadi.eus. Webgune berri horri esker azken bi urteetan jasotako bisiten kopuruak nabarmen egin du gora.

30. taula. Web orriko bisitaldiak.

www.visesa.euskadi.eus web orriko bisitaldiak	2020	2021	2022	Ald. %
Gure web orriko bisitaldiak (kop.) (eguneko bisitaldiak)	353.022 (967)	404.358 (1.108)	488.606 (1.339)	20,8
Visesako bezeroen balioespena ¡Error! Referencia de hipervínculo no válida. web orriari buruz (E 1:5)	3,4	3,8	3,7	-5,0

Iturria: Visesa

11. grafikoa. Web orriari buruzko balioespena



* 2018an ez zitzairen gogobetetze-inkestarik egin bezeroei

Gorabehera teknikoak artatzeko Saldu Osteko Zerbitzua (SOZ) ezarri da, gorabeherak ebatziko direla bermatzeko eta berriro gertatuko ez direla ziurtatzeko ekintzak zehazteko.

31. taula. Deiak eta mezu elektronikoak.

Telefono-deiak eta mezu elektronikoak	2020	2021	2022	Ald. %
Bezeroen telefono-deiak <i>call-center</i> zentrora (kopurua)	2.381	2.638	1.982	-24,9
Jasotako deien estaldura-ratioa	94,0%	96%	97%	1,0
sap@Visesa.com helbidean jasotako mezuak (kopurua)	3.196	2.305	2.484	7,8


Iturria: Visesa

32. taula. Visesaren irudia bezeroentzat.


Irudia - E 1:5	2020	2021	2022	Ald. %
Sustapeneko bezeroen balioespena Visesaren irudiari buruz	3,1	3,6	3,4	-5,2
Visesako sustapeneko bezeroen leialtasun-maila (Visesako etxebizitza erosiko lukete berriro)	3,2	3,8	3,8	0,0
Beste enpresa batzuekin egindako erkapena	3,0	3,5	3,3	-3,8

Iturria: Visesa.


12. grafikoa. Sustapeneko bezeroen balioespina Visisaren irudi orokorrari buruz



13. grafikoa. Sustapeneko bezeroen leialtasun-maila (Visesako etxebizitza erosiko lukete berriro)



14. grafikoa Bezeroen balorazioa sektoreko beste enpresekin konparatuz



4.2.9. Euskararen sustapena herritarrekiko harremanetan

1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Legeak dio herritarren eskubideetako bat dela sektore publikoarekin harremanetan jartzea nahi duten hizkuntza ofizialean. Visesa sektore publikoaren parte da, eta, beraz, bere hizkuntza-eskubideak bermatu behar ditu.

Visesak urteak daramatza euskararen alde lan egiten, eta hainbat urrats eman ditu bezeroekiko komunikazioaren kalitatea hobetzeko, euren hizkuntza-aukeren babesean aurrera egiteko eta zerbitzuak hobeto emateko.

Eusko Jaurlaritzaren euskara-planek euskararekin eta sozietate publikoekin lotutako gidalerroak ezarri dituzte. VI. Plangintza Aldian (2018 – 2022), euskararen erabilera normalizatzeko irizpide orokorrei eta plan orokorrari dagokionez, zehazten da sozietate publikoek euskararen eta gaztelaniaren erabilera bermatzeko betebeharra dutela herritarrekiko harreman zuzena dakarten zerbitzuetan; horren arabera, euskararen erabileraren plan bat eduki behar da.

Hori dela eta, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) plan bateratu bat prestatu du:

- Planak baliagarria izan behar du administrazio publikoentzat eta enpresa publiko nahiz pribatuentzat.
- Plana Bikain (hizkuntza-kudeaketako kalitate-ziurtagiria) eta EME (enpresei laguntzeko koadroa, modu sistematiko, argi eta sinplean euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko helburuak finkatu ditzaten) elementuekin lerrokatu behar da.
- Planak aukera eman behar du epe luzeko (aldi osorako plan estrategikoa) eta laburreko (urteko kudeaketa-plana) plangintza egiteko.
- Planak euskara normalizatzeko elementu garrantzitsuenak identifikatu eta haztatu behar ditu.

Lehen urrats moduan, 2018. urtearen amaieran Visesak diagnostiko bat egin zuen; horretarako, **inkesta** bat bidali zien Visesako pertsona guztiei, euskarak enpresaren barruan zuen hasierako egoera ezagutzeko.

Diagnostikoaren emaitzak interesgarriak izan dira, eta beharrezkoak dira euskararen egungo egoera agerian jartzeko eta **Euskara Plan berria (2018-2022)** diseinatzeko. Plan hori diseinatzeko 2 ardatz nagusi eta lehen mailako 6 elementu hartu dira kontuan; horiek ondoren 2. mailako beste elementu batzuekin, ekintzekin eta adierazleekin garatzen dira.

J. Taula. Visesaren 2018-2022 Euskara Planaren itxiera

ARDATZ 1: ZERBITZU-HIZKUNTZA. Helburua: Euskararen presentzia eta erabilera indartzea herritarrekiko ahozko eta idatzizko harremanetan, herritarren

- 1.mailako Elementuak: 1.Erakundearen Irudia. Helburua: Jendaurreko guneetan jarrera proaktiboa erakustea herritarrei euskara erabiltzera gonbidatzeko (Txantxangorria eta bestelako identifikagarriak erabilia...)

Ekintza. Harrera-protokolo elebiduna ezartzea.

1.mailako Elementuak: 2.Bezeroekiko (Pertsona Fisikoak) Eta Herritarrekiko Harremanak. Helburua: Zerbitzuetan euskararen erabilera indartzea euskaraz egiteko hautua egin duen herritarra euskaraz artatua izan dadin.

Ekintza. Hizkuntza-irizpideak onestea eta hedatzea.

ARDATZ 2 : LAN-HIZKUNTZA. Helburua: Euskararen erabilera areagotzea lan harremanetan.

- 1.mailako Elementuak: 3.Barne-Komunikazioa Eta Lan-Tresnak. Helburua: Komunikazioan eta lan - tresnetan euskara ohikotasunez erabiltzea.

Ekintza. Itzultzaile neuronal eta beste itzultzaile batzuk hedatzea.

Ekintza. Euskaraldian eta Korrikan parte hartzea.

Ekintza. Euskara sustatzeko Eusko Jaurlaritzaren erakundeetan parte hartzea: Xedera eta AriGAra.

- 1.mailako Elementuak: 4.Pertsonen Kudeaketa. Helburua: Pertsonen kudeaketan eta prestakuntzan euskararen erabilera indartzea.

Ekintza. Ikastaro orokorrak euskaraz egitea, baita berezko euskara ikastaroak ere.

- 1.mailako Elementuak: 5.Kanpo-Harremanak. Helburua: Kanpoko erakundeekiko harremanetan euskararen erabilera areagotzea.

Ekintza. Kontratuan klausulak ezartzea hornitzailearen edo erakunde pribatuaren harremanak ezagutzeko.

Ekintza. Euskarazko hainbat lizitazio ateratzea.

- 1.mailako Elementuak: 6.Kudeaketa Sistema. Helburua: Euskararen kudeaketa aurreratua bermatzea

Ekintza. Enpresaren estrategian euskara plana eta sentsibilizazio planak txertatzea.

4.3. ENPRESA HORNITZAILEAK

4.3.1. Kontrataziorako politika

Visesak bere erosketa- eta kontratazio-politikari dagokionez, kudeaketa arduratsua egiten du, enpresa hornitzaile estrategikoak baititu. Izan ere, horiek bezeroekin zuzeneko harremana duten zerbitzuak garatzen dituzte.

Sektore publikoan sartuta dagoenez, Visesak sektore publikoko kontratuei buruzko legea aplikatzen du eta xedea ekonomiaren ikuspegitik eskaintzarik abantailatsuen balioztatzearekin batera, publizitate, norgehiagoka, gardentasun, konfidentzialtasun, berdintasun eta ez-diskriminazioaren printzipioak eraginkortasunez bermatzeko kontratuen esleipena arautzea da. Halaber, merkatuaren bateratasunari buruzko legeak hurbiltasunezko kontratazioa arautzen du eta jatorriaren irizpidea ezingo da mugatu.

Xede horrez, kontratazioari buruzko prozedura orokorra du eta obra-erosketa eta -kontratu nahiz zerbitzuen hornidura eta eskaintza guztiei aplikatzen zaie. Hala, enpresa hornitzaileek ezinbestez bete behar dituzten atal eta klausula bereziak ageri dira lan-arriskuaren prebentzioan, ingurumen-kudeaketan, datuak babesteko lege organikoan eta abarrean.

K. taula. Kontratazio eta erosketetan kontuan hartutako ingurumen eta gizarte arloko irizpideak eta beste era batekoak.

Obren kontratazioa	Kontratazio eta erosketetan kontuan hartutako irizpideak
Enpresa eraikitzaileak	<p>Kaudimenarako irizpidea: kalitatea kudeatzeko sistemako ISO 9001 ziurtagiria, ingurumeneko ISO 14001 edo antzekoak.</p> <p>Esleipenerako irizpidea, batez ere, ingurumenekoak edo beste arlo batekoak. Enpresa eraikitzaileak aurkeztu, balioetsi eta puntu gehiago ematen dituzte enpresa hornitzaileen lizitazioan.</p> <p>Enpresa kontratistentzat funtsezko kontratu-betebeharrak eransten dira eta subkontrastei egindako ordainketekin (soziala) zerikusia dute, hala nola, azpikontrastei garaiz ordaintzeko eta jakinarazteko eginkizuna ez betetzeagatik zigorrak jartzea.</p>
Zerbitzugintzaren prestazioa	Kontratazio eta erosketetan kontuan hartutako irizpideak
Arkitektoak eta zuzendaritza fakultatiboak	<p>Esleipenerako irizpidea: ekodisenuko ziurtagiria, kalitatea kudeatzeko sistemako ISO 9001 ziurtagiria, ingurumeneko ISO 14001 edo antzekoak.</p> <p>Diseinu-irizpideak, hala nola energia-kontsumoa, lehengaien kontsumoa, zarata, ingurune naturala, higiena eta argiak, zeinak kasu batzuetan babes publikoko etxebizitzak diseinatzeko ordenantzaren gainetik dauden.</p> <p>Esleipenerako irizpidea, ingurumenekoak edo beste arlo batekoak, arkitektoek aurkeztu, balioetsi eta puntu gehiago ematen dituzte enpresa hornitzaileen lizitazioan.</p>
Hornikuntzen kontratazioa	Kontratazio eta erosketetan kontuan hartutako irizpideak
<p>Kontsumo arduratsuaren alderdi orokorrak ezartzea, eta erosketa publiko berdearen baldintzak eta ingurumen-irizpideak lizitazio-pleguetan txertatzea: papera, ordenagailuak, inprimatzeko ekipamenduak, eraikinen garbiketa, ibilgailuak, argitalpenak, elikadura, eraikuntza, urbanizazioa, hondakinen bilketa, hornidura elektrikoa, mezularitza eta bulegoko altzariak.</p>	

Visesak kontratazioetan aplikatzen dituen beste irizpide orokor batzuk:

- Enpresa guztiak beren eskaintzak elektronikoki aurkeztu behar dituzte.
- Lizitazioak Internet bidez igortzen dira (horrela, ez dago gure egoitzara zertan hurbildurik),
- Eusko Jaurlaritzako Euskadiko kontratazio publikorako plataforma erabiltzen da eta Estatuaren Kontratazio Plataforman (gardentasuna, publikitatea... egiaztatuta).

Lizitazioei eta publikitateari buruzko jarraibide guztiak www.visesa.euskadi.eus web orri korporatiboko kontratugilearen profilean daude eskuragarri.

Zigorrak: azken urteotan Visesak ez du zigorrik eta isunik izan legeak eta araudiak ez betetzeagatik.

4.3.1.1. Erosketa eta kontratazio berdea

2018tik, Visesa Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programari atxikita dago. Erosketa berdea erakundeen erosketa- eta kontratazio-prozeduretan ingurumen-irizpideak txertatzean datza. Irizpide horiek produktu eta zerbitzuei nahiz horien lehengai eta material osagarriei, elaborazio-prozesuei edo horien erabilera-faseari eta bizi-amaieraren kudeaketari aplika dakizkieke.

2030 Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programa berria, Visesa atxiki zaiona, 5 jarduera-esparrutan egituratzen da, eta, ondoren, lan-ildoen bidez garatzen da. Hauek dira 5 esparruak:

1. Erosketa eta kontratazio berdea sendotzea Euskadin politikak hedatzeko funtsezko tresna gisa.
2. Erosketa eta kontratazio berde publiko zein pribatuaren aldeko konpromisoan aurrera egitea.
3. Erosketa eta kontratazio berdea erakundeen barnean egituratzeko eta berrikuntzarako elementu bihurtzea.
4. Merkatu egokia, kalitatezkoa eta prestatua izatea.
5. Erosketa eta kontratazio berdearen aurrerapenak, lorpenak eta onurak ikusaraztea.

4.3.2. Enpresa hornitzaileekiko harremanaren kudeaketa

Enpresa hornitzaileekin dituen harremanetan, Visesak honako printzipio hauek hartzen ditu kontuan: elkarrekiko errespetua, kalitatea, betearazpena, tratu-berdintasuna, gardentasuna, lankidetzeta eta gizarte zein ingurumen arloko erantzukizuna.

Visesak aberastasuna sortu eta lantoki duen ingurunea dinamizatu nahi du bere jardueran bitartez. Alde horretatik, azken urteotan, ondasunak, hornikuntzak edo zerbitzugintza erosteagatik egindako ordainketako hartzaileak Euskal Autonomia Erkidegoan finkatutako enpresa hornitzaileak izan dira.

33. taula. Visesak kontratazioari buruzko datuak.

Kontratazioak guztira - €	2020	2021	2022	Ald. %
• Obren kontratazioa	38.832.474	18.838.020	90.732.955	381,6
• Zerbitzuen kontratazioa	6.942.177	4.798.076	3.663.717	-23,6
• Hornikuntzen kontratazioa	4.229.846	307.138	316.399	3,0
Visesak egindako kontratazioa guztira - €	50.004.497	23.943.234	94.713.071	295,6

Iturria: Visesa

4.3.3. Enpresa hornitzaileei egindako ordainketari buruzko informazioa

Eragiketa komertzialetako berankortasunaren aurkako neurriak betetzeko eta kasuan kasuko arautegiaren arabera eragiketa komertzialetan enpresa hornitzaileei ordaindu beharrekoa geroratzeko informazioari buruz xedatutakoa betetzeko asmoz, Visesak urteko kontuetan azken ekitaldietan enpresa hornitzaileei egindako ordainketen gerorapenei buruzko informazioa eskaintzen du.

34. taula. Hornitzaileek ordaintzeko batez besteko aldia.

	2020	2021	2022	Ald. %
Enpresa hornitzaileei ordaintzeko b. b. aldia - egunak.	22	22	25	13,6
Ordaindutako eragiketen ratioa - egunak	22	22	25	13,6
Ordaintzeke dauden eragiketen ratioa - egunak	13	7	12	71,4
Eginiko ordainketak, guztira - mila €	45.313	49.526	42.866	-13,4
Ordaintzeke dauden ordainketak, guztira - mila €	1.800	1.677	5.418	223,0

Iturria: Visesaren urteko kontu ikuskatuak

Bere urteko kontuen bidez, Visesak sozietatearen kreditu-zorren xehetasunen berri ematen du, eta ia-ia gehienak bere akziodunak diren erakunde finantzarioekin ditu.

35. taula. Kreditu-erakundeekiko zorrak 12-31n.

	2020	2021	2022	Ald. %
Epe laburrerako zorra (milaka €)	12.885	3.794	104	-97,2
Epe luzerako zorra (milaka €)	33.558	14.875	0	-100,0
Zorra guztira (milaka €)	46.443	18.669	104	-99,4

Iturria: Visesaren urteko kontu ikuskatuak

Kanpoko finantziazio hori merkatuko interes-tasen arabera dago kontratatuta.

4.4. TALDEA
4.4.1. Visesako pertsonak

Gaur egun, honelaxe dago banatuta **Visesako Administrazio Kontseilua**:

36. taula. Administrazio Kontseiluaren banaketa.

BANAKETA, GENEROAREN ARABERA	2020		2021		2022	
	Em.	Giz.	Em.	Giz.	Em.	Giz.
Pertsonak, generoaren arabera (kop.)	1	9	1	9	1	9
Pertsonak guztira (kop.)	10		10		10	

Iturria: Visesa

Visesako Zuzendaritza Lantaldea honelaxe dago banatuta:


37. taula. Zuzendaritza Lantaldearen banaketa.

BANAKETA, ADINAREN ARABERA	2020		2021		2022	
	Em.	Giz.	Em.	Giz.	Em.	Giz.
Pertsonak, generoaren arabera (kop.)	3	4	3	4	3	4
Batez besteko adina (urteak)	50,7		51,7		52,7	
Batez besteko antzintasuna (urteak)	13,9		14,9		15,9	

Iturria: Visesa

Visesak 89 profesional zituen 2022ko abenduaren 31n, eta horietatik % 64 emakumeak ziren (ehuneko hori ia horrela mantendu da azken urteetan).

15. grafikoa. Plantillako emakumeen eta gizonen portzentajea urteko abenduaren 31n



Sozietateko zuzendaritzaren eta antolakuntzaren esparruan dauden bitartean, Visesako langile guztiei 2017ko otsailaren 16an ALHAOn argitaratutako Visesa Sozietate Publikoko Hitzarmen Kolektiboa ezarriko zaie. Erakunde publikoa denez, antolakuntzako aldaketen berri aurretiaz emateko epealdiak legealdien menpe egongo dira.

Honako hauxe da pertsonen banaketa, erakundearen dituzten karguen arabera:

38.a. taula. Langile-taldearen banaketa abenduaren 31n, karguen arabera.

LANGILE-TALDEAREN BANAKETA, KARGUEN ARABERA	2020		2021		2022	
	76		77		77	
KONTRATU MUGAGABEDUNAK	Ema.	Giz.	Ema.	Giz.	Ema.	Giz.
	▪ Zuzendariak	3	4	3	4	3
▪ Goi-maila tituludunak	18	20	18	21	18	21
▪ Teknikari ertainak	8	2	9	2	9	2
▪ Administrariak	19	2	18	2	18	2
ALDI BATERAKO KONTRATUDUNAK	9		9		12	
	Ema.	Giz.	Ema.	Giz.	Ema.	Giz.
▪ Zuzendariak	0	0	0	0	0	0
▪ Goi-maila tituludunak	1	3	2	3	2	2
▪ Teknikari ertainak	1	0	1	0	1	0
▪ Administrariak	3	1	2	1	6	1
PERTSONAK GUZTIRA	85		86		89	
	Ema.	Giz.	Ema.	Giz.	Ema.	Giz.
▪ Zuzendariak	3	4	3	4	3	4
▪ Goi-maila tituludunak	19	23	20	24	20	23
▪ Teknikari ertainak	9	2	10	2	10	2
▪ Administrariak	22	3	20	3	24	3

Ema.: emakumeak / Giz.: gizonak. Iturria: Visesa

2022an, emakumeak plantilla osoaren % 64 ziren, eta % 46k erantzukizun handieneko lanpostuak dituzte (zuzendariak eta goi-mailako tituludunak).

38.b. taula. Langile-taldearen banaketa abenduaren 31n, karguen eta probintzien

BANAKETA, KARGUEN ETA PROBINTZIEN ARABERA	2020						2021						2022					
	Araba		Bizk.		Gipuz.		Araba		Bizk.		Gipuz.		Araba		Bizk.		Gipuz.	
Kontratu mugagabedunak	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G
▪ Zuzendariak	3	4	0	0	0	0	3	4	0	0	0	0	3	4	0	0	0	0
▪ Goi-maila tituludunak	17	19	1	0	0	1	17	20	1	0	0	1	17	20	1	0	0	1
▪ Teknikari ertainak	6	2	1	0	1	0	7	2	1	0	1	0	6	2	2	0	1	0
▪ Administrariak	15	1	3	0	1	1	13	1	4	0	1	1	13	1	4	0	1	1
Aldi baterako kontratudunak	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G
▪ Zuzendariak	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
▪ Goi-maila tituludunak	1	3	0	0	0	0	2	3	0	0	0	0	2	2	0	0	0	0
▪ Teknikari ertainak	1	0	0	0	0	0	1	0	0	0	0	0	1	0	0	0	0	0
▪ Administrariak	3	1	0	0	0	0	2	1	0	0	0	0	3	1	2	0	1	0
Pertsonak guztira	76		5		4		76		6		4		75		9		5	

Ema.: emakumeak / Giz.: gizonak. Iturria: Visesa

Visesako plantillaren batez besteko adina 35 eta 50 urte bitartekoa da.

39.a. taula. Langile-taldearen banaketa, adinaren arabera.

BANAKETA, ADINAREN ARABERA	2020		2021		2022	
	Ema.	Giz.	Ema.	Giz.	Ema.	Giz.
▪ 35 urtetik behera	1	0	1	1	3	2
▪ 35 - 50 urte	35	17	30	16	29	13
▪ 50 urtetik gora	17	15	22	16	25	17
Pertsonak, generoaren arabera (kop.)	53	32	53	33	57	32
Pertsonak guztira (kop.)	85		86		89	

39.b. taula. Langile-taldearen banaketa adinaren eta probintzien arabera.

BANAKETA, ADINAREN ETA PROBINTZIEN ARABERA	2020						2021						2022					
	Araba		Bizk.		Gipuz.		Araba		Bizk.		Gipuz.		Araba		Bizk.		Gipuz.	
	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G
▪ 35 urtetik behera	1	0	0	0	0	0	1	1	0	0	0	0	1	2	1	0	1	0
▪ 35 - 50 urte	30	16	4	0	1	1	24	15	5	0	1	1	22	12	6	0	1	1
▪ 50 urtetik gora	15	14	1	0	1	1	20	15	1	0	1	1	22	16	2	0	1	1
Pertsonak guztira	76		5		4		76		6		4		75		9		5	

Iturria: Visesa

Visesako plantillaren batez besteko antzintasuna 10-20 urte artekoa da.

40.a. taula. Visesako langile-taldearen banaketa, antzintasunaren arabera.

ANTZINATASUNA	2020		2021		2022	
	Ema.	Giz.	Ema.	Giz.	Ema.	Giz.
▪ 0 - 2 urte	4	3	3	5	7	3
▪ 2 - 5 urte	5	6	6	6	3	4
▪ 5 - 10 urte	2	0	1	0	4	3
▪ 10 - 20 urte	34	20	33	19	28	18
▪ 20 urtetik gora	8	3	10	3	15	4
Pertsonak, generoaren arabera (kop.)	53	32	53	33	57	32
Pertsonak guztira (kop.)	85		86		89	

40.b. taula. Langile-taldearen banaketa antzintasunaren eta probintzien arabera.

BANAKETA, ANTZINATASUNAREN ETA PROBINTZIEN ARABERA	2020						2021						2022					
	Araba		Bizk.		Gipuz.		Araba		Bizk.		Gipuz.		Araba		Bizk.		Gipuz.	
	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G
▪ 0 - 2 urte	4	2	0	0	0	1	3	4	0	0	0	1	4	3	2	0	1	0
▪ 2 - 5 urte	4	6	1	0	0	0	5	6	1	0	0	0	3	3	0	0	0	1
▪ 5 - 10 urte	1	0	1	0	0	0	0	0	1	0	0	0	2	3	2	0	0	0
▪ 10 - 20 urte	32	19	2	0	0	1	31	18	2	0	0	1	25	17	3	0	0	1
▪ 20 urtetik gora	5	3	1	0	2	0	6	3	2	0	2	0	11	4	2	0	2	0
Pertsonak guztira	76		5		4		76		6		4		75		9		5	

Iturria: Visesa

Plantilla gehiena lanaldi osoko kontratu mugagabea duten langileek osatzen dute:

41.a. taula. Langile-taldearen banaketa, lanaldiaren eta kontratu-motaren arabera.

Lanaldia	Kontratua	2020		2021		2022	
		Ema.	Giz.	Ema.	Giz.	Ema.	Giz.
Osoa	Mugagabea	44	28	44	29	43	29
	Aldi baterakoa	3	4	3	4	7	3
	Gutzizko partziala	47	32	47	33	50	32
Mugatua	Mugagabea	4	0	4	0	5	0
	Aldi baterakoa	2	0	2	0	2	0
	Gutzizko partziala	6	0	6	0	7	0
Pertsonak guztira		55	32	53	33	57	32

Iturria: Visesa

41.b. taula. Langile-taldearen banaketa, lanaldiaren, kontratu-motaren eta probintzien arabera.

Lanaldia	Kontratua	2020						2021						2022					
		Araba		Bizk.		Gipuz.		Araba		Bizk.		Gipuz.		Araba		Bizk.		Gipuz.	
		E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G
Osoa	Indefinido	38	26	5	0	1	2	37	27	5	0	2	2	36	27	5	0	2	2
	Temporal	3	4	0	0	0	0	3	4	0	0	0	0	4	3	2	0	1	0
Mugatua	Indefinido	3	0	0	0	1	0	3	0	2	0	0	0	3	0	2	0	0	0
	Temporal	2	0	0	0	0	0	1	0	0	0	0	0	2	0	0	0	0	0
Pertsonak guztira		76	5	4	4	75	7	4	75	9	5	5	75	9	5	5	5	5	5

Iturria: Visesa

Plantilla gehiena mantendu egin da. Hala ere, **borondatezko** lau **baja** izan dira 2020an, bi baja 2021ean eta baja bat 2022an. 2022an izan ezik, azken urteetan ez da nahi gabeko bajarik edo kaleratzerik izan.

42. taula. Borondatezko bajak eta subrogazioak.

BORONDATEZKO BAJAK	2020		2021		2022	
	Ema.	Giz.	Ema.	Giz.	Ema.	Giz.
▪ 35 urtetik behera	0	0	0	0	0	0
▪ 35 - 50 urte	1	1	2	0	1	0
▪ 50 urtetik gora	2	0	0	0	0	0
Pertsonak guztira	4	1	2	0	1	0

Iturria: Visesa

43. taula. Nahi gabeko bajak/kaleratzeak.

NAHI GABEKO BAJAK	2020		2021		2022	
	Ema.	Giz.	Ema.	Giz.	Ema.	Giz.
Pertsonak guztira	0	0	0	0	1	0

Iturria: Visesa

Ordainsari-politika berdina da emakumeentzat eta gizonentzat. Gizonen batez besteko ordainsaria emakumeena baino handiagoa da, beste alderdi batzuen artean, administrari-postuek ehuneko handia hartzen dutelako (2022an % +/-30) eta postu horiek batez ere emakumeek betetzen dituztelako.

44. taula. Batez besteko soldata.

BATEZ BESTEKO SOLDATA	2020		2021		2022	
	Ema.	Giz.	Ema.	Giz.	Ema.	Giz.
▪ Zuzendari nagusia	85.379		86.148		89.163	
▪ Zuzendariak	69.962		70.591		73.062	
▪ Goi-mailako tituludunak	47.324-60.615		47.750-61.161		49.422-63.301	
▪ Teknikari ertainak	37.819-43.730		38.160-44.124		39.495-45.668	
▪ Administrariak	25.447-35.786		25.676-36.108		26.575-37.372	

Iturria: Visesa

Lanbide arteko gutxieneko soldata 1.080 euro gordinekoa da hilean (99/2023 Errege Dekretua, otsailaren 14koa, lanbide arteko gutxieneko soldata finkatzen duena). Iturria: Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioa, Visesak batez besteko ordainsaria baino txikiagoa.

4.4.2. Hautaketarako eta barne-igoerarako prozesuak

Visesako pertsonak hautatu eta kontratatzeke orduan, berdintasunaren, merezimenduaren eta gaitasunaren printzipioak hartzen dira kontuan. Izan ere, bertako kontratazioarako politika bat dator Langileen Estatutuarekin eta Hitzarmen Kolektiboarekin edo, besterik ezean, EAEko Administrazioaren zerbitzurako Lan Taldeen Hitzarmenarekin, baita derrigorrean bete beharreko indarreko gainerako arauekin ere.

Laneko kontratazioarako espediente guztien hasieran, epaimahaia eratzen da, eta, horrelako prozesuen gardentasuna zein objektibotasuna bermatzeko asmoz, honako hauexek egongo dira bertan: zuzendari nagusia, arloko zuzendaria, pertsonen zuzendaria eta Enpresa Batzordeko ordezkari bat. Kontratazio-prozesua hasten denean Visesako pertsonen jakinarazten zaie haien ordezkarien bidez eta korporazioaren atarian argitaratuz.

Lan-kontratazioa egiteko orduan, honako hurrenkera hau hartzen da kontuan izangaiak hautatzean:

- Lehenengo eta behin, barne-igoeran eskaintzen zaie deialdiko oinarrietan aurreikusitako baldintzak betetzen dituztenei.
- Bigarrenaz, lanpostu horretan ezarri beharreko indarreko lan-politsetara jotzen da, egon badaude.
- Hirugarrenez, enpresatik kanpo eskaintzen da deialdi irekiaren bidez.

Kontratazioarako espediente guztiek interesdunen arteko aukera-berdintasunaren irizpideak egiaztatzen dituzte. Lan-kontratazioak ez dauka inolako eraginik hautaketa-prozesuetan zehaztutako irizpideetan.

45. taula. Barne-igoera.

Barne-igoera	2020		2021		2022	
	Ema.	Giz.	Ema.	Giz.	Ema.	Giz.
Adinaren arabera:						
▪ 35 urtetik behera	0	0	0	0	0	0
▪ 35 - 50 urte	1	1	2	2	1	1
▪ 50 urtetik gora	0	1	1	1	0	0
Pertsonak guztira	1	2	3	3	1	1
Probintzien arabera:						
▪ Araba	1	2	3	3	1	1
▪ Bizkaia	0	0	0	0	0	0
▪ Gipuzkoa	0	0	0	0	0	0

Barne-igoera indizea (%)	2018	2019	2020	Ald. %
		%3,6	%3,7	%2,3

Iturria: Visesa

Kasu gehienetan, kanpo kontratazioak lan-poltsen eta deialdi irekien bidez bete dira.

46. taula. Kontratazio berriak.

Kontratazio berriak	2020		2021		2022	
	Ema.	Giz.	Ema.	Giz.	Ema.	Giz.
▪ 35 urtetik behera	0	0	0	1	2	1
▪ 35 - 50 urte	5	2	2	1	5	0
▪ 50 urtetik gora	0	0	1	0	1	0
Pertsonak guztira	5	2	3	2	8	1
Probintzien arabera:						
▪ Araba	5	1	3	2	5	1
▪ Bizkaia	0	1	0	0	1	0
▪ Gipuzkoa	0	0	0	0	2	0

Txandaketa-indizea (%)	2018	2019	2020	Ald. %
		%9,2	%3,6	%7,3

Iturria: Visesa

4.4.3. Pertsonen prestakuntza eta garapena

Visesarentzat, bere kapital nagusiaren, giza kapitalaren, prestakuntza funtsezko eta lehentasunezko elementua da. Hori dela eta, prestakuntza eraginkortasunez kudeatu nahian, prestakuntzarako politikaren bitartez zehaztu ditu bere printzipio nagusiak honako hauxe bermatzeko:

- Erakundeko pertsonen eguneraketa profesionala sustatzea haien zeregin eta erantzukizunen garapenean, baita lanpostuko tresnen ezagutza eta erabilera hobean ere.
- Prestakuntza enpresako helburu estrategikoetarantz bideratzea eta, horretarako, prestakuntza-planak nahiz lerro estrategikoak lerrokatzea.
- Pertsonen hazkuntza profesionala suspertzea, ahal den neurrian haien kezkek kontuan hartuta.

Prestakuntza jasotzeko orduan, langile guztien berdintasunaren printzipioa ezartzen da. Prestakuntzarako ekintzak enpresak Urteko Prestakuntza Planean aurreikusi eta zehaztutakoak dira, baita Prestakuntza Plana onartu osteko prestakuntza-ekintzak ere (Visesako Hitzarmen Kolektiboko 74. artikuluan xedatutakoaren arabera).

Urtero, Visesak prestakuntza-plana egiten du, eta, bertan, esleitutako zereginak behar bezala garatzeko prestakuntzaren arloko premia esanguratsuenak agertzen dira. Beti-beti, prestakuntza-plana bat dator honako hauexekin: Estrategia - Kudeaketa Plana, urteko aurrekontua eta langileen trebetasun pertsonalak nahiz profil profesionalak.

Visesak bi ikuspegitatik kontuan hartu du lerrokadura hori: denborazkoa eta formala:

- Denborazko ikuspegitik, jarduketan egutegia zehaztu denez, Prestakuntza Plana egitean Estrategia - Kudeaketa Plana eta aurrekontua ditugu.
- Ikuspegi formaletik, bere xedea, ikuspegia eta balioak kontuan hartuta, Visesak helburu estrategikoak zehazten ditu; eta, horren ondorioz, ekintzetan nahiz hobekuntza-proiektuetan gauzatutako helburu eragileak.

Hona hemen urteko prestakuntza-plana egiteko faseak:

- Premiak antzematea
- Prestakuntzako premiak lehenestea
- Prestakuntza Plana egitea
- Prestakuntza Plana betearaztea
- Aurrekontua egitea
- Planen aurreikusita ez zeuden beste prestakuntza-ekintza batzuk sartzea
- Prestakuntza Plana kudeatzea
- Jarraipena eta ebaluazioa egitea
- Ezagutza partekatzea
- Emaizten adierazleak zehaztea

Visesan garatutako prestakuntzan (txosten honetako kasuan kasuko ataletan aipatutako ingurumenekoaz, laneko arriskuen edo datu-babesaren aurkako prebentzioa), Visesako langileen funtsezko trebetasunen, zeharkakoen eta berezien garapena landu da.

47. taula. Prestakuntzako datu orokorrak.

Prestakuntza	2020		2021		2022		Ald. %
Prestakuntza Planaren betearazpen-maila (%)	%59,1		%32,1		%42,8		33,5
Egindako ikastaroak (kop.)	752		752		320		-57,4
Bertaratutakoak guztira (kop.)	80		83		88		6,0
	Ema.	Giz.	Ema.	Giz.	Ema.	Giz.	
	49	31	52	31	56	32	
Bertaratutakoak, langile guztiak kontuan hartuta (%)	%96,8		%100		%100		0,0
Orduak / pertsona (kop.) (on line pres. gabe)	38,7		33,5		36,0		7,3
Orduak / pertsona (kop.) (on line pres.)	73,1		44,9		57,3		27,6
Prestakuntzako inbertsioa (€/pertsona)	740,2		462,4		575,1		24,4

Orduei eta pertsoneri buruz emandako informazioan, ez da hizkuntzetako prestakuntza kontuan hartu. Iturria: Visesa

Egoera sanitarioak azken urte hauetako prestakuntza baldintzatu du. On-line prestakuntzaren presentzia aurreko urteetan baino askoz handiagoa izan da, prestakuntza egin duten % 100 izatera helduz, eta partida horretarako onetsitako aurrekontu osoa erabili da. Prestakuntza-ekintzetan 2021eko eta 2022ko batezbesteko balorazioa 7,58 eta 7,39 (E 0:10) izan da, hurrenez hurren.

Hona hemen kategorien arabeko prestakuntzaren banaketa. Horretarako, kategoria bakoitzean inbertitutako euroen % erkatu ditugu Visesako kategoria bakoitzeko pertsonen %ekin. Ikastaroen kostuengatik, bi ehunekoak urrun badaude ere, nolabaiteko lotura izan beharko lukete, 2013ko urteko datuen ikusten den bezala.

48. taula. Prestakuntzaren banaketa, kategorien arabera.

Prestakuntzaren banaketa	2020		2021		2022	
	% €	%pertsonak	% €	%pertsonak	% €	%pertsonak
Zuzendariak	%13	%6	%5	%9	%4	%8
Tituludunak eta teknikariak	%71	%64	%68	%64	%79	%63
Administrariak	%16	%27	%27	%27	%17	%29
GUZTIRA	%100 (85 lagun)		%100 (86 lagun)		%100 (89 lagun)	

Iturria: Visesa

4.4.4. Berdintasuna, uztarketa eta onura sozialak

Bere eragiketetan eta langileen Hitzarmen Kolektiboan, Visesak zenbait neurri ezartzen ditu uztarketarako, denboraren malgutasunerako eta lan-eremurako, baita langile guztientzat eskuragarri dauden beste onura sozial batzuk ere. Esate baterako:

- Ordutegi malgua (24.-26. artikulua)
- Lanaren eta familiaren uztarketa (24.-26. artikulua)
- Cateringa (kostu osoaren 2/3)
- Etxetik lan egiteko modalitatea (tefelana). Lan-bizitza eta bizitza pertsonalaren arteko bateratze egokia laguntzeko xedez, langileek eskubidea izango dute telelana eskatzera, gehienez 3 egunez. Era berean, Viserako beste zentro batzuetan lanaldiak garatzea eskatu ahalko dute, etxetik gertuago dauden zentroetan lan egiteko, gure hitzarmenaren 14. artikulua dioen legez.

49. taula. Telelana.

Telelana	2020		2021		2022		% bar.
Telelaneko modalitatea duten pertsonak	10		15		29		93,3
	Ema.	Giz.	Ema.	Giz.	Ema.	Giz.	
	7	3	12	3	18	11	
Beste zentroetan dauden pertsonak (14. art)	5		9		3		-66,7
	Ema.	Giz.	Ema.	Giz.	Ema.	Giz.	
	2	3	3	6	1	2	

Iturria: Visesa

- Enpresaren konturako prestakuntza lanaldian bertan (74. artikulua)
- Nominaren aurrerakinak (63. artikulua)
- %0ko interesaren arabera mailegu abantailatsuak (egin gabeko laneko ordainsarien konturako abonamendua -zenbait baldintza bete behar dira hori lortzeko-. Enpresa osoan emandako mailegu bizen gehienezko saldoa ez da soldaten %2 baino handiagoa izango guztira, eta eskaera-hurrenkeraren arabera banatuko dira) (63. artikulua),

50. taula. Maileguak.

Emandako maileguak - €	2020	2021	2022	Ald. %
Emitza	6.000	23.000	24.000	4,3

Iturria: Visesa

- Langileen Estatuetakoak baino lizentzia hobeak; esaterako, mudantzetarako baimenak, amatasuna, aitatasuna, norberaren eginbeharrak... (37., 54., 55., 57. eta 61. artikulua)
- Senideak zaintzeko erraztasunak (24.-26. artikulua)
- Bizi eta istripu aseguruak (64. artikulua)

51. taula. Bizi eta istripu aseguruak.

Bizi eta istripu aseguruaren estaldura - €	2020	2021	2022	Ald. %
Bizia	33.000	33.000	33.000	0,0
Istripua	60.101	60.101	60.101	0,0
Istripuagatikoko heriotza	120.000	120.000	120.000	0,0

Iturria: Visesa

- Aurreikusi gabeko beste era bateko arreta sozialak eta ezohiko egoerak finantzatzeko fondo soziala. Sindikatuekin negoziatu ondoren, Administrazio Kontseiluak erabakiko du fondo sozial hori zenbatekoa den (66. artikulua)

52. taula. Fondo soziala.

Fondo soziala - €	2020		2021		2022		Ald. %
Zuzkidura guztira (€)	18.174,00		17.439,00		17.836,25		2,3
Kontsumitutako gizarte-funtsa zuzkidura osoaren gainean (€)	13.539,74		17.838,80		14.751,99		-17,3
Funts sozialarekin on egindako pertsonak(kop.)	Ema.	Giz.	Ema.	Giz.	Ema.	Giz.	
	36	19	41	19	28	14	

Iturria: Visesa

- Gaitasun urrikoak. Organismo eskudunek norbaiti bere lanpostuko eginkizunak garatzeko ezintasuna aitortzen badiote, lehentasunezko eskubidea izango du bere egoera fisikoarekin eta gaitasun profesionalekin bat datorren lehenengo lanpostu hutsa betetzeko (67. artikulua),
- Euskararen Normalkuntza eta Erabilerarako Plana. Prestakuntza horren finantziazioa %100ekoa izango da herritarrien arretarako bulegoetako langileentzat, eta gainerako sailei %75ekoa emango zaie (laguneko gehienezko zenbatekoa: 1.200 € eta lanaldian garatutako asteko 4 ikastordu) (75. artikulua),

53. taula. Euskarako prestakuntza.

Euskara	2020		2021		2022		Ald. %
Bertaratutakoak guztira (kop.)	17		23		19		-17,4
	Ema.	Giz.	Ema.	Giz.	Ema.	Giz.	
	10	7	15	8	11	8	
Langile guztiak kontuan hartuta bertaratutakoak (%)	%20,0		%28,02		%21,80		-22,2
Prestakuntza-orduak guztira (h)	1.271		2.326,50		1.814		-22,0
Laguneko orduen batezbestekoa (h)	74,74		101,15		95,47		-5,6

Iturria: Visesa

54. taula. Beste hizkuntza batzuetako prestakuntza.

Beste hizkuntza batzuk	2020		2021		2022		Ald. %
Bertaratutakoak guztira (kop.)	2		0		0		0,0
	Ema.	Giz.	Ema.	Giz.	Ema.	Giz.	
	1	1	0	0	0	0	
Langile guztiak kontuan hartuta bertaratutakoak (%)	%2,4		%0,0		%0,0		0,0
Prestakuntza-orduak guztira (h)	81		0		0		0,0
Laguneko orduen batezbestekoa (h)	40,5		0		0		0,0

Iturria: Visesa

Sozietateko zuzendaritzaren eta antolakuntzaren esparruan dauden bitartean, Visesak langile guztiei ezarriko zaizkie onura sozialak.

Hona hemen azken ekitaldiko zenbait onura sozialei buruzko datu kuantitatiboak, baita onura horiei heltzeko eskubidea eduki eta benetan egin dutenei buruzkoak ere:

55. taula. Onura sozialak.

ONURA SOZIALAK	(1)		(2)		(1)		(2)		(1)		(2)	
	2020				2021				2022			
	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G
Uztarketarako neurriak												
Aitatasun-baimena	0	32	1	0	0	33	0	1	0	32	0	0
Amatasun-baimena (6. astetik aurrera)	53	0	1	0	53	0	0	0	57	0	2	0
Edoskitzeko baimena	53	32	1	0	53	33	0	1	57	32	2	0
Legezko zaintzagatiko lanaldi-murrizketa (12 urtetik beherakoak)	53	32	6	0	53	33	4	0	57	32	3	0
Adingabeak zaintzeko eszedentzia	53	32	0	0	53	33	0	0	57	32	3	0
Mendeko senideak zaintzeko eszedentzia	53	32	0	0	53	33	0	0	57	32	0	0

ONURA SOZIALAK	(1)		(2)		(1)		(2)		(1)		(2)	
	2020				2021				2022			
	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G
Uztarketa sustatzeko zerbitzuak												
Hurtzaindegia	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Jantokia	53	32	15	11	53	33	12	9	57	32	23	18
Gaixotasun kronikoa duten senideak zaintzeko baimena (50 ordu urtean).	53	32	9	2	53	33	4	3	57	32	9	6
Ordutegia malgua eta lan-eremua												
Sartzeko eta irteteko malgutasuna	53	32	53	32	53	33	53	33	57	32	57	32
Negoziatutako ordutegi malgua	53	32	15	5	53	33	25	6	57	32	20	8
Arrazoi pertsonalengatik eskaturiko eszedentzia ordaindu gabea. Ordaindu gabeko baimena	53	32	1	0	53	33	1	0	57	32	1	0
Telelana/eskaera iragankorrak	53	32	4	0	53	33	2	0	57	32	2	0
Arrazoi pertsonalengatik eszedentzia ordaingabekoa	53	32	2	2	53	33	0	1	57	32	2	1
Telelana	0	0	9	2	53	33	15	6	57	32	18	11
Bizilekutik hurbil	52	32	3	7	53	33	4	5	57	32	1	2

(1) Aukera zeukatenak. (2) Benetan egin dutenak. Iturria: Visesa

4.4.4.1. Berdintasunerako Plana

Visesako emakume eta gizonen arteko Berdintasun Planaren xedea da martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa betetzea, baita Enplegu eta lanaren arloan emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukera-berdintasuna bermatzeko presako neurrien martxoaren 1eko 6/2019 Errege Lege Dekretua ere.

Erakundearen lehentasuna da, lan-harremanak eta enpresaren pertsonak kudeatzeko funtsezko printzipiotzat jotzen delako, eta, zentzu horretan, enpresan Berdintasun Plana diseinatu, ezarri eta ebaluatzea halaberrezko tresna da.

Berdintasun Batzordea dago, orokorrean aukeren berdintasuna sustatzeaz arduratzen dela, lan-antolamenduan emakumeen arteko benetako berdintasuna laguntzen duen kultura baten oinarriak indartuz, bizitza lan- eta familia-bizitza eta bizitza pertsonala bateratzea ahalbidetzen duena. Batzordearen ardatza da emakume eta gizonena arteko benetako berdintasuna lortzeko konpondu beharreko egoerak identifikatu eta neurri zuzentzaileak edo hobekuntzakoak proposatzea.

2021ean amaitutzat eman zen Visesaren bigarren Berdintasun Plana (2018-2021), lorpen-maila egokiarekin, eta Visesaren hirugarren Berdintasun Plana onartu zen (2022-2025), Zuzendaritzaren eta Enpresa Batzordearen artean negoziatu zena, hura egiteko erabakigarria izan den onartutako araudi berriarekin bat etorritik:

- 902/2020 Errege Dekretua, urriaren 13koa, emakumeen eta gizonen ordainsari-berdintasunari buruzkoa.
- 901/2020 Errege Dekretua, urriaren 13koa, berdintasun-planak eta horien erregistroa arautzen dituen eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretua, laneko hitzarmen eta akordio kolektiboak erregistratu eta gordailutzeari buruzkoa, aldatzen duena.

Visesak lantalde bat eta negoziatio-batzorde paritario bat jarri ditu abian (enpresaren/langileen parte), Berdintasun Planaren diagnostikoa eta proposamena egiten lan egin dutenak. Plan hori 2021eko abenduan onartu zen, aurreikusitako kronograma eta aplikatu beharreko araudian jasotako baldintzak betez.

2022an Berdintasun Batzordearen erdigunea izan da sexu-jazarpena eta sexuagatiko jazarpena eta horien hedapena saihesteko protokoloa, baita guren obra- eta kontratu-zerbitzuetan emakumeek duten presentzia aztertzea ere.

Egungo Berdintasun Plana 2022ko urtarriletik 2025eko abendura arteko aldia hartzen du, eta helburu nagusi du enpresa-arloan emakume eta gizonen arteko tratua eta aukeren berdintasuna bermatzea, diskriminaziorik gabeko lan-giroa bultzatzeko, bereziki sexuagatiko diskriminaziorik ez duena. Herritarrekin hartutako konpromisoarekin lortutako honako helburu hauek zehazten dira:

- Berdintasuna sustatzea eta horrekin konpromisoa izatea:
 - Barne- eta kanpo-komunikazioak emakume eta gizonen arteko irudi berdinezalea sustatzen duela bermatzea.
 - Barnean eta kanpoan enpresak Berdintasun Planarekin duen konpromisoa argitaratzea.
- Hautatu eta kontratatze prozesua:
 - Bereizketa bertikal eta horizontala eta hizkera sexistaren erabilera saihesten duten hautaketa eta kontratazio prozesuak sustatzea. Bermatu nahi da enpresan sartzeko hautaketa-prozesuak gardenak direla lan-eskaintzen idazkera eta zabalketa ez-diskriminatzailea eginez.

- Lan-sailkapena:
 - Enpresaren jerarkiaren maila guztietan emakume eta gizonen presentzia orekatua dagoela bermatzea, baita ardurako postuetan ere.
- Trebakuntza.
- Lan-sustapena:
 - Lan-sustapen eta -garapenean emakume eta gizonen arteko aukeren berdintasun zuzena zein zeharkakoa egotea sustatu eta bermatzea.
 - Modu periodikoan enplegu eta sustapenaren egoeraren analisia egitea, aukera ez-parekideak saihesteko.
- Lan- eta familia-bizitzaren eta bizitza pertsonalaren eskubideak modu arduratsuan erabiltzea.
- Ordainsariak. Ordainsarien politika paritario eta objektiboa.
- Sexu-jazarpena eta/edo sexuagatiko jazarpena saihestea.

Gainera, Visesaren helburu horiek bat datoz Eusko Jaurlaritzaren berdintasunerako ardatzekin:

- 1. ardatza: berdintasunaren aldeko konpromisoa.
- 2. ardatza: pertsonak kudeatzea berdintasuneko irizpideei jarraituz.
- 3. ardatza: elkarerantzunkizunarekin bat eginez.
- 4. ardatza: lan-osasuna genero-ikuspegiarekin.
- 5. ardatza: genero-ikuspegia erabiliz komunikatzea.

Urte hauetan, lan-bizitza eta bizitza pertsonala bateragarri egiteari, sexu- eta genero-jazarpenari eta hizkuntza inklusiboari buruzko ikastaroak txertatu dira prestakuntza-planean, Berdintasun Batzordea osatzen dutenentzat eta erakundeko gainerako pertsonentzat.

56. taula. Berdintasuneko prestakuntzari buruzko datuak.

Berdintasuneko prestakuntza	2020		2021		2022		Ald. %
	Em.	Giz.	Em.	Giz.	Em.	Giz.	
Egindako ikastaroak (kop.)	4		0		0		0,0
Orduak guztira (orduak)	176,25		0,0		0,0		0,0
Bertaratutakoak guztira (kop.)	85		0		0		0,0
	55	30	0	0	0	0	
Orduen batez besteko kopurua bertaratu bakoitzeko (kopurua)	2,1		0,0		0,0		0,0

Iturria: Visesa

2021ean Visesaren Berdintasunerako bigarren Plana 2018-2021 amaitu zen, betetze-maila egokiarekin: % 80-

2022a hasi da Visesaren Berdintasunerako hirugarren Plana 2022-2025 onetsi eta erregistratzearekin, araudiak ezartzen duen legez, Lan eta Gizarte Ekonomia Sailaren Hitzarmenen, Lan Akordio Kolektiboen eta Berdintasun Planen Erregistroa eta Gordailuan.

4.4.5. Laneko segurtasuna eta osasuna
4.4.5.1. Laneko barruko arriskuen prebentzioko emaitzak (gure bulegoak)

Visesak Kanpoko Prebentzio Zerbitzua dauka laneko arriskuen prestakuntza eta langile guztien osasuna zaintzeko antolaera-eredu moduan. Bertan, hain zuzen ere, lan-baldintzen ondorioz sortutako arriskuak ebaluatzen dira, eta saihesteko edo gutxitzeko behar besteko urratsak zehazten dira. Prebentzio Zerbitzu horrek prebentzioaren arloko espezialitate guztiak hartzen ditu bere gain: Laneko Segurtasuna, Higiene Industrialia, Ergonomia eta Laneko Medikuntza.

Visesaren Segurtasun eta Osasun batzordea 2012an osatu zen modu paritarioan eta ordezkapen sozialerako 2 pertsonen osatzen dute, eta enpresaren zuzendaritzako beste 2k, baita Kanpoko prebentzio-zerbitzuko ordezkari batek ere (hitza badu, baina botorik ez). Visesako Segurtasun eta Osasun Batzordea modu parekidean eratu zen 2012an. Langileen ordezkari 2 kidek eta enpresako zuzendaritzako 2 kidek osatzen dute, baita Kanpoko Prebentzio Zerbitzuko ordezkari batek ere (hitza dauka, baina botorik ez). Segurtasun eta Osasun Batzordeak arlo horrekin lotutako ekintzen zaintza, garapena eta lorpena bultzatzen ditu: prebentziozko urteko eta urte anitzeko plana; arriskuen ebaluazioa; enpresa-jardueren koordinazioa; larrialdietako simulazioak eta planak; segurtasunari, higieneari eta ergonomiari buruzko aldizkako kontrolak eta ebaluazioak; jarraipen psikosoziala eta pertsonen prestakuntza.

Segurtasun eta Osasun Batzordeaz gain, berariazko lantaldeak sortu dira Visesaren lan-arriskuen prebentzioaren garapenetik eratorritako ekintzak aztertzeko eta martxan jartzeko: Talde Psikosoziala, Batzorde Arbitrala eta y EJK taldea (Enpresetako Jardueren Koordinazioa).

Visesan laneko osasun eta segurtasunaren sentsibilizazioaren alde egiten jarraitzen da; hori dela eta, prestakuntza planean honako arloetan hobetzeko ikastaroak sartu dira: elikagai-ohiturak, gidatzeko modu segurua, estresaren kudeaketa, jardueren koordinazioa eta telelanean trebatzea; horretaz gain Visesako instalazioetan ematen diren luzaketak, hipopresiboak eta/do pilates egiteko ikastaroak laguntzen jarraituko dal.

57. taula. Laneko arriskuen prebentzioko prestakuntzari buruzko datuak.

LAPeko prestakuntza	2020		2021		2022		Ald. %
	Em.	Giz.	Em.	Giz.	Em.	Giz.	
Egindako ikastaroak (kop.)	8		5		7		40,0
Orduak guztira (h)	440		52		389		648,1
Bertaratutakoak guztira (kop.)	185		33		98		197,0
	113	72	21	12	66	32	
Orduen batez besteko kopurua bertaratu bakoitzeko (kopurua)	2,4		1,6		4,0		151,9

Iturria: Visesa

2022an Visesan COVID-19a kudeatzeko izendatu zen batzorde espezifiko desegin den, eta ardura hori Segurtasun eta Osasun Batzordeari eman zitzaion, neurriak kudeatu eta malgutzen joan izan denari. Horri esker jantokiaren, ibilgailuen eta aretoen erabilera normalizatu ahal izan da, besteak beste. Era berean, CO₂-aren kontzentrazioa neurtzeko sistema proposatuko da, erabilera partekatutako eremuetan arriskuak murrizteko.

Pertsonen osasun psikikoarekin ere sentsibilizatuta daude; izan ere, 2022an, Segurtasun eta Osasun Batzordeak epe luzean bajaran egon diren eta laguntza psikologikoa behar duten pertsonak laguntzeko ekintzak onetsi ditu. Era berean, lan-karga eta lan-harremanak kudeatzeko ikastaroak sartu dira.

Bestalde, larrialdietarako ekipoak berritu eta lehen sorospenerako eta suteak itzaltzeko ikastaroak eman dira.

Elikaduraren eta eguneroko catering zerbitzuari dagokionez, menuak etengabe berrikusten dira kalitate gehiagoko produktuak sartzeko eta hala aukera osasuntsu eta orekatuak eskaintzeko.

Enpresetako Jardueren Koordinazioaren (EJK) sistematikaren identifikazioa, ebaluazioa eta zehaztapenari dagokionez, Visesak EJKren dokumentuen kudeaketa ezarri du "Koordinatu" plataformaren bidez, "Saldu Osteko Fasean prebentzioa integratzea" prozesuan. Horrek guztiak zuzenean edo zeharka Visesaren menpe dauden instalazioetan zerbitzuak ematen dituzten enpresekin segurtasuna eta prebentzioa koordinatzen laguntzen du.

Osasunaren zainketaren arloan, proba espezifikoak mantentzen dira, gizonentzat zein emakumeentzat, kanpoko prebentzio-zerbitzuak zehaztutako osasun-azterketatik harago, prebentziorako eta pertsonen osasuna eta ongizatea laguntzeko. 2022an 40 pertsonak hartu zuten parte (28 emakume eta 12 gizon) eta horren helburua da arriskuan dauden kolektiboetan gaixotasunak prebenitzea eta pertsonen osasuna eta ongizatea laguntzea.

58. taula. Lan-orduak eta absentismoa.

Lan-azterketa	2020	2021	2022	Ald. %
Langile-taldea batez beste (kop.)	82,66	82,07	87,15	6,2
Lan-orduak guztira (h)	1.820,5	1.820,5	1.820,5	0,0
Urtean lan egindako orduak (h)	1.547	1.547	1.547	0,0
Lan egindako orduak guztira (h)	126.854	133.042	137.683	3,5
Absentismo (1+2) (%)	%6,42	%4,91	%7,07	44,0
Abs.1 (lizentziak eta bajak...) (%)	%5,15	%4,88	%5,76	18,0
Abs. 2 (amatasun/aitatasun bajak) (%)	%1,27	%0,03	%1,31	4.266,7

Iturria: Visesa

Pandemian zehar, segurtasun eta osasunaren ardatza izan da inguru segurua bermatzeko neurriak jartzea. Horretarako lanpostuak moldatu, protokolo eta jarraibideak prestatu eta familia-arloan konfinamenduko kasuak izan dituzten malgutasun neurriak jarri ziren.

59. taula. Visetako langileen ezbeharrak eta istripu-indizeak.

Ezbeharren azterketa	2018		2019		2020		Ald. %
Bajadun lan-istripuak (kop.)	1		0		0		0,0
Baja-egunak (LI) (egunak)	3		0		0		0,0
Gaixotasun profesionalak (kop.)	0		0		0		0,0
Baja-egunak (GP) (egunak)	0		0		0		0,0
Bajarik gabeko LI edo GP (kop.)	4		0		0		0,0
	vis.	jar.	vis.	jar.	vis.	jar.	Ald. %
Eraginaren indizea	0,00	76,60	0,00	63,60	0,00	79,80	0,0
Maiztasunaren indizea	0,00	38,10	0,00	35,80	0,00	36,60	0,0
Larritasunaren indizea	0,00	1,28	0,00	1,32	0,00	1,32	0,0

vis.: visesa / jar.: jardueraren indizea / Iturria: Visesa eta Mutualiako ezbeharrei buruzko azterketa

4.4.5.2. Laneko kanpo-arriskuen prebentzioko emaitzak (Visesaren obrak)

Visesak lanean jarraitzen du, bere sustapen guztietan segurtasun eta osasun arloko baldintzak zaintzeko eta hobetzeko. Izan ere, helburu irmo bezain zuzena dauka, EAEko eraikuntzaren sektoreko lan-ezbeharrak murrizteko eta desagerrarazteko. Horretarako, pertsona guztiak inplikatzeko ditugu, sustapen guztietan ezbeharrak ez edukitzeko ideala lortzeko.

2005ean, Visesaren **sustapenen segurtasun- eta osasun-arloaren jarraipena egiteko jarduera espezifikoa** txertatu zen. Eginkizun nagusi hauek ditu:

- Prebentzioaren eta lanaren esparruko ustezko hobekuntza-arloak antzematea eta ekintza zuzentzaileen proposamena zein jarraipena egitea.
- Obran bertan, segurtasun zein osasuneko koordinatzailearen, enpresa kontratistaren eta azpikontraten prebentzio eta lan arloko kudeaketaren jarraipena egitea eta aholkularitza teknikoa eskaintzea.

Urteotan, honako hauexek izan dira jarduketa-lerroen helburuak:

- Proiektua egiteko fasean prebentzioa kontuan hartzea. Horretarako, segurtasun eta osasun arloko koordinatzailea kontratatzea fase horretan eta Visesatik segurtasun eta osasun arloko koordinatzailearen eta talde proiektugilearen arteko elkarrengana sustatzea, prebentzioa diseinuan bertan txertatzeko asmoz. Segurtasun eta osasun arloko koordinatzaileak, gainera, Segurtasun eta osasun Azterketa egiten du, betearazpen-proiektua egin bitartean.
- Azpikontratazioaren mugak (2005) zaintzea eta Azpikontratazioari buruzko 32/2006 Legea (2007) eta lege hori garatzeko 1109/2007 Errege Dekretua betetzen direla bermatzea.
- Honako hauexek bete egiten direla bermatzea: ezarri beharreko hitzarmenak, probintzialak ere bai (lanaldiak, lan-egutegiak, soldaten taulak...); Eraikuntzaren Sektoreko V. Hitzarmen Orokorra (2012-2016) (segurtasun, osasun eta prestakuntza arloko gutxieneko xedapenak); Beirari eta Errotuluei buruzko Hitzarmen Estatala; egurgintzako Hitzarmen Kolektibo Estatala; eta Metalgintzako Hitzarmen Estatala.
- Gure obretan lan egiten duten nazioz haraindiko enpresek arautegia betetzen dutela bermatzea: 96/71 Zuzentaraua; 45/99 Legea (Lan Agintaritzari langileen lekualdaketaren berri ematea, lantokiko hitzarmeneko soldaten taulak ezartzea, Hitzarmen Kolektiboaren araberrako lan-orduak...); 883/2004 eta 987/2009 araudiak; Europako Osasun Txartela; eta azpikontratazioa arautzen duten 32/2006 Legea nahiz 1109/2007 Errege Dekretua.
- Europar Batasunekoak ez diren langileei buruzko arautegia betetzen dela bermatzea; esate baterako, bizitzeko eta lan egiteko baimenak.

2013an, beste jarduera-ildo bat zehaztu zen, berankortasunaren aurkako araudia betetzen dela zaintzeko. Horretarako, enpresa kontratistak enpresa azpikontrastei edo hornitzaileei egiten dizkien ordaintzen epeak kontrolatu ziren, segurtasunera bideratutako baliabideen murrizketa, langileei ez ordaintzea eta gizarte-aseguruak ez ordaintzea saihesteko eta enpresen biziraupena bermatzeko.


Egindako jarduera-ildo horiek guztiek Visesaren esparruen kudeaketan hobekuntzak ezartzen lagundu dute:

- Hitzarmenak eta akordioak gizarte-eragileekin eta erakundeekin.
- Segurtasuna eta Osasuna Koordinatzeko agiri espezifikoak.
- Obra gauzatzeko baldintza-agiriak:

Visesa sustatutako obretako segurtasun eta osasun arloko liderra denez, eraikuntzaren sektoreko ezbeharrak murriztu ditu. Lidergo hori ezartzeko, eragileen kontratazioa, prebentziorako betebeharrak egozteko gaitasuna eta euren arteko elkarreraginerako mekanismoak zehazteko ahalmen zentralizatzen dira, baita laneko arriskuen prebentzioko trebetasun bereziak eskatzeko gaitasuna ere.

Visesak obretan egindako lanaren ondorio zuzen eta nabariena kontuan hartuta, lan-ezbeharrak nabarmen jaitsi direla esan beharra dago, EAEko eraikuntzaren sektoreko indizeen aldean. Hain zuzen ere, hurrengo grafikoa dugu horren adierazgarri. Aztergai izan dugun epealdian, langile batek Visesak obretan lan-istripua edukitzeko probabilitatea txikiagoa edo erdia izan da beti, sektoreko gainerako obren aldean. Hona hemen Visesak lankidetzatza-hitzarmenean garatutako eraikuntza-obren eraginaren indizeetako emaitzak:

16. grafikoa. Eraginaren indize metatuen erkapena (1.000 langileko)



Datu autonomikoen iturria: Osalan (hileko txostenak; abenduko eraginaren indize metatuak)

Etengabe ahalegintzen dira Visesaren sustapenetan lan egiten duten pertsonen segurtasun- eta osasun-baldintzak hobetzen, laneko ezbehar-tasa murrizten laguntzeko. **2007. urtetik ez da istripu hilgarriarik egon Visesaren sustapenetan** eta, zehazki, 2021ean eta 2022an, 9 eta 14 istripu gertatu dira, hurrenez hurren, eta ia guztiak arinak izan dira.

60. taula. Visesako obretako istripuen tipologia eta kopurua.

Visesako obretako segurtasuna - Kop.	2020	2021	2022	Ald. %
Istripu hilgarriak	0	0	0	0,0
Istripu larriak	0	0	1	100,0
Istripu arinak	10	9	13	44,4

Iturria: Visesa

4.4.6. Komunikazioa eta laneko harremanak

Barruko komunikazioa funtsezkoa da Visesan, eta oinarrizko eginkizun hauek ditu:

- Pertsona guztien partaidetza eta konpromisoa sustatzea eta, horretarako, biak garatzeko beharrezko kanalak zein bideak sortzea.
- Bertan parte hartzen duten guztiek Visesaren xedea, ikuspegia, helburuak eta balioak ondo interpretatu eta bere gain hartzen dituztela bermatzea.
- Visesako langileen atxikimendua eta inplikazioa indartzea, kidetza-sentipena suspertzeko.
- Visesako pertsona guztiei beharrezkoa den informazio egiazkoena, fidagarriena, egokiena eta zentzuzkoena ematea, euren erantzukizunak hobeto garatu ditzaten.

Visesak zenbait komunikazio-bide ditu, bertako langileen barruko edo sail arteko komunikazioa bultzatzeko.

L. taula. Visesako komunikazio-bideak.

Sistema orokorrak (goranzkoa, beheranzkoa eta horizontala)

- Administrazio Kontseilua
- Batzordeak eta lan-taldeak (Etxebizitza Sailarekiko bilerak, prozesuko taldeak, hobekuntza-taldeak...)
- Berdintasun Batzordea, Enpresa Batzordea, Segurtasun eta Osasun Batzordea, Euskara Batzordea, Ingurumen Batzordea, Produktu Batzordea eta Talde Solidarioa.
- Berezi bilerak, jardunaldiak eta Infobilerak
- ERP (enpresaren kudeaketa sistema)
- Intranet korporatiboa (Zerbitzuak)
- Proiektukako kudeaketa

Goranzko komunikazio-sistemak

- Hobetzeko iradokizunak
- Gorabeherak, kexak eta beste batzuk
- Pertsonen bi urtean behingo inkesta. Inkesta psikosoziala. Aldizkako beste inkesta edo txosten batzuk (prestakuntza)

Beheranzko komunikazio-sistemak

- Barruko zirkularrak eta oharrak (Intranet)
- Aginte-taula, adierazleak eta autoebaluazioak
- Etxebizitzako Plan Gidaria, Plan Estrategikoa, Urteko Kudeaketa Plana eta jarraipenak
- Urteko Kudeaketari buruzko Txostena, Urteko Ingurumen Adierazpena eta Bi urtez behingo Iraunkortasun Txostena.
- Iragarki-taula
- Langileen eta Zuzendaritza Nagusiaren arteko bilerak

Iturria: Visesa

Gainera, barne-komunikazioaren barruan sistematika bat dago, informatu beharreko taldearen eta eman beharreko informazio motaren (premia, xehetasun-maila eta konplexutasuna) arabera komunikazio-kanal egokiena hautatzeko.

Komunikazio-bideak aukeratutakoan, Komunikazio Plana egiten da, eta honako informazio hau azaltzen da bertan:

- Komunikatu beharreko gaiaren azalpena
- Irismena
- Igorleak eta hartzaileak
- Aurkeztu beharreko gutxieneko informazioaren eta arduradunen proposamena
- Komunikazio-bideen proposamena
- Azalpenerako epeak eta denborak
- Azalpenerako lekua

• **Pertsonen gogobetetasun-inkestak. Inkesta psikosozialak.**

Bi urtean behin, lan-giroari buruzko inkestak egin dira, pertsonak beren lan-jardunarekiko duten gogobetetasun-maila ezagutzeko. 2016an, lehenengo inkesta psikosoziala egin zen, eta, pertsonen arrisku psikosozialei buruzko lege-araudiari erantzuteaz gain, lan-giroari buruzko inkestan aztertzen diren faktore asko azpimarratu ziren.

Beraz, gaur egun bi urtean behin egiten dira lan-giroari buruzko inkesta bat eta beste inkesta psikosozial bat.

61. taula. Laneko giroari buruzko inkesten eta inkesta psikosozialen emaitza orokorrak.

Pertsonen gogobetetasunari buruzko inkestako emaitza orokorrak	2012	2014	2016	2018	2020	Ald. %
Parte hartzea inkestan (%)	%82	%58	%87	%55	%68	23,6
Inkestaren balioespena (inkestagileena) (E 0:10)	6,55	6,40	n.a.	6,60	n.a.	3,1
Gogobetetasun orokorra (galdera zuzena) (E 1:5)	5,32	5,27	n.a.	6,82	n.a.	19,9

e.a.: atributu horiek ez dira aplikatzen inkesta psikosozialetan (2016-2020). Iturria: Visesa

Inkesta horiek aztertzearen ondorioz, Hobetzeko Ekintza Plan zehazten eta onesten da, non inkesta horretan lorturiko emaitza kritikoeekin loturiko ekintzak biltzen diren.

• **Lan-harremanak**

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu Plan Estrategikoaren jarraibideekin bat etorriz, azken urteotan plantilla egungo jarduera-mailetara eta etorkizunerako planifikatutakora modu egokian dimentsionatzeko helburuarekin lan egin da, egonkortasuna bilatzera bideratuta.

Gaur egun Visesak 78 lanpostu dituen plantilla du onetsita. Kudeaketa pertsonalari dagokionez, 2022. urtea nabarmena da, urtearen amaieran lanpostu guztiak beteta daudelako. 2021. eta 2022. urteetan zehar behar bezala amaitu duten prozesuak egin dira.

Horretaz gain aldi baterako langileak kontratatu ditugu, eta nabarmentzen ditugu Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (BEEP, Next Generation Funtsak) esparru orokorraren barruan **etxebizitzak birgaitu eta etxebizitza sozialak eraikitzearen arloan laguntza**-programei erantzuna emateko Visesak abiarazi duen birgaitze-bulego eta entitate-kolaboratzailearen funtzioen kudeaketatik eratorritako jarduera garatzeko gauzatutako kontratazioak.

Bestalde, 2022an amaitutzat jotzen ditugu Koroatze proiektuari lotutako aldi baterako kontratu guztiak, proiektua amaitu delako.

Egoera horren ondorioz, 2022ko batezbesteko plantilla 87,15 puntukoa izan da, 2021ean (82,07) baino 5 puntu gehiago. Alde handiena aldi baterako langileen kopuruan dago; 2021ean 7,65 puntukoa izan da, eta 2022an, berriz, 11,7koa. Koroatze proiekturako jada genituen aldi baterako kontratuei Next Funtsen proiekturako kontratuak gehitu zaizkie, baita postuen erreserba duten pertsonak aldi baterako ordezeko kontratazioak ere.

4.5. ENPRESA LAGUNTZAILE ETA ALIATUAK


4.5.1. Sozietate Ierrokatuak

Alokabiderek, Etxebiderek, Eraikuntzaren Kalitatearen Laborategiarekin eta Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzekin batera, Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza-politika garatzeko Etxebizitza Sailari euskarria ematen dion balio-katea osatzen dugu.

Gure sinergiek aukera ematen digute lurzorua erosi, kudeatu eta urbanizatzeko, haien beharra egiaztatzen duten herritarrentzako kalitatezko etxebizitzak sustatzeko, eta EAEko etxebizitza babestu gehienek alokairua kudeatzeko.

Kalitatea Kudeatzeko Gure Sistema Integratua Euskaliten Kudeaketa Aurreratuaren Eredura bideratuta dago, eta jarraian agertzen den Prozesuen Maparen ingurukoa da, berau hedatzeko funtsezko elementua:

17. grafikoa. Viserako Prozesuen Mapa.



4.5.2. Laguntzaileak eta aliatuak

Bestetik, Visesak honako elkarte eta enpresa hauekin lan egiten du edo lan egin du:

M. taula. Elkarte eta enpresa laguntzaileak.

Aliatua / laguntzailea	Aliantza / Lankidetzak	Eragina	Interes-talde onuraduna
APD Hasiera: 2000	Zuzendaritzaren Aurrerapenerako Elkarteak.	Soziala	Akziodunak Pertsonak Gizartea
ACLIMA Hasiera: 2001	Euskadiko Ingurugiro Industrien klusterreko kideak, ingurugiroko eta jasangarritasuneko erreferentzia.	Soziala Ingurumenekoa Ekonomikoa	Akziodunak Pertsonak Bezeroak Gizartea
EUSKALIT Q-EPEA Hasiera: 2002	Lankidetzak Euskalitekin, eta, ondoren, honako hauekara hedatu da: 2003tik. EFQM Ebaluatzaileen Kluba (EFQM memorien ebaluazioak egiteko). 2004tik. 5S Kluba (5S metodologiaren ezarpena zabaltzeko eta hobetzeko). 2005etik. Q-epa (kudeaketako ezagutzak beste administrazio eta erakunde publiko batzuekin trukatzeko). 2006tik. 400 kluba (Q aitopena duten enpresak).	Soziala Ingurumenekoa Ekonomikoa	Akziodunak Pertsonak Bezeroak Gizartea
FNS Hasiera: 2002	Novia Salcedo Fundazioarekin praktiketako pertsonak hartzeko sinatutako hitzarmena.	Soziala	Akziodunak Pertsonak Gizartea
ITZARRI-BGAE Hasiera: 2004	Langile publiko guztientzako Enpleguko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundean batzea.	Soziala Ekonomikoa	Akziodunak Pertsonak
AVS Hasiera: 2005	Espainiako Etxebizitza eta Lurzoru Sustatzaile Publikoen Elkartean batzea.	Soziala Ingurumenekoa	Akziodunak Pertsonak Bezeroak Gizartea
INNOBASQUE Hasiera: 2008	Innobasquen (Berrikuntzaren Euskal Agentzia) sartu dira, etxebizitzaren berrikuntzaren, iraunkortasunaren eta kalitatearen alde lan egiteko eta eraikitze modu hobea lortzen laguntzeko.	Soziala Ingurumenekoa Ekonomikoa	Akziodunak Pertsonak Bezeroak Gizartea
ERAIKUNE Hasiera: 2011	Euskadiko Eraikuntzaren Klusterreko bazkideak, sustapenaren, eraikuntzaren, zaharberrikuntzaren eta berriztatzearen arloan.	Soziala Ingurumenekoa Ekonomikoa	Akziodunak Pertsonak Bezeroak Gizartea
IZAN 2005-2008	Haitin etxebizitzak eraikitze proiekturako lankidetzak.	Soziala	Akziodunak Pertsonak Gizartea
BERIZTAPEN Elkarte 2009	Bazterketa-arriskuan dauden taldeak laneratzeko hitzarmena.	Soziala Ekonomikoa	Akziodunak Pertsonak Gizartea
VICENTE FERRER Fundazio 2010-2011	Indiako Anantapurren 48 etxebizitza eraikitze lankidetzak.	Soziala	Akziodunak Pertsonak Gizartea

Aliatua / laguntzailea	Aliantza / Lankidetzta	Eragina	Interes-talde onuraduna
EUSKADIKO MUGARIK GABEKO ARKITEKTOAK eta EFEL-CIAPA Fundazioa 2012-2013	Bolivian gurasoekin espetxeetan bizi diren 12-18 urteko gazteentzako 3 aterpetxe eraikitze lankidetzta.	Soziala	Akziodunak Pertsonak Gizartea
Misioneras del DIVINO MAESTRO 2014-2018	Honako hauekin lankidetzan aritzea: Kashusan ama-eskola eta hiru gela berri eraikitze proiektuak; osasun-zentro bat birgaitze proiektuak eta Shabundan zentro horretako amatasun-gela eta erditze-gelak eraikitze proiektuak (dena Kongoko Errepublika Demokratikoan).	Soziala	Akziodunak Pertsonak Gizartea
JAMBO CONGO 2017-2018	Kongoko Errepublika Demokratikoan, Shabundako osasun zentroan amatasun klinika eta erditze-gela (3 gela) eraiki eta sortzeko proiektuan lankidetzta.	Soziala	Akziodunak Pertsonak Gizartea
AECC Hasiera: 2016	Eibarren hamar urtez lokal bat alokatzeko kontratu bat formalizatu du AECCrekin (Gipuzkoako Probintzia Batzarra), elkartearen Debarrenako eskualde-egoitza kokatzeko, informazioa eta kontzientziazioa, ikerketa onkologikoaren sustapena eta gaixoei eta senideei laguntzeko eta babesteko zerbitzuak errazteko helburuarekin.	Soziala	Akziodunak Pertsonak Gizartea
HURKOA Fundazioa Hasiera: 2016	Morlanseko (Donostia) lokalari dagokionez EAEDE kontratu bat formalizatu da HURKOA fundazioarekin; ahulezia-, mendekotasun- edo babesgabetasun-egoeran dauden adinekoei eta/edo buru-gaixotasunak dituzten pertsonen arreta eta tutoretza ematen die fundazioak, batik batik Gipuzkoa lurraldean.	Soziala	Akziodunak Pertsonak Gizartea
MANOS UNIDAS Hasiera: 2019	Lankidetzan aritzea Makanissa auzoko familientzako higie-ne eta osasun-azpiegiturak eraikitze proiektuekin (Adis Abeba-Etiopia) eta Anse-A-Pitrés-en (Haiti) 10 etxebizitza eraikitze proiektuekin.	Soziala	Akziodunak Pertsonak Gizartea
MANOS UNIDAS 2020	Proiektuarekin lan egitea Haitin muga haitiarrar-dominikarrear aberrirratutako pertsonen bizi-baldintzak hobetzeko.	Soziala	Akziodunak Pertsonak Gizartea
GERTUAN Fundazioa Hasiera: 2020	Morlans-en (Donostia-San Sebastián) dauden 2 lokalen AROC kontratua egitea Gertuan Fundazioarekin, desgaitasun intelektuala eta/edo garapeneko duten pertsonen arreta eman, babestu eta tutoretza ematen diena, bereziki Gipuzkoako lurraldean.	Soziala	Akziodunak Pertsonak Gizartea
MANOS UNIDAS 2021	Nyamakukuru-n (Uganda) ama-haurren osasun-arreta eta zaintza hobetzeko proiektua laguntzea.	Soziala	Akziodunak Pertsonak Gizartea
EDE Fundazioa Hasiera: 2021	Morlans Plazan (Donostia-San Sebastián) dauden 2 lokalen AROC kontratua egitea EDE Fundazioarekin, zaurgarritasun edo desabantaila prozesuan bizi diren pertsonak bultzatu eta ahalduzko erakundea, erakunde publikoek guztien ongirako politikak egiten dituztela bermatzen duena. Bere jarduera Gipuzkoako lurraldean garatzen du nagusiki.	Soziala	Akziodunak Pertsonak Gizartea
JAMBO CONGO 2022	Shabunda-ko (Kongo (DR)) adineko emakumeei laguntzeko eguneko zentroa eraikitzen amaitzeko proiektuan laguntzea.	Soziala	Akziodunak Pertsonak Gizartea

Aliatua / laguntzailea	Aliantza / Lankidetzak	Eragina	Interes-talde onuraduna
SINDIKATUAK EUSKO JAURLARITZA Hasiera: 2005	Sindikatuekin sinatutako hitzarmena, Eusko Jaurlaritzako eta Visesako obren betearazpenean LAPi buruzko Legea eta laneko segurtasuna zein osasuna betetzen direla ziurtatzeko.	Soziala Ingurumenekoa Ekonomikoa	Akziodunak Gizartea
E2B Elkarte Hasiera: 2008	“Energy Efficient Buildings Association (E2BA)” Elkartean sartzea, Europako Batzordearekin batera eraikinetako eraginkortasun energetikoaren arloko I+G+b lerroak lehenesteko.	Soziala Ingurumenekoa Ekonomikoa	Akziodunak Pertsonak Bezeroak Gizartea
Zorrotzaurre Kudeatzeko Batzordea Hasiera: 2013	Bilboko Zorrotzaurreko etorkizuneko uharteko hirigintzaren garapena kudeatzen duen batzordean sartzea.	Soziala Ingurumenekoa Ekonomikoa	Akziodunak Pertsonak Bezeroak Gizartea
IHOBE Hasiera: 2018	Euskadiko erosketa eta kontratazio publiko berdeko taldean parte hartzea.	Soziala Ingurumenekoa Ekonomikoa	Akziodunak Bezeroak Gizartea
Euskal Herriko Notario Elkargoa Urtea 2022	Euskal Herriko Notario Elkargo Txit Prestuak hala eskatuta, Bizkaiko elkargoan notario zentralizatuaren bidez sinatzeko egungo sistema aldatzea adostu zen, dagokion notariotzan sinatzera igaroz. Aurreko sistema aplikatzen azkena Bilboko Zorrotzaurre 120 BOE (B-090) sustapena izan da.	Soziala Ingurumena Ekonomikoa	Akziodunak Gizartea

Iturria: Visesa

N. taula. Aliantzen eta laguntzaileen eragina.

Aliatua / laguntzailea / urtea	Aliantza / Lankidetzak	Eragina	Interes-talde onuraduna
EHU - NATURGAS Urtea: 2000	Errekuntzan dauden produktuak ebakutzeari (proiektuaren sustapenak: Leioa, Arrigorriaga eta Derio). (Unibertsitate-enpresa proiektua)	Soziala Ingurumenekoa Ekonomikoa	Akziodunak Pertsonak Bezeroak Gizartea
EHU Urtea: 2002	CO ₂ isurketak murrizteko ikerketa (proiektuaren sustapena: Mina del Morro eta Otxandio). (Unibertsitate-enpresa proiektua)	Soziala Ingurumenekoa Ekonomikoa	Akziodunak Pertsonak Bezeroak Gizartea
EHU Urtea: 2005	EFICAIND: Banakako horma-galdaretatik eratorritako CO ₂ isurketak murrizteari buruzko ikerketa-proiektuan laguntzea. (Unibertsitate-enpresa proiektua)	Soziala Ingurumenekoa Ekonomikoa	Akziodunak Pertsonak Bezeroak Gizartea
EHU Hasiera: 2006 Amaiera: 2009	EFICACENT: Bizitegi-erabilerako galdara zentralizatuaren errendimendua hobetzeari eta CO ₂ eta NO _x isurketak murrizteari buruzko ikerketa-proiektuan laguntzea. (Unibertsitate-enpresa proiektua)	Soziala Ingurumenekoa Ekonomikoa	Akziodunak Pertsonak Bezeroak Gizartea

Aliatua / laguntzailea / urtea	Aliantza / Lankidetzta	Eragina	Interes-talde onuraduna
EHU Hasiera: 2011 Amaiera: 2012	Etxebizitzaren industrializazioari buruzko azterlan, zabalkunde eta ikerketarako hitzarmena. IDFABRIK: industrializatu ahal diren eraikuntza-sistemen gakoak interpretatzeko ikerketa eta EAEko babes publikoko etxebizitzetan izan dezaketen aplikazioa. (Unibertsitate-enpresa proiektua)	Soziala Ingurumenekoa Ekonomikoa	Akziodunak Pertsonak Bezeroak Gizartea
UPV-EHU Urtea: 2013	Bilboko Ingeniaritzako Goi Eskola Teknikoa , etxebizitzaren eraginkortasun energetikoan aurrera egiteko xedearekin, obra berriko eta birgaitze-lanetako aire-infiltrazioen azterketatik abiatuta.	Soziala Ingurumenekoa Ekonomikoa	Akziodunak Pertsonak Bezeroak Gizartea
CADEM 1998tik	Energia-eraginkortasunaren ziurtagiria. Araudiari 10 urte aurrea hartuta, Visesak ziurtatu zuen gutxienez % 30eko energia-aurrezpena izan zuela eraikin guztietan, kalitate-berme gisa. (Energia-eraginkortasuneko eta iraunkortasuneko proiektua)	Soziala Ingurumenekoa Ekonomikoa	Akziodunak Pertsonak Bezeroak Gizartea
EEE 2002tik	Eguzki-energia termikoko instalazioak. Visesak, araudiari aurrea hartuz, eguzki-energia termikoaren biltzaileak sartzen zituen bere sustapen guztietan, eta horiek gai ziren ur bero sanitarioaren urteko batez besteko energia osoaren % 60 gutxienez hornitzeko (araudiak % 30 eskatzen zuen). (Energia-eraginkortasuneko eta iraunkortasuneko proiektua)	Soziala Ingurumenekoa Ekonomikoa	Akziodunak Pertsonak Bezeroak Gizartea
FAGOR Hasiera: 1998 Amaiera: 2001	Domotika (proiektuaren sustapena: 96 Intxaurren). (Eraikuntza-sistemen proiektua)	Soziala Ingurumenekoa Ekonomikoa	Akziodunak Pertsonak Bezeroak Gizartea
2004	Ureztatzeko eta birziklitzeko euri-uren bilketa (proiektuaren sustapenak: Salburua). (Energia-eraginkortasuneko eta iraunkortasuneko proiektua)	Soziala Ingurumenekoa Ekonomikoa	Akziodunak Pertsonak Bezeroak Gizartea
Etxe. Sai, ORUBIDE, IHOBE, EEE Hasiera: 2004 Amaiera: 2006	Eraikuntza Iraunkorrerako Batzordea, EAEko etxebizitzaren eraikuntza iraunkorrerako oinarri teknikoak ezartzeko Eraikuntza Iraunkorrerako Gida egitea. Eraikinaren liburu zuria. (Energia-eraginkortasuneko eta iraunkortasuneko proiektua)	Soziala Ingurumenekoa Ekonomikoa	Akziodunak Pertsonak Bezeroak Gizartea
ROBOTIKER Hasiera: 2003 Amaiera: 2005	VIDA proiektua: Etxebizitza Domotiko Irisgarria. Hitzarmena, domotikak eman ditzakeen funtzioak egokitzeko, eta dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako etxebizitzaren funtzionaltasuna errazteko. (Proiektuaren sustapena: Durango). (Eraikuntza-sistemen proiektua)	Soziala Ingurumenekoa Ekonomikoa	Akziodunak Pertsonak Bezeroak Gizartea
PICH-AGUILERA Hasiera: 2004 Amaiera: 2009	Visesaren ikerketa-beka, etxebizitza kolektiboko eraikinetako egitura-aurrefabrikatuei buruzkoa. Alderdi bioklimatikoak integratzen dituzten sistema industrializatuak (proiektuaren sustapena: 156 ES Zabalgana Gasteiz). (Eraikuntza-sistemen proiektua)	Soziala Ingurumenekoa Ekonomikoa	Akziodunak Pertsonak Bezeroak Gizartea

Aliatua / laguntzailea / urtea	Aliantza / Lankidetzatza	Eragina	Interes-talde onuraduna
EUSKO JAURLARITZA INDUSTRIA M^o DEUSTUKO UNIBERTSITATE A Hasiera: 2005 Amaiera: 2008	Zaingune proiektu teknologikoa. Ingurumen-adimeneko software-produktua garatzeko proiektua, zeinak etxeko elementu domotikoak, sentsorialak eta jarduketakoak adimenez kontrolatzeko aukera ematen duen, dibertsitate funtzionala duten pertsoneri edo adin nagusikoei eguneroko zereginetan lagunduko dieten laguntza-zerbitzuak eskaintzeko. Salburuako 156 etxebizitza sozialen sustapeneko etxebizitza egokitu batean ezarri zen. (Eraikuntza-sistemen proiektua)	Soziala Ingurumenekoa Ekonomikoa	Akziodunak Pertsonak Bezeroak Gizartea
EVE Hasiera: 2005 Amaiera: 2010	Tetraener-Antondegia (I+Gko 6. programa) EEEn gidaritzapean, bizitegi-garapenak zituen Antondegian (Donostia) eta Genevan, energia-ikuspegitik oso eraginkorrak zirenak. (Energia-eraginkortasuneko eta iraunkortasuneko proiektua)	Soziala Ingurumenekoa Ekonomikoa	Akziodunak Pertsonak Bezeroak Gizartea
Europako Batzordea, EEE Hasiera: 2005 Amaiera: 2010	OPEN HOUSE: helburua eraikinen iraunkortasuna ebaluatzeko tresna ireki bat garatzea zen. Visesak bere gain hartzen zuen eraikuntzaren iraunkortasunerako kontratazio publikoko sistemak aztertzea eta kasu errealetan metodologia ezartzea. (Energia-eraginkortasuneko eta iraunkortasuneko proiektua)	Soziala Ingurumenekoa Ekonomikoa	Akziodunak Pertsonak Bezeroak Gizartea
iiSBE 2008	SB08 Melbourne - SUSTAINABLE BUILDING 2008: Bermeoko 50 BOEn sustapena iiSBE erakundeak hautatu zuen Espainia ordezkatzeko Melbournen egin zen "eraikuntza Iraunkorren Munduko Konferentzian - SB08".	Soziala Ingurumenekoa Ekonomikoa	Akziodunak Pertsonak Bezeroak Gizartea
Europako Batzordea Hasiera: 2010 Amaiera: 2015	ETEak - Kontzertua: helburua energia-eraginkortasun handiko eraikinak garatzea eta energia-iturri berriztagarriak integratzea zen. 171 etxebizitzako energia-kontsumo txikiko eraikin bat eraikitzea (A kalifikazioa) barne hartzen zuen, Salburuan alokatzeko, eta Zaramaga auzoko 30 etxebizitzako eraikin bat energiaz birgaitzea. (Hiri-garapen iraunkorren proiektua)	Soziala Ingurumenekoa Ekonomikoa	Akziodunak Pertsonak Bezeroak Gizartea
ARCELOR LKS TECNALIA Urtea: 2010	Altzairuzko industrializazioari buruzko azterlana: Euskal Autonomia Erkidegoan egin beharreko etxebizitza babestuen sustapenetan altzairuzko oinarri industrializatuko eraikuntza ezartzearen bideragarritasuna ebaluatzea gaitu zuen analisi estrategikoa. (Eraikuntza-sistemen proiektua)	Soziala Ingurumenekoa Ekonomikoa	Akziodunak Pertsonak Bezeroak Gizartea
Urtea: 2013	Industrializazioan eta energia-eraginkortasunean aurrera egitea, izaera integrala izatea, eraikinaren bizi-ziklo osoaren azterketatik abiatuta. Hormigoian egindako esperientzien ondoren, zura eta altzairua bezalako beste material batzuetan oinarritutako industrializazioa aztertu da. (Eraikuntza-sistemen proiektua)	Soziala Ingurumenekoa Ekonomikoa	Akziodunak Pertsonak Bezeroak Gizartea

Aliatua / laguntzailea / urtea	Aliantza / Lankidetzak	Eragina	Interes-talde onuraduna
Europako Batzordea Hasiera: 2013 Amaiera: 2017	OSIRYS: helburua zen eko-materialak eta biozuntzetan oinarritutako produktuak garatzea, barneko airearen kalitatea eta itxituren “arnasgarratasuna” hobetzeko. Visesak alokairuko 70 BOEko sustapen batean instalatu zituen produktu garatuak, Morlansen (Donostia). (Energia-eraginkortasuneko eta iraunkortasuneko proiektua)	Soziala Ingurumenekoa Ekonomikoa	Akziodunak Pertsonak Bezeroak Gizartea
Eusko Jaurlaritzako Laborategiariako Urtea: 2014	Visesak 2008tik 2014ra bitartean eskrituratutako 25 sustapenen eraginkortasun energetikoaren maila zehazteko lankidetzak (guztira 3.390 etxebizitza) eta kostu-efizientzia irizpideak dituzten etorkizuneko diseinu-gomendioak. (Energia-eraginkortasuneko eta iraunkortasuneko proiektua)	Soziala Ingurumenekoa Ekonomikoa	Akziodunak Pertsonak Bezeroak Gizartea
Urtea: 2014	Energia-kontsumo ia nuluko eraikin-proiektua. Visesa Hondarribian 65 BOE sustatzeko proiektua garatzen ari da, zurean eta energia-eraginkortasun handian industrializatutako sistemetan oinarrituta. (Eraikuntza-sistemen proiektua)	Soziala Ingurumenekoa Ekonomikoa	Akziodunak Pertsonak Bezeroak Gizartea
Europako Batzordea Hasiera: 2015 Amaiera: 2017	FosterREG: bere helburua zen “administrazioaren maila desberdinen arteko gaikuntza, koordinazioa eta lankidetzak erraztea, energia birgaitzeko eta hiri berroneratzeko erabakiak hartzeko katean oztupoak kentzeko”.	Soziala Ingurumenekoa Ekonomikoa	Akziodunak Pertsonak Bezeroak Gizartea
Europako Batzordea Hasiera: 2016 Amaiera: 2021	SmartEnCity: proiektu hori Europako “Hiri eta Erkidego Adimendunak” programaren barruan dago, eta Gasteiz “hiri-itsasargi” bat izango da, non energia-eraginkortasunaren, garraioaren eta IKTen inguruko irtenbide-maila bat aplikatuko den, modu integratua eta herritarren kalitatea hobetzeko helburuarekin.	Soziala Ingurumenekoa Ekonomikoa	Akziodunak Pertsonak Bezeroak Gizartea
Europako Batzordea Hasiera: 2013 Amaiera: 2019	AZEB: “Towards Affordable Zero Energy Buildings” (kontsumo nuluko eraikin eskuragarriak): H2020 programaren barruan, “kontsumo ia nuluko eraikin berrien kostuak murriztea” gaiaren esparruan. Visesak Europako hainbat herrialdeetako erakunde eta enprekin batera parte hartzen du proiektuan.	Soziala Ingurumenekoa Ekonomikoa	Akziodunak Pertsonak Bezeroak Gizartea
BIM SPEED Hasiera: 2018 Amaiera: 2022	BIM-SPEED proiektuaren helburua Europako eraikinen birgaitzearen eraginkortasuna hobetzea da, eta bizi-ziklo osorako informazio integratua duen datu-base bat ematea: dagoen eraikinari buruzko informazioaren hasierako bilketatik birgaitze baten ondoren eraikinaren azken errendimendua neurtzeraino.	Soziala Ingurumenekoa Ekonomikoa	Akziodunak Pertsonak Bezeroak Gizartea

4.6. INGURUMENAREN BABESA

4.6.1. Ingurumeneko estrategia eta kudeaketarako sistemak

Visesaren ingurumen-arloko konpromisoa ageriko errealitatea da bere ibilbide osoan, eta honako arlo nagusi hauetan laburtu daiteke:

4.6.1.1. Ingurumena Kudeatzeko Sistema

Visesak urtero ikuskatzen den Ingurumena Kudeatzeko Sistema du, EMAS 1221/2009 Europako Erregelamendura moldatuz, 1505/2017 (EB) eta 1505/2017 (EB) Erregelamenduek aldatzen dutenera. Sistema hori ezartzeak ziurtatu egiten du kalitate- eta ingurumen-baldintzak betetzen direla eta prozedurak eta jarraibideak sistematizatzen direla. Gainera, etengabe hobetzeko konpromisoa gauzatzen du, ingurumena babesteko eta jarduerari lotutako inpaktuak gutxitzeko.

Visesa EMAS Erregistroan dagoen enpresa denez, regelamendu honek aukera eta konpromisoa ematen die erakundeei beren ingurumen-portaera neurtzeko, ebaluatzeko, informatzeko eta hobetzeko. Viseak urtero egiten du ziklo hori EMAS Ingurumen Adierazpenaren bidez, eta interes-taldeen esku jartzen du gardentasun-atariaren bidez: <https://www.visesa.euskadi.eus/gardentasun-ataria/>.

EMAS erregistroa izatearen onura egiaztatuetako batzuk honako hauek dira:

- I. Segurtasuna, ordena eta koherentzia ematen ditu ingurumen-kudeaketan, eta horrek ingurumen-alderdien kudeaketa eraginkorragoa dakar.
- II. Ingurumen-istripuak izateko arriskua murrizten du, istripu horiek eragiten dituzten jarduerak hobeto ezagutzearen eta kontrolatzearen ondorioz.
- III. Ingurumen-jarduerak egiteko laguntza publikoak jasotzeko aukera gehiago daude.
- IV. Visesako pertsonen eta jarduten den udalerriko herritarren kontzientziak, motibazioa eta ingurumen-hezkuntza sustatzen ditu.
- V. Adibide gisa, Visesak jarduten duen enpresa-ehunean Ingurumena Kudeatzeko Sistemak ezartzea bultzatzen laguntzen du.
- VI. Irudia hobetzen du herritarrei, aliatuei, erakundeei eta inbertitzaileei begira.

2021ean eta 2022an zehar, EMAS erregistroaren jarraipenaren lehen eta bigarren kanpo-auditoretza egin dugu, bai eta UNE-EN ISO 9001 Arauaren arabeko kalitatearen kudeaketa-sistemaren birertifikazioa eta jarraipenaren lehen auditoretza ere. Bureau Veritas enpresak egin ditu kanpo-auditoretzak.

Honako hau zehazten du Visesak ingurumen-politikan jasotako konpromisoak garatu, ezarri, berrikusi eta egunean izateko: antolamendu-egitura, jardueren plangintza, ardura, jardunbide onak, prozedurak, prozesuak eta baliabideak.

Visesaren 2021-2024rako marko estrategiko berria onetsi denez, Zuzendaritza Batzordeak ingurumen politikaren eguneratzea berrikusi eta onetsi du; politika hori erreferentzia da ingurumen-kudeaketa hobetzeko helburuak ezartzeko.

Ingurumenerako politika horrek, gainerako politikek bezala, barne-esparruan ezagutarazten da intranetaren bidez, eta kanpo-esparruan Visesaren webgunearen bidez.

 visesa	INGURUMEN POLITIKA POLÍTICA DE MEDIOAMBIENTE	PR01_POL05 Ber./Rev.: 02 2023ko mar/mar
--	---	--

Visesa lurzoria kudeatzen duen eta babes publikoko etxebizitzak alokairu babestuko araubidean sustatzen dituen sozietate publikoa gara. Birgaitze- eta berritze-ekintzak gauzatzen ditu, Etxebizitzaren Gida Planean deskribatutako beharrak asetzeko, modu koordinatuan Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailarekin eta beste eragile publiko eta pribatu batzuekin. Bizigarritasun- eta jasangarritasun-irizpideen arabera jarduten du, ingurumenaren ikuspuntutik.

Gure jarduerak zuzenean eragiten du natura- eta hiri-ingurunean, honako hauen bidez: gure esku-hartzeen inpaktu fisikoa, gure etxebizitzak erabiltzeak dituen ingurumen-ondorioak eta hori lortzeko beharrezkoak diren jardueren ingurumen-inpaktua. Zeregin horiek gure proiektuak gauzatzeko kontratatutako enpresek egiten dituzte nagusiki.

Horren jakitun, Visesak bere jarduerak eragiten dituen inpaktu negatibo horiek minimizatzeko konpromisoa hartu du, bai eta, gure aukeren arabera, hiri-eredu jasangarriak sortzen laguntzekoa ere.

Ilido horretan, estrategiaren bidez, bat egin dugu Euskadi Basque Country 2030 Agendarekin eta Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH), hau da, Visesak zer helbururen gainean duen eragina identifikatu dugu klima-aldaketaren aurkako borrokan eta eraikuntzaren sektorearen garapen jasangarriari laguntzeko.

Visesak, jarduera eta kokaleku guztietarako ezarri eta ziurtatu duen ingurumenaren kudeaketatik abiatuta, ingurumen-konpromisoak bere gain hartu eta sustatzen ditu, eta, horretarako, ingurumen-aldagaia ezartzen du bere eraginpeko hiru eremu handitan: proiektuen eta zerbitzuen kudeaketa, obren kudeaketa eta gure bulegoetan gauzatzen dugun jarduera.

Visesako Zuzendaritzak jendaurrean adierazi nahi du ingurumen-garapenarekin duen konpromisoa, zeina printzipio hauetan oinarritzen den:

JARDUTEKO PRINTZIPIOAK

- Ingurumenaren arloan gure jardueran aplikagarriak diren lege-baldintza guztiak betetzen ditugu, baita sinatutako beste akordio batzuetatik edo gure erakundeak parte hartzen duen beste erakunde batzuekiko lankidetzaren proiektuetatik eratorritako beste baldintza batzuk ere.

Visesa somos la sociedad pública que gestiona suelo, promueve vivienda de protección pública protegida en régimen de alquiler y lleva a cabo acciones de rehabilitación y renovación para satisfacer las necesidades descritas en el Plan Director de Vivienda, de forma coordinada con el Departamento de Vivienda del Gobierno Vasco y otros agentes públicos o privados, actuando con criterios de habitabilidad y sostenibilidad, desde la perspectiva medioambiental.

Nuestra actividad incide directamente en el entorno natural y urbano a través del impacto físico de nuestras intervenciones, de las consecuencias medioambientales del uso de nuestras viviendas y del impacto ambiental de las actividades necesarias para su consecución, tareas que llevan a cabo principalmente las empresas contratadas para la ejecución de nuestros proyectos.

Conscientes de ello, en Visesa nos comprometemos a minimizar estos posibles impactos negativos asociados a nuestra actividad y a contribuir, desde nuestras posibilidades, a crear modelos urbanos sostenibles.

En este sentido, nos hemos alineado a través de la estrategia con la Agenda Euskadi Basque Country 2030 y con los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS) de Naciones Unidas, identificando aquellos sobre los que Visesa tiene influencia para contribuir a la lucha contra el cambio climático y al desarrollo sostenible del sector de la construcción.

Visesa asume y promueve este compromiso ambiental desde la gestión medioambiental que ha implantado y certificado para todas las actividades y emplazamientos, implementando la variable ambiental en las actuaciones de los tres grandes ámbitos sobre los que tenemos influencia: gestión de proyectos y servicios, gestión de obras y el desempeño en nuestras propias oficinas.

Desde la Dirección de Visesa, deseamos expresar públicamente este compromiso con el desarrollo ambiental sostenible, fundamentado en los siguientes principios:

PRINCIPIOS DE ACTUACIÓN

- Cumplimos con todos los requisitos legales de carácter medioambiental aplicables a nuestra actividad, así como con otros requisitos derivados de nuestros acuerdos suscritos o de los proyectos de colaboración con otras entidades en los que nuestra organización participa.

- Enpresa publiko gisa dugun egitekoa betetzeko, ingurumenaren, **sentsibilizazioaren** eta hobekuntzaren **sustatzaileak** izan nahi dugu, baita gure langileen eta interes-taldeen artean (bereziki enpresa hornitzaileak, bezeroak eta herritarrak) ingurumen-praktika jasangarriak sartzearen sustatzaile ere.
- Modu aktiboan lagutzen dugu **ingurumena babesten**, printzipio hauek aplikatuta: kutsaduraren prebentzioa, baliabideen kontsumo arduratsu eta jasangarria, klima-aldaketa arintzea eta hartara egokitzea, eta biodibertsitatea babestea gure jardueraren, produktuen eta zerbitzuen inpaktuen aurka. Horretarako, berrikuntzaren aldeko apustua egiten dugu energetikoki jasangarriagoak eta eraginkorragoak diren eraikinak eginez.
- Gure politika korporatiboaren eta bikaintasun-printzipioaren oinarri gisa, gure ingurumen-kudeaketan **etengabeko hobekuntza** bilatzen dugu, eta, horretarako, adierazleak ezarri eta gure ingurumen-helburuak berrikusi eta hobetzen ditugu, gure ingurumenaren kudeaketa-sistemaren bidez. Halaber, gure alderdi interesdunak erakartzen ditugu ingurumena babesteko konpromisoa har dezaten.
- Ingurumen-arloan hobekuntzarako eta jardunbide egokietarako iturri garrantzitsuenetako bat **ikaskuntza partekatua eta berrikuntza** da, tokiko eta nazioarteko proiektuetan parte hartuz gauzatzen duguna. Horri esker, gainera, alor horretako aurrerapenen zaintza proaktiboa egin dezakegu, hobetzeko aukeren iturri gisa.
- Buscamos ser, en cumplimiento de nuestra misión tractora como empresa pública, **promotores de la sensibilización** y mejora medioambiental y de la introducción de prácticas medioambientalmente sostenibles entre nuestro personal y nuestros grupos de interés, especialmente nuestras empresas proveedoras, clientela y ciudadanía.
- Contribuimos activamente en la **protección del entorno** mediante la aplicación de los principios de prevención de la contaminación, consumo responsable y sostenible de recursos, mitigación y adaptación al cambio climático y la protección de la biodiversidad frente a los impactos causados por nuestra actividad, productos y servicios. Para ello apostamos por la innovación para la construcción de viviendas más sostenibles y eficientes energéticamente.
- Cómo base de nuestra política corporativa y principio de excelencia, buscamos en nuestra gestión medioambiental la **mejora continua**, estableciendo indicadores, revisando y mejorando nuestros objetivos medioambientales a través del sistema de gestión medioambiental e, incluso, traccionando a nuestras partes interesadas a asumir un compromiso de protección del medio ambiente.
- Una de nuestras fuentes de mejora y buenas prácticas medioambientales más relevantes es el **aprendizaje compartido e innovación** que llevamos a cabo a través de nuestra participación en proyectos tanto en el ámbito local como internacional. Esto nos permite mantener además una vigilancia proactiva de los avances en este campo como fuente de oportunidades de mejora.

Gure ingurumen-lana xehatu eta jendaurrean jartzen dugu Jasangarritasunari buruzko Memoriaren eta EMAS Ingurumen Adierazpenaren bidez.

Nuestro desempeño medioambiental lo detallamos y hacemos público a través de la Memoria de Sostenibilidad y la Declaración Medioambiental EMAS.

09737292N
CARLOS
QUINDOS (R:
A20306775)

Firmado digitalmente
por 09737292N CARLOS
QUINDOS (R:
A20306775)
Fecha: 2023.03.16
13:42:07 +01'00'

Nork onetsia: zuzendari nagusia
Carlos Quindós Fernández

Aprobado por: Director General
Carlos Quindós Fernández

Ingurumen aldagaia eragina dugun arlo guztietako jarduketa guztietan txertatzen da: **lurrak, proiektuak, obrak, laguntza teknikoa** eta Visesaren bulegoak.

- Duela zenbait urtetatik, ingurumen-faktoreak kontuan hartzen dira **diseinurako irizpideetan** (energiaren kontsumoa, lehengaien kontsumoa, zarata, ingurune naturala, higienikoak eta argi-iragarkiak. Batzuetan, gainera, babes ofizialeko etxebizitzak diseinatzeko ordenantzaren beraren gainetik daude).
- Ingurumeneko klausulak sartzen dira **kontratazio baldintza-agirian** (urbanizazio edo eraikuntza obra eta proiektua) eta baloratu egiten da hornitzaileek ziurtagiria izatea ekodiseinuan eta ingurumena kudeatzeko sistemetan ezarrita (ISO 14001 edo antzekoetan).
- **Arkitektoek emandako ingurumen irizpideak edo bestelakoak**, baloratu egiten direnak eta puntuazio handiagoa ematen dutenak hornitzailearen lizitazioan.
- Bestetik, ingurumen-klausulak kontuan hartzen dira sukaldeko **ekipamendua kontratatzeke orrietan** (A maila energetikoko etxetresna elektrikoak, materialen jatorria, etiketak...).
- **Obrako Ingurumena Kudeatzeko Plana** ezarrita dago gure lanek iraun bitartean, eta, bertan, honako faktore hauek hartzen dira kontuan:
 - Hondakinen tratamendua, isurketak, igorpenak, lurzoruaren kutsadura, zarata, ihesak, isurketak eta suteak.
 - **Hondakinak** bildu eta berrerabiltzeko sistematika dago ezarrita (tonerra, papera...), eta, era berean, gure bulego guztietan sortutako **isurketak, igorpenak, kontsumoak zein zarata** ere kontrolatzen dira.
 - Bulego guztietan **5S tresna** erabiltzen da (antolakuntza, ordena eta garbiketa), eta **ingurumenaren arloko sentsibilizatorako nahiz informaziorako barne-ekintzak** garatzen dira.
 - **EAEko erosketa eta kontratazio publiko berdearen 2020ko programan parte hartzea**, ingurumen irizpideak sartzeko paperen, ordenagailuen, inprimaketa-ekipamenduen, eraikuntzaren, urbanizazioaren, bulegoko higiezinaren, proiektuen eta aukerako zuzendarien erosketan eta kontratazioetan.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko **4/2019 Legea**, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtapenari buruzko otsailaren 26ko **25/2019 Dekretua** eta horien kontrol- nahiz erregistro-prozedura eta EAEko sektore publikoaren jasangarritasun energetikoari buruzko **254/2020 Dekretua aplikatzeko ekintzak gauzatzea**.
- Visesak Ingurumen Batzordea **abiaraztea**.

4.6.1.2. Eraldatzen duten Berrikuntza eta Jasangarritasuna

Visesak eraikuntza-prozesua hobetu nahi du, ardatzean herritarrak eta ingurumena jarriz, eta sektorean kalitatea, jasangarritasuna eta berrikuntza izatearen bidez egiten dugu.

Azken urteotan, honako hauek izan dira Visesaren berrikuntzaren ardatzaren hiru funtsezko oinarriak: digitalizazioa, industrializazioa eta jasangarritasuna. Hiru gai horien helburua da Visesaren prozesu guztietan palanka eraldatzaileak izatea, alokairuko etxebizitzaren parke jasangarriagoa eta etxebizitzaren eskatzaileen beharrei egokitu lortzeko, aldi berean Visesak sozietate publiko gisa egiten duen jardueraren eraginkortasuna hobetzen duen heinean.

Ondoren, lantzen ari garen berrikuntza- eta jasangarritasun-proiektuak azaltzen ditugu.

INDUSTRIALIZAZIOA

Etxebizitzarako 2021-2023 Gida Planak bere helburuen artean du industrializazioa sustatzea, zehazki, Ekintza Estrategiko gisa jasotzen du eraikuntza-prozesuen industrializazioa sustatzea ikerketa, berrikuntza, informazio eta aplikazio operatiboko ekimen zehatzen bidez. Esparru horretan, Visesak helburu gisa du aurrera egitea alokairuko etxebizitza sozialaren eraikuntza industrializatuaren arloan, jomuga da babes publikoko alokairuko etxebizitza industrializatuaren Liburu Zuria izatea.

Horretarako Berrikuntzako Erosketa Publikoko prozedura abiarazi da. Horrek, alde batetik alokairuko etxebizitza babestuaren sustapenaren beharrei erantzuten dioten sistema industrializatuak aztertzei ikerketa-fasea garatzea bideratzen du, eta, bestalde, etxebizitza-sustapen baten prozesu osoan esku hartzen duten eragileen parte-hartzearen elkarlan-prozedurak sartzeari.

2021ean artearen egoera aztertzei lehen fasea egin ondoren, 2022ko apirilean Visesak lehiatzeko elkarriketa argitaratu zuen prozesu eta sistema industrializatuak dituzten etxebizitza industrializatuaren oinarriko proiektua eta proiektu exekutiboa, zuzendaritza fakultatiboa eta obra exekuzioa idazteko. Kasu honetan Sopelako Asu sektoreko G partzelari lotutako alokairuko babes ofizialeko 33 etxebizitza, eranskinak eta urbanizazioaren sustapenerako da.

Lehiatzeko elkarriketa fasean lizitatzailerik egindako proposamenek "Etxebizitza Sozial Industrializatuaren Liburu Zuria" egiteko balioko dute.

Hona hemen arlo honetan aurreikusitako lan-faseak:

1. Merkatuaren egoeraren eta industrializatuak dituzten sistemen bilakaeraren analisi estrategikoa.
2. Alokairuko etxebizitza publikoaren sustapenera moldatzen den aztertzea.
 - Sopelako alokairuko 33 etxebizitza babestuen sustapenerako lehiatzeko elkarriketa bultzatzea.
 - Alokairuko Etxebizitzaren Liburu Zuria egitea, sistema industrializatuaren erabilera bultzatuz.
3. Sustapenaren lizitazioaren agiriak berrikustea, industrializatuak dituzten irizpide eta sistemak sartzeko.
4. Beste sustapenak bultzatzea, sistema industrializatuaren erabilera sustatuz. Industrializatu beharreko sustapenak planifikatzea.
5. Heltzea eta finkatzea, ebaluatzea eta etengabe hobetzea.

ERAIKINEN ENERGIA-EFIZIENTZIA ETA JASANGARRITASUNA

Honako hauek dira etengabe aplikatzen ditugun neurri orokorrak:

- Visesaren berezkoak diren diseinu eta eraikuntza irizpideak erabiltzea, eraikuntzaren bidez ingurumen-eragina murriztea lehenetsiz.
- 2021ean entregatutako sustapenen energia-ziurtagiria: % 80 A kalifikazioarekin eta % 20 B kalifikazioarekin, eta 2022an entregatutako sustapenena: % 75 A kalifikazioarekin eta % 25 B kalifikazioarekin.
- Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzarako Eraikuntza Jasangarrirako Gida erabiltzea.
- Gure etxebizitza guztietan A kalifikazioa (edo altuagoa) duten etxetresna elektrikoak instalatzea.
- Kontratazio publiko berdea. Erosketa eta kontratazio berde eta berritzaileko irizpideak integratu nahi ditugu, lehiakorragoa den eta ingurumenarekin arduratsuagoa den ekonomia bat finkatzen laguntzeko.
- Egiatutako ingurumen-kudeaketa sistema izatea (EMAS, ISO 14001 edo antzekoa) obraren egikaritze-zerbitzurako.

- IHOBE eraikuntza sektoreko enpresa publikoaren ordezkari den heinean, harekin lan egitea Ekonomia Zirkularrerako 2030 Estrategia zehazteko.

ZIURTAGIRI ENERGETIKOA

Araudiari 10 urte aurrea hartuta, Visesak ziurtatu zuen gutxienez % 30eko energia-aurrezpena izan zuela eraikin guztietan, kalitate-berme gisa. Horren ondorioz, A edo B energia-kalifikazioak lortu dituzte urtero jasotako etxebizitza guztiek:

62. taula. Etxebizitzen ehunekoa, kalifikazio energetikoaren tipologiaren arabera.

Etxebizitzen kalifikazio energetikoa	2020			2021			2022		
	A	B	C	A	B	C	A	B	C
Kalifikazio energetikoa - kopurua	%100	%0	%0	%80	%20	%0	%75	%25	%0

Iturria: Visesa

Visesak kalifikazio energetiko eraginkorrak dituzten etxebizitzak eraikitzea sustatzen du, horiek beren bizi-ziklo osoan sortutako ingurumen-inpaktua murrizteko.

Kalifikazio energetiko eraginkor horien ondorioz, Visesak murriztu egin ditu atmosferara isurketako etxebizitzaren CO₂ isurketak m² -ko, horien bizitza baliagarrian zehar. Isurketen murrizketa horri esker, Visesaren sustapenetan sartutako energia-eraginkortasuneko hobekuntzak ezarri ahal izan dira.

ZERBITZU ENERGETIKOAK EMATEA

Visesak zerbitzu energetikoak eman ditu jabeen erkidegoetan Zerbitzu Energetikoen Enpresa (ZEE) gisa, ur bero sanitarioa (UBS) eta berokuntza hornitzeko, galdara-gela mantentzeko eta kogenerazioerako instalazioetan sortutako energia saltzeko.

Zerbitzu hori Salburuako (Vitoria-Gasteiz) babes publikoko 242 etxebizitzaren eta Laudioko (Araba) 203 etxebizitzaren sustapenetako jabeen erkidegoetan ematen hasi zen.

Sustapen horiek efizientzia handiko mikro – kogenerazio sistema dute (aldi berean beroa eta elektrizitatea sortzen du), honako hau egiten uzten diena:

- A kalifikazio energetikoa lortzea (CO₂ emisioak eta energia primarioaren erabilera murriztea) hasierako inbertsioaren kostua mantenduz.
- Elektrizitatea “in situ” ekoiztea. Garraioan galerak egotea saihesten da eta hondar-beroa aprobetxatzen da, galdaretan gasa kontsumitzea saihestuz.
- Errentagarritasun ekonomiko areagotzea (gaininbertsioaren itzulitakoen tasa 40 urtetik 10 urtera igarotzen da), galdara-gela gehiago jarri gabe eta teilatuak libre utziz, eguzki-energiarako sistemen instalazioa egiten ez delako. Saldutako energiagatik instalazioetan sortutako geldikinarri esker, maila ekonomikoan ere jasangarriagoak dira.
- Jasangarritasun soziala: urtero elkargoei jakinarazten zaie instalazioen funtzionamendu eta errendimendua zein den, eta horri esker partaideak dira eta energia kontsumitzeko ohitura kontziente eta jasangarriak sortzen laguntzen da.

Visesaren laguntzarekin, etxebizitza babestuen erabiltzaileak beren energia-sistemen autokudeatzaile bihurtzen dira, funtzionamendua teknikoki eta ekonomikoki optimizatuz. Horren ondorioz, erabiltzaileek hainbat gauza lortzen dituzte: ekonomikoki aurrezte, merkatuarekin alderatuz zerbitzuaren kostu lehiakorra, horniduraren segurtasuna, kudeaketa kanporatzea eta horniduraren fidagarritasuna.

Zerbitzu hori azken 10 urtez eman da jabeen elkargoekin sinatutako kontratuaren bidez. 2021. urtean kontratu-harremana amaitu zen Laudioko 2 sustapenekin, eta 2022an Salburuako (Vitoria-Gasteiz) sustapenarena amaitu zen. Hala, Visesak amaitutzat eman zituen Zerbitzu Energetikoak, erabiltzaile eta elkargoei hamarkada batez zerbitzuak ematen egon ondoren.

Zerbitzu hori modu mailakatuan itxi da, jabeen elkargoei kudeaketa guztiekin lagunduz. Zerbitzu Energetikoak amaitzearekin batera, instalazioen titulartasuna itzuli zaie komunitateei. Azken urteotan Visesaren tutoretzari esker, eta bereziki titulartasuna itzultzeko prozesuari esker, orain elkargoak guztiz independenteak dira beren ekoizpen energetikoa kudeatzeko.

BERRIKUNTZA PROIEKTUAK

SmartEnCity (2016-2022) (I+G arloko Horizon 2020 Programa).

Koroatze auzoko 26 komunitateetako 302 etxebizitzaren birgaitze energetikoa egiteko proiektua Visesaren proiektu handienetako bat izan da. Jarduera horrekin eraikinen erosotasun teknikoa hobetu da inguratzailea birgaitzeari esker, hortaz, erabiltzaileen bizi-kalitatea hobetzea lortu da.

Proiektu horri buruzko informazio gehiago izateko ikus memoria honen 4.6.1.3. puntua.

BIM SPEED (2018-2022)

Proiektu honen helburua izan da Europan eraikinen birgaitzearen eraginkortasuna hobetzea, bizi-ziklo guztietarako informazio integratua duen datu-basea emanez: existitzen den eraikinaren informazioa hasiera batean jasotzen denetik birgaitzea amaitu ondoren eraikinaren amaierako errendimendua neurtzen den arte.

48 hilabete iraun du eta 22 kidek hartu dute parte. Koordinatzailea Berlingo Technische Universität-ea (Alemania) izan da.

Visesak garatutako tresnak aplikatzeko bi kasu emanez hartu du parte: Aldabe 26 eta Manual Díaz de Arcaya 5, eraikin biak SmartEnCity Europako proiektuaren baitan birgaituak.

BIM Speedek eman dituen tresnek birgaitze eraginkorragoa egitea bideratu dute, BIM (Building Information Modeling) metodologiaren bidez faseak digitalizatuz.

2022ko urrian, Berlinen (Alemania) proiektuaren azken bilera egin ondoren, BIM Speed proiektua amaitutzat jo zen.

4.6.1.3. Hiria biziberritzeko proiektu estrategikoetako inplikazioa
BOLUETA

421. banaketa-eremuan dago Bolueta (Bilbo). Hiria eta ingurumena birgaitzeko proiektu garrantzitsua da, erabiltzen ez den industria-eremu batena, hiriaren onurarako. Gainera, gizartea leheneratzeko proiektu bat da; izan ere, sustatu beharreko 1.100 etxebizitzetatik 680 administrazio publikoek garatuko dituzte, eta babes publikoko araubideren baten pean egongo dira.

Eraikuntzaren ikuspegitik, energia aurrezte eta material natural eta iraunkorrekin eraikitzea nabarmentzen da.

Boluetan proposatutako garapenak ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-erabakia garrantzitsuak dakartza.

- Ingurumenekoak: Oso eraldatuta dagoen lurzorua leheneratzea bizitegi-erabilera berrirako; aisialdirako guneak eta ibaiertzeko pasealeku bat sortzea; energia-eraginkortasuneko neurriak eta garraio kolektiboaren, oinezkoen garraioaren eta bizikletaren erabilera lehenestea. Visaren eraikinetan instalazio kolektiboak eta mikro-kogenerazio sistema aurreikusten dira, % 75eko estaldurarekin, energia-kontsumoa nabarmen murrizteko. Diseinuan Passivhauseko 5 printzipioak aplikatu dira: isolamenduak hobetzea, zubi termikoak murriztea, airearekiko estankotasuna, arotzeria espezifikoa eta aireztatpena, beroa berreskuratuz.
- Ekonomikoak: Urte osoan berogailu-gastu nulua edo ia nulua duten etxebizitzak, eta kontsumoak %-75 murriztea (A kalifikazioa). Horren bidez, eraikinen diseinu trinkoarekin, elementu komunak mantentze-gastuak optimizatzeko aukera dago.
- Sozialak: Ia 12.000 pertsonak parte hartu dute hiri-diseinua aukeratzeko, legez eska daitekeen ehuneko hirukoizten duen herritarren esku etxebizitza babestuen programa jartzen. 23 akordio sinatu dira beste egoiliar batzuekin, 17 jarduera ekonomiko lekualdatu dira, eta industria-arkeologiako elementuak berreskuratuz dira; esate baterako, Fundiciones Santa Ana tximinia.

2020an, kontsumo ia nuluko bigarren eraikinean salgai dauden babes publikoko 190 etxebizitza eman zaizkie jabeen. Etxebizitza horiek, gainera, salgai dauden babes publikoko 108 etxebizitza eta alokairuko 63 sozial dira, 2018an entregatutako ezaugarri bereko lehen dorrekoak.

2021ean, babes ofizialeko 54 etxebizitzen eta babes ofizialeko 90 etxebizitzen lizitazioa baliogabetu zen, alokairuko etxebizitzetara saltzeko kalifikazioa aldatzeko. Gainera, etxebizitzen diseinua Bizigarritasun Dekretu berrira egokitzea erabaki da.

2022an kalifikazio berria lortu zen 2. faseko 144 BOE espedientetik.

Bilboko Udalak, Neinor erakundeak eta Visesak esparru horretan parte hartzen dute, eta Visesa da sozietate publikoa. Funtsezko eragilea da, guztira 1.100 etxebizitzetatik 680 sustatzen dituelako. Jarraian, etxebizitzen tipologiak (Visesari dagozkionak) eta garapenen faseak zehazten dira:

Etxebizitzak guztira	1. FASEA		3. FASEA	4. FASEA
	RE-1A1	RE-1A2	RE-3	RE-4
680	63 ES 108 BOE	190 BOE	144 BOEa	175 BOEa

BOE: Babes ofizialeko etxebizitza – **VS:** Etxebizitza Soziala – **BOEa:** Alokairuko Babes Ofizialeko Etxebizitza

ZORROTZAURRE

San Inazio eta Deustu aurrean dago, eta Nerbioi ibaiak eta Deustuko kanalak mugatzen dute. Zorrotzaurre bi helbururekin sortu zen: batetik, jasangarritasuna lortzeko, eta, bestetik, Bilboko eremu degradatu bat birgaitzeko.

822.551,63 m²-ko azalera dauka eta hiri-garapen trinkoa lortzeko eta mugikortasun iraunkorra ahalbidetzeko beharrezkoak diren erabileren eta dentsitatearen nahasketarekin diseinatu da. Zorrotzaurre berriaren (eremu mistoa) bi herenek erabilera publikoa izango dute, espazio libreen 155.893 m² eta zuzkidura publikoetarako partzeletan 84.936 m² barne, eta horietan ekipamenduak egongo dira (hezkuntza-, osasun-, kirol- eta kultura- ekipamenduak). 201.360 m² jarduera ekonomikorako erabiliko dira.

Zorrotzaurre bizitzeko toki gisa proiektatu da, lan egiteko eta gozatzeko leku gisa proiektatzen da. Bertan lehentasunezko tratamendua emango zaie oinezkoen, txirrindularien eta garraio publikoaren mugikortasunari, eta inguruko bizitegi-, industria- eta portu-memoria zainduko da. 5.474 etxebizitza hartuko ditu; horietatik erdiak babes publikokoak izango dira, 1.101 Visesak sustatuko ditu eta 376 Eusko Jaurlaritzak.

Zorrotzaurreko HAPB behin betiko onetsi zenean 2012ko azaroan, bi Gauzatze Unitate (GU1 eta GU2) zehaztu ziren, honako eraikuntza-eskema honekin:

Mota	GU1	GU2	Guztira
BOE	1.262	110	1.372
PTE	1.061	315	1.376
EA	2.390	336	2.726
Guztira	4.713	761	5.474

BOE: Babes ofizialeko etxebizitza – PTE: Prezio Tasatuko Etxebizitza – EA: Etxebizitza Askea

2021ean, San Inazioko UE1 SI2an salgai zeuden babes publikoko 104 etxebizitza tasaturen sustapena merkaturatzen jarraitu zen, eta San Ignazio zubiaren harrera-akta lortu zen. Era berean, proiektua idatzi eta UE1 RD-6an 58 etxebizitza sustatzeko obrak zuzenduko dituen talde fakultatiboa kontratatzeko lizitazioa argitaratu zen, eta, azkenean, JAMM arkitektura-sozietatea S.L.ri esleituko zitzaion.

2022an mugarri garrantzitsuak lortu dira Zorrotzaurren eraikitzen ari garen sustapenetan: salmentan dauden babes ofizialeko 120 etxebizitzaren sustapenaren obrarekin hasi gara, eta prezio tasatuko 104 etxebizitza eman dizkiegu beren jabeei.

VEGA GALINDO

Sestaoko hirigunearen mugakide den “Vega Galindo” bizitegitarako Hiri Lurzoruaren Eremuak Sestaoko bizitegi-eremu degradatuenen birmoldaketa eta birgaitzea berregituratzeko eta bultzatzeko asmoa du, bai eta babes publikoko etxebizitzetarako lurzoria sustatzeko ere, prezio eskuragarriko etxebizitzaren sorrera sustatzeko eta birgaitze-eremuetako egoiliarak lekualdatzeko etxebizitzak eraikitzea ahalbidetzeko.

“La Puntan” (horrela ezagutzen da eremuan hori) 1.351 etxebizitza eraikitzea planteatzen da, bi exekuzio-unitatetan banatuta: EU1 eta EU2. EU1ean, ia osorik garatuta dagoena, alokairuko babes publiko sozialeko 58 etxebizitza (ES), alokairuko babes publikoko 52 etxebizitza (BOE), salmentako babes publiko ofizialeko 53 etxebizitza (BOE) eta 2. faseko alokairuko babes publiko ofizialeko 180 etxebizitza sustatu dira, proiektua idazteko fasean daudenak. EU2 berriro definitzeko prozesuan dago gaur egun.

1.351 etxebizitzaren (EU1 + EU2) banaketa honako hau da:

TIPOLOGIA	ETXEBIZITZAK
BOE	248
BOEa	157
ES	136
PTE	345
PTEa	60
EL	405
GUZTIRA	1.351

BOE: Babes ofizialeko etxebizitza salgai – **BOEa:** Babes ofizialeko etxebizitza alokairuan - **ES:** Etxebizitza soziala –
PTE: Prezio Tasatuko Etxebizitza salgai – **PTEa:** Prezio Tasatuko Etxebizitza alokairuan– **EL:** Etxebizitza librea

Sestao Vega Galindon egindako jarduketak onura handiak dakartza:

- Sozialak: Auzoaren irudia hobetzea, azpietxebizitzaren ordean etxebizitza duinak jartzea, Bilboko itsasadarraren ondoan aisialdirako gune bat berreskuratzea (San Frantzisko zelaia), eta garraio-azpiegiturak berrantolatzea, sarbideak eta Sestaoko eta inguruko udalerriekiko lotura konponduta.
- Ingurumenekoak: Lehendik dauden industria-lurzoruetan kutsadura kentzea, EU1 urbanizatzea (5.700 m²) eta Galindo ibaiaren ingurunea hobetzea, haren ibaiertza herritarren gozamererako berreskuratzean.
- Kulturalak: Egindako indusketa arkeologikoak Bizkaian orain arte egindako horrelako esku-hartze handiena eragin du (aztertutako azalerari dagokionez).

SMARTENCITY ETA KOROATZEA

SmartEnCity (2016-2021) Europako I+G+b H2020 programak (“hiri eta erkidego adimendunak”) finantzaturako proiektua da, eta CO₂-rik gabeko hiriak sortzeko estrategia komun bat diseinatzea du helburu. Gasteiz “hiri-itsasargi” bat da, eta eraginkortasun energetikoaren, garraioaren eta IKTen inguruko irtenbide-tarte bat aplikatzen da modu integratuan, betiere pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko helburuarekin.

Visesak gidatuta, Gasteizko proiektuaren koordinatzaile gisa, bazkide nagusiak Gasteizko Udala eta IGI (Ingurumen Gaietarako Ikastegia), Giroa – Veolia, Energiaren Euskal Erakundea (EEE) eta Mondragon Korporazioa dira. Era berean, Visesa 26 etxejabeen elkartetan energia-birgaitze integraleko jarduketaren arduraduna da, eta guztira 302 etxebizitza ditu.

SmartEnCity proiektu europarrak 12.790.000 € euroko aurrekontua du esleituta Gasteiz hirirako. Horietatik, 6.889.726 € Visesak egiten dituen 302 etxebizitzak birgaitzeko dira. Etxebizitza horien jabeek birgaitze horren kostu osoaren % 46 ordaintzen dute.

Koroatzeko proiektuan egindako lana aintzatetsi da 2020an. Europako Batzordeak Visesak zuzendutako bi ekintza hautatu ditu “berrikuntza bikain” gisa. Lehenengoa Visesak, sustatzaile delegatu gisa, etxejabeen erkidegoen alde ematen duen zerbitzu berritzaileari buruzkoa da, haien eraikinak birgaitzeko jarduketetarako. Herritarren partaidetzarako estrategia, Visesak diseinatu duena eta hiri-eskala globalago batetik abiatuta proiektuaren hurbilketa eta hedapenean oinarritzen dena, auzoaren/eraikinaren ikuspegira, eta, azkenik, pertsonen ikuspegira, aintzatetsitako bigarren “berrikuntza bikaina” da.

Bizilagunek dagoeneko egiaztatu ahal izan dute proiektu honek onura handiak ekarri dizkiela:

- **Sozialak:** Etxebizitzen erosotasuna hobetzea, berokuntzaren kontsumoa % 50 arte aurreztea (fakturan % 15-20 aurreztea), beste eraikin batzuetan jarduketa berriak egiteko trakzio-efektua eragitea, informazio gehiago eta autokudeaketa-gaitasun hobea duten herritarrek birgaitutako etxebizitzak modu eraginkorrean erabiltzeko aukera ematea, auzoaren irudia hobetzea eta eraberritutako etxebizitzen balioa handitzea.
- **Ingurumenekoak:** Energia-ziurtagiriak birgaitutako etxebizitza guztietan, berokuntzaren energia-eskaria % 50 murriztea eta CO₂ isurketak % 90 murriztea. Halaber, 2021erako aurreikusitako bero-sarea martxan jarri ondoren, gas-horniduraren ordez tokiko jatorriko biomasa-iturri berriztagarriak jarriko dira, ur beroaren eta berokuntzaren sistema elikatzeko.
- **Europako Batzordeak, Gasteizko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak errenten arabera jasotako dirulaguntzei esker atxikitako etxebizitza birgaituetarako ekonomikoak.** Tokiko erkidegoentzat ere onuragarria da enplegua sortzea (55 arkitektura-azterlanekin egindako akordioa, 14 azterlan edo 28 proiektu egiteko kontratatutako ABEEak, birgaikuntzak egiteko kontratatutako 5 ABEEak eta eskualdeko eta inguruko enpresa-ehuneko dozenaka ETE eta mikroETE onuradunak), bai eta zerga-itzulketak ere.

2021. urtea urte garrantzitsua izan zen SmartEncity birgaitze energetikoaren proiektuarentzat, atxikitako 26 komunitateen obrak amaitu baitziren, eta etxebizitzak monitorizatzeko azken faseari ekin zitzaion. 2022ko ekainaren 14 eta 15ean Vitoria-Gasteizen proiektuaren azken batzarra egin zen, eta proiektua uztailan amaitu zen ofizialki.

NEXT FUNTSAK – BIRGAITZE ENERGETIKORAKO LAGUNTZAK

2022 urtean zehar, Visesak etxebizitza pribatuko eraikinak birgaitzeko laguntzak kudeatzeko jardura berria diseinatu, ezarri eta garatzen hasi da. Laguntza horiek Europar Batasunak finantzatzen ditu Next Generation funtsen bidez, eta Espainiako Gobernuaren (Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa - MITMA) eta Eusko Jaurlaritzaren bidez kanalizatzen dira.

Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren laguntza-programa hori estatu-mailan arautzen da urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren bidez.

Euskadin aplikatzeko, Eusko Jaurlaritzak Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio sailburuaren 2022ko ekainaren 21eko Agindua argitaratu zuen. Horren bidez egoitza-eraikuntzak eta etxebizitzak birgaitzeko laguntza-programei lotutako laguntzen deialdi publikoaren oinarriak ezartzen diren eta deialdia arautzen da, eraikuntza horien energia-efizientzia sustatzeko.

2022ko ekainaren 1etik aurrera, Eusko Jaurlaritzak eskatuta, Visesa laguntza-programa horien birgaitze-bulego eta erakunde kolaboratzailearen funtzioak egiten hasi zen, 2022ko azaroaren 23an bien artean sinatutako hitzarmenean jasota dagoen legez.

Funtzio horiek betetzeko plantilla indartu da bost pertsona gehiago aldi baterako kontratatuz, nagusiki herritarrei aurrez aurreko arreta emateko, baita kanpo-zerbitzuekin ere, espedienteen kudeaketa, izapidea eta berrikusketa egiten laguntzeko.

Honako hauek dira Visesak hartzen dituen ildo eta programak:

- **Eusko Jaurlaritzaren 1. ildo** → Obra partikularrak egiteko finantza-neurriak (bizitza bakarreko etxebizitzak edo eraikinen elementu pribatiboak: kontserbazioa, bizigarritasuna, energia-efizientzia hobetzea, irisgarritasuna eta eraikuntza no bati moldatzeko akabera orokorra egokitzea).

- **Eusko Jaurlaritzaren 2. ildo** → Bi familiako etxebizitzetan/adosatuetan eta bizitegi-eraikinetan eraikinaren, instalazioen edo zerbitzu komuneren elementu amankomunetan obrak egiteko finantza-neurriak: kontserbazioa, segurtasuna, bizigarritasuna, energia-efizientzia hobetzea eta irisgarritasuna.
- **Next 3. programa** → Eraikin-mailan hobekuntza energetikoak egiteko jarduketak (arreta berezia eraikinaren ingurutzailan) familia anitzeko etxebizitzetan eta familia bakarreko/bi familiako etxebizitzetan.
- **Next 4. programa** → Familia anitzeko eraikinetan dauden etxebizitza partikularren eta familia bakar/bi familiako etxebizitzen energia-efizientzia hobetzeko jarduketak.
- **Next 5. programa** → Existitzen den eraikinaren liburua egiteko laguntza-programa, birgaitzeko eta birgaitze-proiektuak egiteko.
- **Next 6. programa** → Energetikoki efizienteak diren eraikinetan alokairu sozialeko etxebizitzak eraikitzeko laguntza-programak.

2022. urtean aurrez aurreko 377 hitzordu izan dira eta 2.993 telefono-dei, eta laguntzetarako 343 eskaera egin dira, 1.912 etxebizitzetara dagozkienak.

Bestalde, ondoren Next Funtsen 6. programak finantzaturako jarduketak eta egiteke dauden jarduketak zerrendatzen dira:

Next Funtsen finantzaturako Visesen jarduketak	Egiteke dauden jarduketak
<ul style="list-style-type: none"> • Salburua 152 BOE – Vitoria-Gasteiz (Araba) • Salburua 166 BOE – Vitoria-Gasteiz (Araba) • Amurrio 60 ES – Amurrio (Araba) • Amurrio 42 ES – Amurrio (Araba) • Sestao 180 BOEa – Sestao (Bizkaia) • Sarrikobaso 68 BOEa – Getxo (Bizkaia) • Sarrikobaso 54 BOEa – Getxo (Bizkaia) • Barakaldo 198 BOEa – Barakaldo (Bizkaia) • Santurtzi 42 ES – Santurtzi (Bizkaia) • Sopela 24 BOEa – Sopela (Bizkaia) • Hondarribia 66 BOEa – Hondarribia (Gipuzkoa) • Zumarraga 36 ES + 72 BOEa – Zumarraga (Gipuzkoa) • Orrio 46 BOEa – Orrio (Gipuzkoa) • Urretxu 24 BOEa – Urretxu (Gipuzkoa) 	<ul style="list-style-type: none"> • Iturribarri 58 BOEa – Getxo (Bizkaia) • Bolueta RE-3 144 BOEa – Bilbo (Bizkaia) • Cortes 23 ES – Bilbo (Bizkaia) • Asu 33 BOEa – Sopela (Bizkaia) • Egazelai 36 BOEa – Eibar (Gipuzkoa) • Sailberdin R-9 91 BOEa – Zarautz (Gipuzkoa)
<p align="center">14 sustapen – 1.140 etxebizitza Zenbatetsitako dirulaguntza: 48.580.000 €</p>	<p align="center">6 sustapen – 385 etxebizitza Zenbatetsitako dirulaguntza: 58.305.557 €</p>

4.6.2. Ingurumeneko inbertsioak eta gastuak

Visesak bere proiektuetan sartutako gehiegizko prestazioen ondoriozko ingurumen-inbertsioak edo -gastuak (diseinu-irizpideak) aurkezten ditu, aplikatu beharreko araudiak eskatzen duenetik harago, eta, gehienetan, eraikitako etxebizitzaren energia-eraginkortasuna hobetzea du helburu. Visesak ingurumenarekin lotuta egiten dituen eta kategorizatuta dauden beste inbertsio/gastu batzuk hauek dira:

63. taula. Ingurumeneko inbertsioak/gastuak.

Ingurumeneko inbertsioak eta gastuak - €	2020	2021	2022	Ald. %
EMAS eta ISO 14.001 ziurtagiriak	4.500,0	5.898,75	3.630,00	-38,5
Sukaldeetako inbertsioak	275.701	943.213 €	330.254 €	-65,0

Iturria: Visesa

Visesak berrikuntza teknologikoak lortzeko jardueretan parte hartzen du, batzuk amaituta daude eta beste batzuk abian dauden berrikuntzak dira. Taula hauetan jarduera horretan inplikaturako inbertsioak/gastuak aurkezten dira (Visesako pertsonak barne). SmartEnCity proiektu europarraren amaierak 2022an jarduera horretan inplikaturako inbertsioen eta gastuen beherakada islatzen du.:

64. taula. Inbertsioak/berrikuntza gastuak

Berrikuntza-jarduerak- €	2020	2021	2022	Ald. %
Barne I+G (barneko lan sortzaileak)	416.992	360.817	31.718	-91,2
I+G lortzea (kanpotik lortutako lanak)	0	0	0	0,0
Beste berrikuntza-gastu batzuk (aurrekoak alde batera utzita)	23.733	10.200	9.298	-8,8
Gastuak guztira jarduera berritzailetan	440.725	371.017	41.016	-88,9

Iturria: Visesa (Berrikuntzari buruzko inkestak. Eustat)

65. Taula. I+G-ko langileak.

enplegatutako pertsonak	2020		2021		2022		Ald. %
I+G-ko langileak - kopurua	5		9		6		-33,3
	Em.	Giz.	Em.	Giz.	Em.	Giz.	
	2	3	4	5	3	3	
Langileen % I+G-n	%5,9		%10,5		%6,7		-33,3

Iturria: Visesa (I+G jarduerari buruzko estatistika. Eustat)

66. taula. Ikerketa motako barne-gastuak guztira.

Ikerketa mota- €	2020	2021	2022	Ald. %
Ikerketa aplikatua	62.777	50.255	2.628	-94,8
Teknologiaren garapena	354.215	320.763	29.090	-90,9
Barne I+G guztira	416.992	371.018	31.718	-91,5

Iturria: Visesa (I+G jarduerari buruzko estatistika. Eustat)

67. taula. Barneko I+G gastuen finantzazioa.

Barruko I+G gastuen finantzazioa - €	2020	2021	2022	Ald. %
Geure funtsak	123.705	113.670	31.718	-72,1
Kanpoko funtsak	293.287	257.348	22.991	-91,1
Guztira barruko I+G	416.992	371.018	31.718	-85,3

Iturria: Visesa (I+G jarduerari buruzko estatistika. Eustat)

4.6.3. Ingurumeneko prestakuntza eta sentsibilizazioa

Urtero, Visesak ingurumeneko beharrezko prestakuntza eta sentsibilizazioa garatzen ditu, kontzientziazioa suspertzeko eta erakundeko nahiz jarduerako ingurumen-jarduna hobetzeko.

68. taula. Ingurumeneko prestakuntza.

Ingurumeneko prestakuntza	2020		2021		2022		Ald. %
	Ema.	Giz.	Ema.	Giz.	Ema.	Giz.	
Egindako ikastaroak (kop.)	6		6		5		-16,7
Orduak guztira (h)	220,5		159,8		64,0		-59,9
Bertaratutakoak guztira (kop.)	14		18		13		-27,8
	7	7	6	12	7	6	
Orduen batez besteko kopurua bertaratu bakoitzeko (kopurua)	15,8		8,9		4,9		-44,5

Iturria: Visesa

Langile sartu berri guztiei harrera-prestakuntza ematen zaie, eta, bertan, ingurumeneko sentsibilizazioa nahiz kontzientziazioa jorratzen dira.

Gainera, Intraneten, pertsona guztiek dituzte jardunbide egokien gidak eta ingurumen-kudeaketa hobetzearekin lotutako informazioak (bai enpresan bai etxean), kontsumo arduratsua eta ingurumen-adierazle nagusien emaitzak eta ingurumenarekin zerikusia izan dezaketen ekimen edo ideia berritzaileak sustatzeko.

4.6.4. Ingurumeneko barne-emaitzak

Erakundearen aurkezpenean adierazi den bezala, Visesa Vitoria-Gasteizen dagoen bulego nagusi batek eta herritarrentzako arretarako hiru bulegok (Bilbo, Donostia-San Sebastián eta Vitoria-Gasteiz) osatzen dute.

Azken hori bulego nagusiaren beraren beheko solairuan dago, beraz, zenbatzeko eta ingurumen-jarreraren adierazleak kalkulatzeko orduan zentro bakartzat jotzen dira.

Hala, erakundearen ingurumen-adierazleak hiru egoitzei lotuta agertuko dira:

- Nagusia ARABA (Bulego Nagusia + Herritarrentzako Arreta Bulegoa Vitoria-Gasteizen)
- HAB BIZKAIA (Herritarrentzako Arreta Bulegoa Bilbon)
- HAB GIPIZKOA (Herritarrentzako Arreta Bulegoa Donostia-San Sebastiánen)

Adierazi behar da Visesak 2016an eman zuela bere Ingurumena Kudeatzeko Sistema EMAS Erregelamendura egokitzeko urratsa, eta ziurtagiri hori EMAS Erregistroan lortu zuela 2017ko abenduan.

Ondoren erakutsiko diren ingurumeneko adierazleek ingurumeneko zuzeneko alderdiekin dute lotura, eta Visesaren jokabideari buruzko balorazio zehatza ematen dute, modu ulergarrian eta argian. Ingurumeneko jokabidearekiko emaitzak adierazteko, kopuru absolutuez gain, administrazio-jardueraren gaineko balioak erabiltzen dira (pertsona kopurua edo bulegoko m²-ak erreferentziatzat hartuta bulegoek ingurumenean duten eraginari buruzko datuetan).

2020. urtea berezia izan da pandemiaren egoerarengatik, eta, horregatik, hurrengo urteetan, Visesaren ingurumen-adierazleen urteko hobekuntza-joerari jarraitzen zaion ikusi beharko da.

4.6.4.1. Energia-eraginkortasuna

Atal honetan, egoitza bakoitzeko energia-kontsumoari lotutako energia-eraginkortasunari buruzko datuak jasotzen dira. Energia-kontsumo horiek aintzat hartzen dituzte bulegoetako energia elektrikoaren kontsumoa eta erakundearen egoitza bakoitzari lotutako autoetako gasolio-kontsumoa. Erregaiaren kontsumoari buruzko datuak kWh-ra bihurtzeko, "MENAE plataforman jarduera-ildoak betetzeko gida erabili da (IDAE. Madril, 2019ko martxo)".

Energia elektrikoaren kontsumoa


Hona hemen Visesako bulegoetako elektrizitate kontsumoa:

69. taula. Energia elektrikoaren kontsumoa pertsonako (bulegoka eta guztizkoa).

Kontsumo elektrikoa - kWh/pertsona	2020	2021	2022	Ald. %
kWh/pertsona (zentrala + Gasteizko BAB)	2.478	2.531	2.146	-15,2
kWh/pertsona (Bizkaiko BAB)	1.805	1.575	1.396	-11,4
kWh/pertsona (Gipuzkoako BAB)	948	1.115	1.032	-7,4
kWh/pertsona bulegoak, guztira	2.367	2.387	2.008	-15,9

Iturria: Visesa

18. grafikoa. Energia elektrikoko kontsumoa pertsonako (bulegoak guztira).



Aurreko grafikoa ikus daiteke 2018tik aurrera urteko kontsumo elektrikoa murriztu dela etengabe (kWh/pertsona). Erregistratu dugun murrizteko joera hori honako faktore hauetan oinarritzen da: argiak kontsumo txikikoekin ordeztzea (LED motakoak), pertsonen kontsumo energetikoa arrazionalizatzeko duten sentsibilitatea, Bizkaian diseinu jasangarria eta kontsumo efizienteagoa duen egoitza berria irekitzea eta, hein batean, aurreko urteekin alderatuz 2022an langile gehiago izatea.

Nabarmendu behar da 2019tik Visesaren 3 egoitzetako kontsumo elektriko guztia iturri berriztagarrietatik datorrela % 100ean; izan ere, aurtan Visesa Eusko Jaurlaritzak sustatutako energia garbiaren kontratazioaren parte izatera igaro da.

Erregaien kontsumoa

Honako hau da erregaien kontsumoa Visesaren bulegoetan:


70. taula. Erregaien kontsumoa pertsonako (bulegoka eta guztira).

Erregaien kontsumoa – Litroak pertsonako	2018	2019	2020	Ald. %
Litroak/pertsona (zentrala + Gasteizko BAB)	204	207	103	-50,0
Litroak/pertsona (Bizkaiko BAB)	92	63	55	-12,8
Litroak/pertsona (Gipuzkoako BAB)	100	135	85	-36,6
Litroak/pertsona bulegoak, guztira	189	193	100	-48,3

Iturria: Visesa

Honako hauek izan dira aurreko urteekin alderatuz erregaien erabilera murriztean eragina izan duten faktoreak: bero-ahalmen txikiagoa eta ondorioz kWh-ko kontsumo txikiagoa duten ibilgailu hibrido eta elektriko berriak sartzeko politika; eta pandemiaren egoera, oro har Visesako pertsonen gutxiago garraiatzea eragin duelako, bereziki 2020. urtean.

19. grafikoa. Erregai kontsumoa pertsonako (bulegoak guztira).



Diesela ez diren erregaiak erabiltzeaz gain, Viseko erregai-kontsumoaren murrizketa erakundeko pertsonen energia-kontsumoaren arrazionalizazioarekiko duten sentsibilitatearen ondorio da, hirian bertan garraio-sistema alternatiboak erabiltzearen bidez (bizikleta elektrikoak).

Aurreko atalean adierazienez, 2019tik Visesa Eusko Jaurlaritzak sustatutako energia garbiaren kontratazioaren parte izatera igaro zen; hortaz, kontsumitzen duen elektrizitate guztia gaur egun iturri berriztagarrietatik dator, eta hori egoitza bakoitzari dagozkion CUPSren luditze-datuen arabera egiaztatu da. 2021ean Arabako egoitza nagusian eta Bizkaiko HABan ibilgailuen kontsumo elektrikotik ateratako datua sartu zen; kontsumo hori ere % 100ean iturri berriztagarrietatik dator.

4.6.4.2. Materialen kontsumoa

Jarraian, Viseko materialen kontsumoaren efizientzia zehazten da (enpresa hornitzailearen fakturretatik eta barne-inbentariotik lortutako datuak):

Tabla 71. Consumo de materiales total y por persona (total oficinas)


Consumo de materiales (paperari dagokion kontsumoaren % 90-% 95)	2020	2021	2022	Ald. %
Bulego guztietan kontsumituriko material kg	1.933	1.858	1.677	-9,7
Bulego guztietan kontsumituriko material kg/pertsona	22,7	21,6	18,8	-12,8

Iturria: Visesa

Kalkulatu da gutxi gora behera Visesan egiten den materialen kontsumoaren % 90-% 95 DIN A4 eta DIN A3 paperari dagokiola nagusiki. Hala ere, materialen kontsumoaren adierazlea kalkulatzeko, zentroek beren jardura gauzatzeko kontsumitutako paperaren, tonerraren, gutun-azalen, karpeten, grafoen eta post-it-en datuak sartzen dira.

Datu bereziak daude kokaleku bakoitzaren materialen kontsumoari lotuta; izan ere, kontsumo horiek kontrolatuak eta kontabilizatuak dira.

20. grafikoa. Bulego guztietan kontsumitutako kg materia pertsonako



Beste ingurumen-alderdietan nabaria den bezala, erakundearen neurketa osoak 2018tik beheranzko joera dagoela zehazten du. Zehazki, 2022ko efizientziaren adierazleak adierazten du 2021arekin alderatuz % 12,9ko murrizketa egon zela materialen kontsumoan, eta 2020arekin alderatuz, berriz, % 17,2koa.


Murrizteko joera horrek eragin txikiena izan du bulegoetan, COVID-19a eta telelana direla eta, baina era berean joera gero eta trinkoagoa izan da; funtsezkoa izan da Visesak egindako materialen kudeaketa (erosteko irizpideak, banaketa eta batzea). Gaur egun, Visesaren urteko balantzearen jarraipena egiten ari da bulegoko materialerako egindako eskaeren ohituretatik eratorritako karbono-aztarna kalkulatzu.

4.6.4.3. Ur kontsumoa

72. taula. Ur sanitarioaren kontsumoa.

Ur sanitarioaren kontsumoa - m ³	2020	2021	2022	Ald. %
m ³ guztira (zentrala + Gasteizko BAB)	139	217	129	-40,6
m ³ -ak guztira (Bizkaiko HAB)	25	40	52	32,1
m ³ -ak guztira/pertsonako (b. nagusia + Gasteizko HAB + Bizkaiko HAB)	2,0	3,1	2,2	-31,0

Iturria: Visesa

 21. grafikoa. Kontsumitutako m³ ur pertsona bakoitzeko Bulego Nagusian + Arabako HABen + Bizkaiko HABen


2022an % 31,0ko beherakada egon zen efizientziaren adierazlean (m³/pertsone) 2021arekin alderatuz, eta 2020arekin alderatuz % 6,4ko igoera egon zen.

2021ean egoera anomaloa egon zen kontsumitutako ur-kopuruarekin, instalazio nagusian matxura egon zelako. Behar bezala erregistratu eta konpondu zen urte horretan bertan gertakari gisa gure ingurumen-kudeaketarako sisteman.

Nahiz eta kontsumoak 2020. urtekoa bakarrik gainditzen duen oraindik etorkizuneko datuak falta dira Bizkaiko HABeko ur-kontsumoaren egoera arruntari erreparatzeko, baita 2021ean instalazioan izandako matxuraren eragin erreala jakiteko eta 2020ko pandemiaren egoeraren eragina ezagutzeko, Visesako langileek instalazio batzuk gutxiago erabili zituelako urte hartan.

4.6.4.4. Hondakinak

73. taula. Sortutako hondakin motak (bulegoka eta guztira).

Sortutako hondakin motak - kg	2020	2021	2022	Ald. %
HIRIKO HONDAKINAK - HH				
HH kg/pertsone (zentrala + Gasteizko BAB)	65	53	68	28,0
HH kg/pertsone (Bizkaiko BAB)	13	26	29	11,6
HH kg/pertsone (Gipuzkoako BAB)	21	22	21	-0,8
HH kg/pertsone bulegoak, guztira	60	49	61	24,2
HONDAKIN EZ ARRISKUTSUAK - HEA				
HEA kg/pertsone (zentrala + bab gasteiz)	56	62	50	-19,1
HEA kg/pertsone (Bizkaiko BAB)	113	151	99	-34,5
HEA kg/pertsone (Gipuzkoako BAB)	32	28	36	27,5
HEA kg/pertsone bulegoak, guztira	58	67	54	-19,8
HONDAKIN ARRISKUTSUAK - HA				
HA kg/pertsone (zentrala + bab gasteiz)	5,2	4,2	2,7	-35,0
HA kg/pertsone (Bizkaiko BAB)	0,0	0,1	0,1	37,2
HA kg/pertsone (Gipuzkoako BAB)	0,1	0,8	2,4	194,7
HA kg/pertsone bulegoak, guztira	4,6	3,7	2,4	-33,9


Iturria: Visesa

74. taula. Sortutako hondakinak (bulegoka eta guztira).

Sortutako hondakinak - kg	2020	2021	2022	Ald. %
Hondakin kg/pertsone (zentrala + Gasteizko BAB)	125,5	119,2	120,7	1,2
Hondakin kg/pertsone (Bizkaiko BAB)	126,7	177,6	128,5	-27,7
Hondakin kg/pertsone (Gipuzkoako BAB)	53,0	50,7	59,9	18,1
Hondakin kg/pertsone bulegoak, guztira	121,7	120,5	117,8	-2,2

Iturria: Visesa

22. Grafikoa. Bulego guztietan sortutako kg hondakin pertsonako



